

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

- 4442** *13/2012 Errege Lege Dekretua, martxoaren 30ekoa; honen bidez, elektrizitatearen eta gasaren barne-merkatuen arloko eta komunikazio elektronikoen arloko zenbait zuzentzauren transposizioa egiten da, eta gasaren eta elektrizitatearen sektoreetako kostuen eta diru-sarreraren arteko bat ez etortzeak eragindako desbideratzeak zuzentzeko neurriak onartzen dira.*

#### I

Europako Erkidegoko zuzentzauren transposizioa, batez ere, barne-merkatuari buruzko zuzentzaurena, epean egitea da gaur egun Europako Kontseiluak ezarritako helburu nagusietako bat. Europako Batzordeak aldizkako txostenak igortzen dizkio Lehiakortasun Kontseiluari azter ditzan. Txosten horiei balio politiko handia ematen zaie, estatu kideek barne-merkatua martxan jartzerakoan duten eraginkortasuna eta sinesgarritasuna neurtzeko balio baitute.

Helburu hori lortzeko, gaur egun, are lehenetasun handiagoa du, Lisboako Tratatuak diseinatutako agertoki berria dela-eta. Tratatu horrek, Europar Batasuneko Tratatu eta Europako Erkidegoa eratzeko aldatzen ditu, transposizioak epean ez betetzeari dagokionez; kasu horietan, Batzordeak zehapen ekonomiko gogorak jartzea eska diezairoke Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari, eta gainera, zehapen horiek azkar jartzea (Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Tratatuaren – EBFT 260.3 artikulua).

Espainiak tinko bete ditu epean egin beharreko transposizio-helburuak ezarri zirenetik. Hala ere, zenbait zuzentzauren transposizioa atzeratzen ari da. Zuzentzaureak lege mailako arau bat behar dute barne-ordenamendu juridikoan sartzeko, isuna jartzeko arriskua baitago, EBFTren 260.3 artikuluan zehaztutakoarekin bat.

Zuzentzaureak Espainiako ordenamendu juridikoan sartzeko gehiago atzeratzeak ondorio larriak izan ditzakeela ikusita, beharrezkoa da transposizioa egiteko errege lege-dekretu bat onartzea. Hartara, arau-hauste prozedura irekiak itxi ahal izango ditugu, bai eta Espainiari zehapen ekonomikoak jartzea saihestu ere.

Errege lege-dekretua transposiziorako tresna moduan erabiltzeari dagokionez, esan beharra dago Konstituzio Auzitegiak, urtarrilaren 21eko 23/1993 Epaian ezarritakoaren arabera, lege-dekretua egoera ekonomiko zaileri aurre egiteko legezko tresna dela, eta hala dagoela jasota Konstituzioan; horrez gain, urtarrilaren 13ko 1/2012 Epaia dio, «transposizioan ageriko atzerapena» dagoenean eta, aldi berean, «Espainiako Erresumaren aurka ez-betetze prozedurak» daudenean, Konstituzioaren 86.1 artikuluan adierazitako aparteko eta presazko beharrianaren egoera betetzen dela bermatzen duela.

Bestalde, ez da tresna juridiko horretara jo behar den lehenengo aldia, Europar Batasuneko Zuzenbidea ez betetzeagatik zehapen ekonomikoak jasotzeko benetako eta berehalako arriskua saihesteko. Horregatik, segurtasun pribatuari buruzko uztailaren 30eko 23/1992 Legearen artikulua jakin batzuk aldatzen dituen irailaren 14ko 8/2007 Errege Lege Dekretua emateko arrazoia honakoa izan zen: «Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentziak aipaturiko aparteko eta presazko beharrianaren alde aurreko egoera betetzea, eta, hor, araua sortu beharra hain izaera berezikoa izango da, non ezingo baitzaio premiazko legegintza-prozeduraz erantzun, eskatzen duen berehalakotasunagatik». Premisa horri ere hel dakioko kasu honetan.

#### II

Batetik, errege lege-dekretu honek hainbat aurreikuspen sartzen ditu gure ordenamenduan, tartean: elektrizitatearen sektorearen azaroaren 27ko 54/1997 Legea aldatzea eskatzen duten Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren

13ko 2009/72/EE Zuzentarauan jasotakoak eta hidrokarburoen sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legea aldatzea eskatzen duten Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/73/EE Zuzentarauan jasotakoak. Halaber, partez txertatzen du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/28/EE Zuzentaraia, 2009ko apirilaren 23koa, iturri berriztagarrietako energiaren erabilera sustatzeko eta 2001/77/EE eta 2003/30/EE zuzentaraiak aldatu eta indargabetzen dituena.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/72/EE Zuzentaraiak, 2009ko uztailaren 13koak, elektrizitatearen barne-merkatutarako arau komunei buruzkoak, 2003/54/EE Zuzentaraia indargabetzen duenak, alderdi berriak sartzen ditu sare-jardueren eta hornidura- eta sortze-jardueren arteko banaketa efektiboa lortzeko, eta hainbat aukera proposatzen ditu banaketa hori egiteko.

Gainera, herrialdeko agintaritza arautzaileen rola indartzen du, eta herrialde mailako agintaritza arautzaile bakarra, juridikoki eta funtzionalki beste edozer erakunde publiko edo pribatuz kanpokoa dena, sortzea aurreikusten du, bai eta agintaritza arautzaileen helburu, betebeharrak eta gaitasunak zehaztu ere.

Bestetik, zerbitzu publikoaren betebeharrak indartzen dira. Horren harira, kontsumitzaileak bere kontsumo-datuak, lotutako prezioak, zerbitzu-kostuak eta desadostasunak konpontzeko bideei buruzko informazioa zer-nola lortu ditzaketen arautuko da. Horrez gain, xedatu legeez, estatu kideek definitu behar dute bezero ahularen kontzeptua, eta ezarri energia elektrikoaren hornidura bermatzeko neurriak. Energia-pobrezia ere erreferentzia egin zaio.

2009/73/EE Zuzentaraiak ondare-banaketaaren kontzeptua sartzen du; horren arabera, sarearen jabea sarearen kudeatzailea izango da, eta ekoizpen eta horniduran interesa duen edozer enpresatik bereiz egongo da. Gainera, gaitasunak gehiago bateratu eta energia-arautzaile nazionalen burujabetasuna indartu nahi du, estatu kide bakoitzean gainbegiraketa arautzaileak eraginkortasun maila bera izan dezan.

Elektrizitatearen sektorearen azaroaren 27ko 54/1997 Legeak eta hura garatzeko arau-xedapenek energia elektrikoaren hornitzeko jardueren erregimen juridikoa ezarri zuten, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 19ko 1996/92/EE Zuzentarauan, elektrizitatearen barne-merkatutarako arau komunei buruzkoan, jasotako aurreikuspenekin bat.

Ondoren, uztailaren 4ko 17/2007 Legeak elektrizitatearen sektorearen azaroaren 27ko 54/1997 Legea aldatu zuen, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren ekainaren 26ko 2003/54/EE Zuzentarauan, elektrizitatearen barne-merkatutarako arau komunei buruzkoan, xedatutakora egokitzeke.

Hidrokarburoei buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legeak gas naturalaren merkatuaren funtzionamenduaren oinarriak ezarri zituen, eta liberalizazioa areagotu zuen zerbitzua eraginkorragoa eta kalitate handiagokoa izatea lortzeko, lehiakortasuna areagotzeko eta horniduraren segurtasuna eta iraunkortasuna bermatzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren ekainaren 22ko 1998/30/EE Zuzentarauan, gas naturalaren barne-merkatutarako arau komunei buruzkoan, jasotako aurreikuspenei jarraiki.

Ondoren, uztailaren 2ko 12/2007 Legeak hidrokarburoen sektorearen urtarrilaren 7ko 34/1998ko Legea aldatu zuen, gas naturalaren barne-merkatutarako arau orokorrei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren ekainaren 26ko 2003/55/EE Zuzentarauan, 1998/30/EE Zuzentaraia indargabetzen duenean, xedatutakora egokitzeke.

### III

Elektrizitate-sektoreari dagokionez, errege lege-dekretu honen bidez 2009/72/EE Zuzentarauan jasotako betebeharrak bete da, estatu kide bakoitzak agintaritza arautzaile nazional bakarra izendatzea ezartzen duena. Halaber, agintaritza arautzaile horren gaitasun eta funtzioak zehazten dira, orain artekoak indartzeko. Zehazki, beste administrazio batzuekin koordinatuta, kontsumitzaileak babesteko neurrien eraginkortasuna eta aplikazioa bermatzen lagunduko duten helburuak eta funtzioak sakondu dira.

Sareko jardueren eta sortze- eta hornidura-jardueren arteko independentzia bermatzeko, 2009/72/EE Zuzentarauan zehaztutako baldintzak kontuan hartu dira, zehazki, enpresa-partaidetzen mugei eta horien kontrolari buruzkoak. Horrez gain, garraio-sareen kudeatzaileak izendatzea aurreikusten da, eta agintaritza arautzaileak

eskumena izango du kudeatzaileok aurretiaz egiaztatzeko, erregelamendu bidez ezartzen diren prozedurei jarraiki.

Halaber, kontzeptu berri bat sartzen da, hain zuzen ere kontsumitzaile ahularena –zehaztutako ezaugarri sozialak, kontsumokoak eta erosahalmenekoak betetzen dituen kontsumitzailea–, eta kontsumitzaileak behar bezala babesteko beharrezko neurriak hartzea ezartzen da. Behin-behinean, alegia, kontsumitzaile ahularen kontzeptua definitu bitartean, halakotzat hartuko dira energiaren sektorean zenbait neurri hartzeko eta bonu soziala onartzeko apirilaren 30eko 6/2009 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluko eta bigarren xedapen iragankorreko aplikazio-eremuaren barruan direnak, hots, bonu soziala balia dezaketanak.

Kontsumitzailea babesteko beste neurri bat zera izan da, administrazio eskudunek, Energiaren Batzorde Nazionalarekin batera, harremanetarako puntu bakarra ezartzea, kontsumitzaileei eskubideen, indarrean den araudiaren eta auziak konpontzeko prozeduren berri emateko.

Bestalde, Estatuko Administrazio Orokorra gaitu da nazioarteko lankidetzamekanismoak abian jartzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 23ko 2009/28/EE Zuzentarautik (iturri berriztagarrietatik datorren energia erabiltzea sustatzeari buruzkoa eta 2001/77/EE eta 2003/30/EE Zuzentaruak indargabetzen dituen) eratorritako konpromisoak betetzeko –berotegi efektuko gas-isurketak mugatzeko, iturri berriztagarrietatik datorren energia sustatzeko Europako esparru komun bat ezarri nahi du–, bai eta energia-eraginkortasuna sustatu, eta garraiotik datorren kutsadura murrizteko ere.

#### IV

Hidrokarburoen sektoreari bagagozkio, aipatu behar da sare-kudeatzailea enbor-sareko instalazioen titular izatera pasatu dela. Sare-kudeatzaileak garraio-jarduerak, batetik, eta hornidura- eta ekoizpen-jarduerak, bestetik, bereizi beharko ditu. Horretarako, ondare-bereizketaren eredia proposatzen da. Hartara, pertsona berak ezin du hornidura- eta ekoizpen-enpresa bat kontrolatu eta, aldi berean, garraio-sistema batean interesik edo eskubiderik izan. Hala, egitura bertikala duten enpresek ezingo dituzte beren enpresatalde bereko enpresak faboratu, ez eta gainerako lehiakideak baztertu ere. Hala eta guztiz ere, enbor-sareko instalazioen titular diren enpresek, baldin eta enpreson titular badira 2009ko irailaren 3a baino lehen eta ez badituzte betetzen ondare-bereizketaren beraren baldintzak, horien kudeaketa laga ahal izango diote ezarritako baldintzak betetzen dituen sare-kudeatzaile burujabe bati.

Gainera, jardueren bereizketa egiaztatzeko prozedura ezarri da 2009/73/EE Zuzentaruaren zehaztutako garraio-sareen kudeatzaileentzat zein sare-kudeatzaile burujabeentzat. Energiaren Batzorde Nazionalak egingo du egiaztapena.

Erakunde arautzaileak, alegia, Energiaren Batzorde Nazionalak, funtzio gehiago izango ditu, eta berak onartu beharko ditu oinarritzko sarbide-zerbitzuaren bidesariak eta kanonak kalkulatzeko metodologiak. Zehatzeko eskumena eta enpresentzako juridikoki lotesleak izango diren erabakiak hartzeko gaitasuna izango du, aipatutako erakundeak dituen gaitasunen esparruan. Gainera, beste administrazio batzuekin batera, kontsumitzaileak babesteko neurrien eraginkortasuna eta aplikazioa bermatuko duten helburuak eta funtzioak sakonduko dira.

Horrez gain, biogasa, biomasatik lortutako gasa eta beste mota batzuetako gasak sartu dira hidrokarburoen sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legearen aplikazio-eremuan, baldin eta teknikoki posible bada gas naturalaren sarean txartatzea. Garraioan ere ondare-bereizketaren erregimenari lotutako aldaketak sartu dira, definizioa eta enbor-sareko garraiolariak eta sare burujabeko kudeatzaileek Energiaren Batzorde Nazionalaren egiaztapena lortzeko bete behar dituzten betebeharrak eta baldintzak barne. Oinarritzkoak ez diren biltegitratzeetara sartzeko ezaugarriak eta hirugarrenei azpiegitura berrietarako edo aurretik zeudenen handitzeetarako sarbide-salbuespena emateko prozedura ezarri dira. 2009/73/EE Zuzentaruaren xedatutakoaren ildotik, merkaturatzaileentzako betebeharrak jaso dira, etxeko kontsumitzaileen babesa bermatzeko. Oinarritzko sareko garraio-, birgasifikazio- eta biltegitratze-jardueren bidesari eta kanonak zehazteko sistema berria ezarri da, eta Energiaren Batzorde Nazionalak finkatuko du metodologia. Azkenik, zehapen-erregimena eguneratu da, horren inguruko eskumenak Energiaren Batzorde Nazionalari esleitu zaizkionez, egoera berrira egokitzeko, 2009/73/EE Zuzentaruak zehaztu legez.

## V

Bestalde, errege lege-dekretu honen bidez, komunikazio elektronikoei buruzko Europako esparru arautzaile berria sartu da Espainiako ordenamendu juridikora. Honakook osatzen dute esparru hori: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/136/EE Zuzentaraua, 2009ko azaroaren 25ekoa (Herritarren eskubideak) eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/140/EE Zuzentaraua, 2009ko azaroaren 25ekoa (Erregulazio hobea).

Zuzentaruon transposizioa egiteko, telekomunikazioei buruzko azaroaren 3ko 32/2003 Lege Orokorra eta informazioaren gizarteko eta merkataritza elektronikoko zerbitzuei buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legea aldatu egin dira; bigarren hori puntualki.

Telekomunikazioei buruzko azaroaren 3ko 32/2003 Lege Orokorrean aldaketak egin dira belaunaldi berriko sareetan inbertsioak egiteko esparru egoki bat sortu ahal izateko, horrekin batera zerbitzu berritzaileak eta teknologiaren aldetik herritarren beharretara hobeto egokitzen direnak eskaintzeko. Hori lortzeko, Legearen helburu eta printzipioen artean, komunikazio-sare eta -zerbitzu elektronikoen muturretik muturrerako konektagarritasuna eta elkarreragingarritasuna bultzatu da, eta erabiltzaileek informazioa edozer aplikazio edo zerbitzuren bidez baliatzeko eta banatzeko aukera sustatuko da. Hori guztia gizarte talde berezien (adinekoen, ezgaituen eta mendekoen) behar bereziak ahaztu gabe.

Merkatuan botere handia duten operadoreei ezar dakizkiekeen betebeharren artean sareko aktiboen eta sarbide-produktuen handizkako horniduraren arteko bereizketa funtzionala egin behar izateko aukera dago, eskumenak behin eta berriro huts egiten duen kasuetarako ezohiko konponbide gisa. Edonola ere, oihartzun handiko legea denez eta hainbat esparrutan epe luzera ondorio larriak izan ditzakeenez, neurria justifikatutako kasuetan soilik eta eragina zorrotz aztertu ondoren hartuko dela bermatzeko kautela ugari ezarri dira.

Orobat, errege lege-dekretu honen bidez operadoreen eskubideei buruzko nobedade garrantzitsuak sartu dira; izan ere, jabetza publikoa eta pribatua okupatzeko eskubidea indartu da, arauak modu efektiboan bermatzea eskatzen baitu. Nolanahi ere, eskubide horri jar dakizkiekeen mugek kausa objektiboak izango dituzte oinarri, eta proportzionatuak eta ez-diskriminatzaileak izan behar dute. Sareak hedatzea errazteko helburu berari jarraiki, okupazio-eskaerak ebazteko epe zehatz bat ezarriko da, betiere sei hilabetetik beherakoa, desjabetzeetan izan ezik.

Datuak babesteari dagokionez, segurtasun mailak handitzeko apustua egin da, eta, horretarako, operadoreek datuak tratatzeari eta babesteari lotutako kautelak areagotuko dira.

2009/136/EE eta 2009/140/EE Zuzentaruak komunikazio elektronikoko sare publikoen osotasuna eta segurtasuna indartzeari ematen dioten garrantziarekin bat, operadoreek behar bezala kudeatu behar dituzte beren sareak kalte ditzaketen segurtasun-arriskuak. Gainera, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak gainbegiratu beharko ditu ezar daitezkeen informatzeko, gertakarien berri emateko eta ikuskatzeko betebeharrak, besteak beste.

Erreformak komunikazio elektronikoko zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak indartzen ditu; izan ere, zenbakia aldatu gabe eta lanegun bakar batean operadorez aldatzeko eskubidea arautzen du, eman beharreko informazioa hobetzen du eta ezgaitasunak dituzten erabiltzaileen beharrei arreta berezia jartzen die.

Jabari publiko irrati-elektrikoen kudeaketari dagokionez, neutritasun teknologikoaren printzipio eta zerbitzuen aplikazioa orokortu eta espektroaren bigarren mailako merkatuaren erregulazioan sakondu da. Horren bidez, operadoreei esleitutako espektro-baliabideen errendimendua maximizatu nahi da. Ondorioz, onura egingo dio berrikuntza teknologikoari eta zerbitzu hobe gehiago eskainiko dira.

Jabari publiko irrati-elektrikoaren erabilera eraginkorra egiaztatzeko eskumenak indartu dira, balio urria eta gero eta garrantzitsuagoa izanik, baliabide hori bermatzeak duen garrantzia kontuan izanik.

Azkenik, informazioaren gizartearen zerbitzuei eta merkataritza elektronikokoari buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legearen zenbait artikulua aldatu dira, horren erregimena 2009/136/EE Zuzentaruak komunikazio elektronikoen sektorean datu pertsonalak tratatzeari eta intimitatea babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko uztailaren 12ko 2002/58/EE Zuzentaruari emandako idazpena egokitzeke. Nabarmenezkoa da 22.2 artikuluari emandako idazpena: erabiltzailearen baimena

exijitzen da ekipamenduetan informazioa gordetzen duten eta horietara sartzea ahalbidetzen duten artxibo eta programa informatikoen (*cookie* deitutakoak kasu) inguruan. Gailu horiek sarean nabigatzea errazten dute, baina horiek erabilia, baliteke erabiltzaileen alderdi pribatuak azaleratzea; beraz, ezinbestekoa da erabiltzaileek informazio egokia izatea eta beren pribatutasunari eusteko mekanismoak eskura izatea.

## VI

Azkenik, Zuzentarauak txertatzeari dagokionez, errege lege-dekretuaren amaieran hiru xedapen iragankor daude, energia elektrikoaren kontsumitzaile ahulei arreta emateari buruzkoa bat, merkaturatzaileek erreklamazioak erantzuteko zerbitzuaren harira dituzten betebeharrei buruzkoa beste bat, eta telekomunikazioari buruzko lege orokorraren babesean emandako gaikuntzen baliozkotasun eta eraginkortasunari buruzkoa beste bat.

Jarraian, hiru xedapen iragankor daude; gasbideen enbor-sareko instalazioei buruzkoa bata, energia elektrikoaren sareetara eta gas-sistemara sartzeko bidesariak ezartzeari buruzkoa beste bat, eta komunikazio elektronikoko zerbitzuak emateko espektro irrati-elektroa erabiltzeko gaitzen duten tituluen teknologia- eta zerbitzu-neutraltasunaren printzipioaren murrizketei buruzkoa azkena.

## VII

Aurreko neurriez gain, errege lege-dekretu honek elektrizitatearen eta gas-sistemen diru-sarreraren eta kostuen arteko bat ez etortzeak ezabatzeko hainbat neurri hiltzen die premiaz.

Neurrien helburua 2012rako aldi baterako bat ez etortzeak murriztea da, hala elektrizitate-sektorean, nola gas naturalarenean, gainerako bat ez etortzea sarbide-bidesariak handitzearen bidez xurga dadin. Hala, berehala lortuko da nahikotasun-printzipioa, hain zuzen ere, elektrizitate-sektorearen azaroaren 27ko 54/1997 Legearen hogeita batgarren xedapen gehigarrian eta hirugarrenak gas-instalazioetara sartzeara arautzen duen eta gas naturalaren sektorearen sistema ekonomiko integratu bat ezartzen duen abuztuaren 3ko 949/2001 Errege Dekretuaren 26. artikuluan jasotakoa.

Errege lege-dekretu hau elektrizitate- eta gas-sistemen kostuak estaltzeko sarreraren nahikotasuna lortzeko lehendabiziko urratsa da. Baina, beharrezkoa da bi sektoreen erreforma sakonago bat egitea, horiek gure herrialdeko egungo energia-egoerak (sistema garestia, kanpoalderekiko mendekotasun handia, baliabideak ziurtasun osoz baliatu ezin izatea, energiaren prezio oso aldakorak eta energia zikloaren ingurumen-eragin handiak) mahaigaineratzen dituen erronkei berme guztiekin aurre egiteko egokiak diren mekanismoz hornitzeko. Erantzun hori egituratzeko oinarritzko hiru ardatz hartuko dira aintzat, Europako energia-politikarekin bat: hornidura-bermea, lehiakortasun ekonomikoa eta ingurumenarekiko errespetua, baita kontsumitzailearen babesa ere.

Azken batean, elektrizitatearen eta gasaren sektoreak erreformatzeak hainbat helburu izango ditu: lehenik, epe luzerako tarifa-nahikotasuna eta oreka ekonomikoa, eta bigarrenik, sistemak egoera ekonomiko berrira egokitzea. Azken horretarako, kostuak arrazionalizatuko dira eta industria-jardueraren lehiakortasuna hobetzeko aukera emango duten eraginkortasun-mekanismoak txertatuko dira, gure ekonomiak hazten jarrai dezan.

Gero, neurri osagarriak garatu beharko dira, epe luzerako oreka eta iraunkortasuna lortzearen.

Horiek horrela, jarraian deskribatzen diren neurriek Konstituzioaren 86. artikuluan adierazitako aparteko eta presazko beharizanaren ezaugarriak betetzen dituzte. Apartekoak eta presazkoak dira, hain zuzen ere, kontsumitzaileak babestuko dituztelako eta elektrizitate-sistemaren egonkortasun ekonomikoa bermatuko dutelako. Horrez gain, berehala jarri behar dira indarrean arau-aldaketak nahi den eraginkortasuna eduki ahal izan dezan.

## VIII

Elektrizitatearen sektorea liberalizatzeko prozesuak, elektrizitatearen sektorearen azaroaren 27ko 54/1997 Legea indarrean jartzean hasi zenak, sektorearen jarduera-egitura aldatu zuen; izan ere, monopolio naturalean garatzen diren zenbait jarduera

–energia elektrikoa garraiatzeko eta banatzeko jarduerak– eta guztiz liberalizatutako beste batzuk –energia elektrikoa sortzea eta merkaturatzea– bateratu zituen.

2009ko uztailaren 1a mugari garrantzitsua izan zen liberalizazio-prozesuan, tarifako hornidura-jarduerak banaketa-jardueraren parte izateari utzi baitzion eta merkaturatzaileak bihurtu baitziren hornitzaile, lehia askean.

Egun hori baino lehen, sistemaren diru-sarrerak bestelako iturriak zituzten: sarbide-bidesariak eta enpresa banatzaileek kontsumitzaileei hornitzen zieten energia elektrikoaren tarifak. Diru-sarrerok finkatzeko, elektrizitate-sistemaren kostuak hartzen ziren oinarri, energiaren kostua barne. Egun, sarbide-bidesariak dira elektrizitate-sistemaren diru-sarrera iturri nagusiak, bai eta bestelako prezio arautuak ere. Azken horiek jarduera arautuak finantzatzeko balio dute, sistemaren gainerako kostuekin batera.

Sistemaren iraunkortasun ekonomikoa bermatzeko, apirilaren 30eko 6/2009 Errege Lege Dekretuak, energiaren sektorean zenbait neurri hartzeko eta bonu soziala onartzekoak, azaroaren 27ko 54/1997 Legearen hogeita batgarren xedapen gehigarria aldatu zuen; hain zuzen ere, diru-sarreraren nahikotasun eta azken errekurtsoko tarifen batukortasun printzipioak sartu zituen. Beste era batera esanda, sistemaren diru-sarrerak horren kostuak estaltzea bermatzeko nahikoak izan behar dutela eta kostuen banaketak seinale ekonomiko eraginkorrak sortu behar dituela. Hala, sarbide-bidesari bakoitza aplikatzeak (kontsumo maila eta -tentsioaren arabera) eta energiaren merkatu-prezioaren seinaleak erabakiak eraginkortasunez hartzera eta inbertsio eraginkorrak egitera eramane behar lukete kontsumitzailea.

Hala ere, azken urteetan, sistemaren kostuen partidak handitu egin dira eta sarbide-bidesariak ez dira nahikoak izan sistemaren kostu guztiak estaltzeko; hori dela-eta, urteko defizitak egon dira eta kontsumitzaileek erabakiak hartzeko prezio-seinaleak sortzeko helburuak zalantzan jarri dira.

Sistemaren diru-sarreraren –sarbide-bidesari bidez bildu dira gehienbat– eta kostu errealean arteko desorekak eragin ditu urteko defizitok, eta jasan ezinezko arrisku-egoerara eramaten ari dira sistema, bai enpresa elektrikoaren, bai kontsumitzaileen kasuan. Gainera, sistemaren segurtasunerako ondorio larriak izango ditu, guztiz konpontzeko beharrezko erreformak egiten ez badira.

Bi alderdik eragin dute arazoa: batetik, 2000. urtetik pilatutako defiziten zenbatekoak, eta, bestetik, oraindik ere sortzen ari diren urteko defizitek. Azken horiekin amaitzea gero eta zailagoa da, eskaeraren jaitziera, erregimen bereziaren igoera eta sistemaren kostuak ikusita.

Apirilaren 30eko 6/2009 Errege Lege Dekretuak, energiaren sektorean zenbait neurri hartzeko eta bonu soziala onartzekoak, tarifa elektrikoaren defizitaren urteko hazkundeari muga jartzeko beheranzko mugak ezarri zituen, harik eta 2013an ezabatu arte. Horretarako, elektrizitatearen sektorearen azaroaren 27ko 54/1997 Legearen hogeita batgarren xedapen gehigarria aldatu zen. Hala, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, sarbide-bidesariak jarduera arautu guztien kostuak asetzeko nahikoak izango zirela ezarri zen.

Arauk, halaber, pilatutako defizita finantzatzeko mekanismo bat sortu zuen: kobrantza-eskubideak Elektrizitate Sistemaren Defizitaren Titulazio Funtza izenekoari lagatzea, eta hirugarrenei ematea, mekanismo lehiakor baten bidez.

Dena den, errege lege-dekretu hau onartu zenetik gertatu diren zenbait egoera direla-eta, *ex ante* defizitaren urteko gehieneko mugak ez dira nahikoak izan. Hainbat faktoreren ondorioz, tartean, eskaeraren beherakada nabarmenaren, hobariak dituzten iturri berriztagarrietatik sortutako elektrizitatearen gorakadaren eta nazioarteko egoera ekonomikoa dela-eta merkatuko prezioen murrizketaren ondorioz, xurgatzeko zailak ziren aldi baterako bat ez etortzeak areagotu ziren, sarbide-bidesari gehiago ezartzearen bidez estali behar baitziren –horrek eragina izango zuen epe motzera familien eta enpresen egoera ekonomiko konplexuan–.

Hori dela-eta, arazoa konpontzeko presazko neurri berriak hartu ziren, bai apirilaren 9ko 6/2010 Errege Lege Dekretuan, susperraldi ekonomikoa eta enplegua sustatzeko neurri buruzkoan, bai abenduaren 23ko 14/2010 Errege Lege Dekretuan, elektrizitatearen sektorearen tarifa-defizita zuzentzeko presazko neurri buruzkoan. Hori horrela, aipatutako abenduaren 23ko 14/2010 Errege Lege Dekretuak apirilaren 30eko 6/2009 Errege Lege Dekretuan 2010erako, 2011rako eta 2012rako ezarritako defizitaren gehieneko mugak igo ziren, 2013tik aurrera elektrizitate-sistemaren defizita ezabatuzko helburuari eutsita. Gainera, unean uneko beste neurri batzuk hartu ziren, kontsumitzaileak babesteko eta sistemaren kostuen eta diru-sarreraren partida zehatzak murrizteko.

Sarbide-bidesariei egotz dakizkiekeen kostuak murrizteko neurriak ezarri ziren, esaterako, hauxe: erregimen arrunteko enpresa ekoizleek finantzatzea 2005eko uztailaren 8an Ministroen Kontseiluak onartutako 2008-2012 aldiko ekintza plana, 2004-2012 aldiko aurrezki eta energia eraginkortasuneko estrategia-dokumentuaren neurriak zehazten dituen. Halaber, instalazio fotovoltaikoen funtzionamendu-ordu baliokideak, hobariak dituztenak, mugatu ziren, teknologia horrek sortuko lukeenaren aurreikuspenean izandako desbideratzeak zuzentzeko. Gaininstalazioak eragin zituen, batez ere, desbideratzeok, erregimen ekonomikorako eskubidea ematen duen administrazio-kontrolaz kanpo. 2011ko Estatuko aurrekontu orokorren abenduaren 22ko 39/2010 Legean, orobat, 2010erako eta 2011rako aurreikusitako defizitei aurre egiteko Estatuaren abala emateko ezarritako zenbatekoa handitu zen, gehienez ere 22.000 milioi eurora.

Diru-sarrerren aldetik, energia-ekoizleak sortze-bidesaria ordaintzera behartu ziren, jarduera horrek garraio- eta banaketa-sareen garapenean duen eraginagatik.

Aurreko errege lege-dekretuetan aurreikusitako neurriak eta beste batzuk hartzeak arazoa erdizka baino ez du konpondu, eta etorkizuneko kontsumitzaileei egokituko zaizkie behin betiko konponketa eta elektrizitate-sistemaren defizitaren ondorioak, iraganeko bat ez etortze ekonomikoei aurre egin beharko baitiete.

Tarifa-defizita sistemaren diru-sarrerren eta kostuen arteko aldi baterako bat ez etortze iragankorren ondorio zen lehen; orain, aldiz, egitura-arazo bilakatu da. Ezinbestekoa da arazook konpontzea, sistemaren iraunkortasun ekonomikorako eta horniduraren segurtasunerako arriskutsuak baitira.

Arazoa berehala konpondu behar da, Espainiako ekonomia historia modernoko unerik txarrenak igarotzen ari bada eta errege lege-dekretu honen bidez hartuko diren neurriek sistemako eragile eta subjektuengan eragin nabarmena badute ere. Gobernuak elektrizitate-sistemaren diru-sarrerren eta kostuen arteko bat ez etortzeak behin betiko ezabatzeke beharrezko neurriak hartuko ditu, bai eta sistemari oreka- eta nahikotasun-egoera bueltatu ere, hark izan behar baitzuen lehentasuna, hasieratik, herrialdearen ekonomiarentzat hain garrantzitsua eta konplexua den sektore baten –kasu honetan elektrikoa– antolamenduan. Tartean dauden alderdi guztien, hots, kontsumitzaileen, elektrizitatearen sektorean diharduten enpresen eta administrazio publikoen ekarpenari eta ahaleginari esker baino ezingo da helburua lortu.

Energia elektrikoa gure gizarteak funtzionatzeko eta, zehazki, jarduera ekonomikoa garatzeko funtsezko elementua da. Alabaina, merkatuan negoziatutako energiaren prezioak Europako ekonomien batez bestekoaren inguruan badaude ere, kontsumitzaileek ordaintzen duten prezioan sistemaren kostuak finantzatzeko balio duten bidesariak sartzen dira. Hortaz, gure inguruko herrialdeen mailak gainditzen dira.

Ezin zaizkio kontsumitzaileari oso-osorik egokitu azken urteetako sistemaren kostuen igoerak, eta ondorioz, eredia berrikusi behar da, jasandako kostu mailak murriztuta, eraginkortasunik ezak gutxitu ahal izateko.

Azken urteetan eman diren bidesari elektrikoen aginduek kostuen garestitzea aintzatestea ekarri dute, eta eusteko neurriak hartu beharrean, arazoaren konponketa atzeratu eta bidesarien prezioak igotzen ziren –gerora ikusi da ez direla nahikoa izan–. Enpresa elektrikoek ez diete ondo iritzi aginduoi, eta arauetara jo dute sistematikoki elektrizitatearen sektorearen azaroaren 27ko 54/1997 Legean aurreikusitako tarifa-nahikotasun printzipioaren urraketa argudiatuta.

Hori horrela, presaz hartu behar dira zenbait neurri 2012an zehar, elektrizitate-sistemaren kostuen partidak arrazionalizatzeko eta sarbide-bidesariak jarduera arautuen kostuak asetzeko nahikoak izateko, kontuan izanik elektrizitatearen sektorearen azaroaren 27ko 54/1997 Legearen hogeita batgarren xedapen gehigarrian urte honetarako aurreikusitako *ex ante* defizitaren muga.

Errege lege-dekretu honetan, hortaz, aparteko neurri sorta bat hartu da, 2012an defizitaren muga errespetatzea lortzeko eta 2013ko urtarrilaren 1ean tarifa-nahikotasunera heltzeko.

Haatik, arau honetan aurreikusitako neurriak hartzeaz gain, sarbide-bidesariak berrikusi beharko dira, errege lege-dekretu honetako sistemaren kostuetako eragina osatzeko adina diru-sarrerara lortzeko, eta ondorioz, 2012ko bat ez etortzeak ezabatzea lortzeko. Hartara, Auzitegi Gorenak emandako ebazpen judizialak beteko dira. Ahalegina, bada, elektrizitate-sistemako eragile eta subjektuen artean banatuko da.

Arau honen alternatiba nagusia hura ez onartzea izango litzateke, eta horren ordez, sareetara sartzeko bidesarien goranzko berrikuspena egitea, 2012an ekitaldi honetako

bat ez etortze guztiak estaltzeko –errege lege-dekretu honetan aurreikusitako neurriekin estaltzen direnak barne–. Kasu horretan, kontsumitzaileak izango lirateke desorekak ezabatzearen erantzule bakarrak.

Alabaina, aukera horrek oso eragin larria izango luke azkeneko kontsumitzailearengan, bai etxekoengan, bai ETE edo industriengan; izan ere, berehala kaltetuko litzateke beren lehiakortasuna, eta ondorio larriak izango litzuzke bizi dugun krisi egoera orokortuan.

## IX

Hidrokarburoei buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legeak gas naturalaren merkatuaren funtzionamenduaren oinarriak ezarri zituen, eta liberalizazioa hartu zuen aintzat zerbitzua eraginkorragoa eta kalitate handiagokoa izatea lortzeko, lehiakortasuna areagotzeko eta horniduraren segurtasun eta iraunkortasuna bermatzeko.

Gas-sistema garatzeko eredia nahitaez egin behar diren zenbait azpiegitura aurreikusten dituen plangintza energetikoan oinarritu da. Urriaren 7ko 34/1998 Legeak, uztailaren 2ko 12/2007 Legeak emandako idazpenean, gas-plangintza argibide modura emango da, oinarritzko garraio-sareko gasbideei, bigarren mailako garraio-sareari, sistema hornitzeko beharrezkoa den gas natural likidotua birgasifikatzeko ahalmena zehazteari eta gas naturala biltegitratzeko oinarritzko instalazioei dagokienez izan ezik.

Legeak zera lortu nahi zuen: gas naturalaren sektorearen barruko hornikuntza- eta merkaturatze-jarduera liberalizatzea, eta aldiz, garraio- eta banaketa-jarduerak araututa jarraitzea; are gehiago, garraioaren kasuan, plangintza lotesle baten mende jartzea.

Egiaztatu denez, eredu hori eraginkorra da merkatuaren hazkunde-faseetan, baina ez da eraginkorra, berriz, eskariaren gutxitze- edo egonkortze-faseetan sortutako arazoak konpontzeko. Egoera aldaketen aurrean (2008az geroztik bizi duguna, esaterako) bere burua zuzentzeko ereduaren malgutasunik eza da eragozpen nagusia.

2005era arte, era esponentzian hazi zen eskaera arrunta Espainian, merkatuan produktu berri bat sartzen denean gertatu ohi den bezala; azken urteotan, ordea, gas naturalaren kontsumoak nabarmen egin du behera. Elektrizitatea sortzera bideratutako gas naturala izan da, zehazki esanda, eskaera txikitzea jasan duena, mix elektrikoan energia berriztagarriak sartu direla-eta. 2012rako aurreikusitako kontsumo mailak 2005eko antzekoak dira, eta kalkuluen arabera, zenbait urte igaroko dira 2008ko eskaera-zifrara iritsi arte.

Gasaren sektorean, defizit-arazoa ez bada ere elektrizitatearen sektorekoa bezain larria, kostuen eta diru-sarrereren arteko bat ez etortzeak araututako diru-sarrereren % 10 gainditu du 2011n, eta ez badira beharrezko neurriak berehala hartzen, gero eta alde handiagoa egongo da, eskaera murriztu eta plangintzan aurreikusitako azpiegitura ugari eraiki eta ordainsari-sisteman sartuko direlako.

## X

Elektrizitatearen sektorearen azaroaren 27ko 54/1997 Legeak zehazten duenez, energia elektrikoaren banaketa jarduera arautua da, eta Gobernuak arautuko du horren erregimen ekonomikoa.

Elektrizitatearen sektorearen azaroaren 27ko 54/1997 Legea atera ondoren, abenduaren 23ko 2819/1998 Errege Dekretuak, energia elektrikoaren garraiatzeko eta banatzeko jarduerak arautzen dituenak, garatu zuen banaketa-jarduerari dagokion araudia, eta ondoren, otsailaren 15eko 222/2008 Errege Dekretuak, energia elektrikoaren banatzeko jardueraren ordainsari-erregimena ezartzeak.

Azken errege-dekretu horrek ordainsari-metodologia berri bat zehazten bazuen ere –kontabilitate arautzaile batean eta erreferentziako sare-eredu batean oinarritzen zen–, epe arautzailearen hasieran hartu zen ordainsari maila ez zetorren bat horretan jasotako formula aplikatuta ateratakoarekin; aitzitik, beren sareetara 100.000 bezero baino gehiago konektatuta zituzten enpresentzat eta FEVASA eta SOLANAR sozietateentzat aurreko metodologiatik ateratako zenbatekoak hartu ziren kontuan, aipatutako errege-dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriarekin bat. 2009-2012 epe arautzailean zehar, ez da kontuan hartu balioespen horretan sartutako aktiboak amortizatzen joan direla; hortaz, egun, sistema dagoeneko amortizatutako zenbait aktibo ordaintzen ari da amortizazioagatiko ordainsari gisa, eta ordainsari finantzario gisa, berriz, aktibo gordin guztiengatik –eta ez aktibo garbiagatik, zeinaren kostua erreuperatzeke baitagoen–.



Energiaren Batzorde Nazionalak Espainiako energiaren sektoreari buruz 2012ko martxoaren 9an egin zuen txostenean adierazten denez, beren sareetara 100.000 bezero baino gehiago konektatuta dituzten enpresa banatzaileen eta FEVASA eta SOLANAR sozietateen 2008az geroztik amortizatuta zeuden aktiboei dagozkien ordainsarietan sartuta zeuden zenbatekoak egokitu zitzaizkien. Banaketa-jardueraren 2012ko ordainsaria behin-behinekoa denez, abenduaren 30eko IET/3586/2011 Aginduaren (2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako sarbide-bidesariak eta erregimen bereziko instalazioen tarifak eta hobariak zehazten ditu) 2. artikularekin bat, zenbateko horren ordainketa gutxitzeari egoki deritzogu.

Beren sareetara 100.000 bezero baino gutxiago konektatuta dituzten enpresen kasuan, berriz, honela zehaztu zen ordainsaria: batetik, banatzaileei saltzeko tarifen erositako energiaren eta bere garaiari aplikatzekoak ziren tarifetan salduko energiaren arteko aldearen balioa, eta, bestetik, aitorzen zuten instalazioen analisiaren balioa konparatuz ateratzen zen zenbatekoetan handiena hartzen zen, funtsean. Beraz, energia elektrikoa banatzen duten zenbait enpresari hornidura-jarduerak –gaur egun ez dute enpresa banatzaileek egiten– sortzen duen marjinaren arabera ordaintzen ari gaitzaizkio. Beste batzuei, berriz, instalazioen analisiaren arabera. Horiei dagokienez, epe arautzailean zehar egin diren eguneraketetan ez da kendu dagoeneko amortizatu diren edo epe horretan transmititu edo itxi diren aktiboen balioa. Kasu bietan, ordainsaria kalkulatzeko marjinaren metodoa edo aktiboen balioespenarena erabili bada, ohartuko gara ordainsarietan ez direla kontuan hartu dagoeneko amortizatu diren aktiboak. Hortaz, egokia da ordainsaria murriztea, zehazki, beren sareetara 100.000 bezero baino gehiago konektatuta dituzten enpresen antzeko ehunekoan, ordainsari hori behin-behinekoa baita, abenduaren 30eko IET/3586/2011 Aginduekin bat.

Bestalde, zerbitzuan jarritako aktibo berriei dagokien ordainsaria ebaluatzeko garaiari informazio ikuskatua edukitze aldera, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera jaso beharreko ordainsariaren eraginetarako, n urtean zerbitzuan jarritako banaketa-instalazioek sortutako ordainsari-sortzapena n+2 urteko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko da.

Horren guztiaren ondorioz, banaketa-jardueraren ordainsaria berrikusiko da, salbuespen gisa eta zehaztutako denbora-tarterako irismenarekin, eta aldi berean, banaketa-jardueraren ordainsaria zehazteko prozedura aldatuko da, ordainsaria zerbitzuan jarritako aktibo ez-amortizatuei lotzeko, justifikatu gabeko ordainsari-poltsak kentzeko eta n urtean jarduerak izandako ordainsari-hazkundera n-2 urtean zerbitzuan jarritako aktiboei lotzeko. Neurri horrek 2012an jaso beharreko ordainsarian ondorioak izango ditu; hortaz, 2011n zehar zerbitzuan jarritako instalazioei dagokien ordainsaria 2013ko urtarrilaren 1etik hasiko da jasotzen.

Halaber, egoki deritzogu energia elektrikoa banatzen duten enpresek jasotzen duten ordainsaria gutxitzeari, merkataritza-kudeaketari dagokionez, enpresa merkaturatzaileek betetzen baitituzte kontzeptu horrengatik ordaintzen diren funtzio gehienak.

Banaketa-jardueran bezalaxe, eta zerbitzuan jarritako aktibo berriei dagokien ordainsariaren ebaluazioa egiterako garaiari informazio ikuskatua edukitze aldera, n+2 urteko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko da zerbitzuan jarritako garraio-instalazioek sortutako ordainsari-sortzapena, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera jaso beharreko ordainsarian ondorioak izanik. Neurri horrek 2012an jaso beharreko ordainsarian ondorioak izango ditu; hortaz, 2011n zehar zerbitzuan jarritako instalazioei dagokien ordainsaria 2013ko urtarrilaren 1etik hasiko da jasotzen.

Hortaz, garraio-jardueraren ordainsaria berrikusiko da salbuespen gisa, eta, aldi berean, jarduera horren ordainsaria zehazteko prozedura errotik aldatuko da, ordainsaria zerbitzuan jarritako aktibo ez-amortizatuei lotzeko, justifikatu gabeko ordainsari-poltsak kentzeko eta n+2 urtean jarduerak izandako ordainsari-hazkundera n urtean zerbitzuan jarritako aktiboei lotzeko.

Abenduaren 19ko 1747/2003 Errege Dekretuak, uharteetako eta penintsulaz kanpoko elektrizitate-sistemak arautzen dituenak, elektrizitatearen sektorearen abenduaren 27ko 54/1997 Legearen printzipioak penintsulaz kanpoko eta uharteetako berezitasunetara egokitu zituen, energia elektrikoaren hornidura eta horren kalitatea bermatzeko, eta ahalik eta merkeen eta berezitasun gutxienekin egiteko.

Sortze-jardueraren ordainsariak egokiak eta lurralde horietan energia elektrikoa hornitzeko jardueren jarraitutasuna bermatzeko nahikoak izan behar dute, energia eraginkortasuna ere hobetzeko.

Martxoaren 30eko ITC/913/2006 Aginduak, erabilitako erregai bakoitzaren kostua kalkulatzeko metodoa eta uharteetako eta penintsulaz kanpoko elektrizitate-sistemetan energia saltzeko eta likidatzeko prozedura onartzen dituenak, eta martxoaren 30eko ITC/914/2006 Aginduak, uharteetako eta penintsulaz kanpoko elektrizitate-sistemen erregimen arrunteko sortze-instalazioetarako potentzia-bermearen ordainsaria kalkulatzeko metodoa ezartzen duenak, uharteetako eta penintsulaz kanpoko elektrizitate-sistemen sortze-zentraletako kostu finko eta aldakorren ordainsari-eredua ezartzen dute, abenduaren 19ko 1747/2003 Errege Dekretuan ezarritako eredua garatuta.

Energiaren Batzorde Nazionalak Espainiako energiaren sektoreari buruz 2012ko martxoaren 9an egindako txostenean ikus daitekeen bezala, penintsulaz kanpoko eta uharteetako konpentsazioak nabarmen egin du gora 2003az geroztik. Txostenean, halaber, aurreko paragrafoan aipatutako aginduak (martxoaren 30eko ITC/913/2006 eta martxoaren 30eko ITC/914/2006) –premiaz instrumentalizatzea proposatzen da– berrikusteko zenbait neurri proposatzen dira.

Uharteetako eta penintsulaz kanpoko elektrizitate-sistemetako sortze-jardueren kostu estraren bilakaera dela-eta, beharrezkoa da sistemon ordainsari-eredua berrikustea, bai epe motzera, bai luzera.

Orobat, fuel-olioan oinarritutako ohiko ekoizpen termikoak gasolioan oinarritutakoaren alde egin du azken ekitaldietan, uharteetako eta penintsulaz kanpoko elektrizitate-sistemetan. Gasolioan oinarritutakoak gutxiago kutsatzen duela egia bada ere, aski garestiagoa da, isuriekin lotutako erkidegoko edo tokiko ingurumen-murrizketak indartzeak salmentari eragiten baitio. Ondorioz, Energiaren Batzorde Nazionalak Espainiako energiaren sektoreari buruz 2012ko martxoaren 9an egindako txostenean jasotako proposamena aintzat hartuta, Industria, Energia eta Turismoko ministroa gaitzen da sistema horietako zentraletan arrazoi teknikoak direla-eta justifikatzen ez diren gainkostuak, sarbide-bidesarien kargura har daitezkeenak, mugatzeko.

Bestalde, abenduaren 19ko 1747/2003 Errege Dekretuak eta hura garatzeko aginduek potentzia-bermeagatik ordainsaria mugatzen dute; hots, sistema bakoitzean dagoen potentzia totalak ezin ditu ezarritako gehieneko potentzia-muga beharrezkoak gainditu. Hori dela-eta, teknikoki eta ekonomikoki eraginkorrakoak diren zentral berriek ezin dute potentzia-bermeagatik ordainsaririk jaso, baldin eta ez badituzte aparteko neurriak hartzen. Errege lege-dekretu honen bidez, dagoeneko amortizatu diren zentralen potentzia ordezkatzeko duten zentral eraginkorrakoak instalatzea sustatzeko mekanismoak ezartzen dira.

Energiaren Batzorde Nazionala hidrokarburoen sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legearen hamabigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera finantzatzen da. Kontuan izanik, batetik, errege lege-dekretu honetan jasotako neurriak hartzen diren testuingurua, eta, bestetik, sektoreko eragile guztiek konponbidea aurkitzen laguntzeko beharra, aipatutako batzordearen finantzaketa doitzeko beharrezko mekanismoak barnean hartu dira arau honetan. Hori horrela, elektrizitatearen eta gasaren sektoreei dagozkien tasak murriztu dira, Energiaren Batzorde Nazionalak dagozkion funtzioak aurrera eramateko jarduerak kaltetu gabe, aipatu batzordeak Espainiako energiaren sektoreari buruz 2012ko martxoaren 9an egindako txostenarekin bat, eta erakundearen burujabetasun ekonomikoari eutsita.

Ekitaldi bakoitzerako arrazoizko diru-sarrerara proportzionatuak soberakin bat eratzen joan dira, eta soberakin hori aurreko ekitaldietako emaitza gisa finkatzen joan da; aipatu erakundeak argitaratutako balantzearen funts propioetako partidan ageri da. Hori dela-eta, egoki deritzogu kopuru horiek elektrizitatearen eta gas-sistemen diru-sarrerara likidagarritzat jotzeari.

Halaber, beste xedapen batzuk ere barnean hartu dira arau honetan. Horien helburua honako hau da: Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuak, Aurrezki eta Energia Eraginkortasuneko Estrategiaren 2005-2007 aldiko Ekintza-plana finantzatzeko irailaren 30eko 1156/2005 Errege Dekretuaren eta abenduaren 29ko 1634/2006 Errege Dekretuaren, eta 2008-2012 aldiko Ekintza-plana finantzatzeko abenduaren 28ko ITC/3860/2007 Aginduaren eta abenduaren 26ko ITC/3801/2008 Aginduaren ondorioz, elektrizitatearen tarifaren kargura sartu diren eta 2012ko ekainaren 30ean horiei lotutako jarduerari aplikatu ez zaizkien zenbatekoak sisteman sartzea.

Era berean, bestelako xedapenak ere sartu dira, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuak, 2008-2012 aldiko Ekintza-plana finantzatzeko abenduaren 28ko ITC/3863/2007 Aginduaren, abenduaren 26ko ITC/3802/2008 Aginduaren, abenduaren

28ko ITC/3520/2009 Aginduaren eta abenduaren 28ko ITC 3354/2010 Aginduaren ondorioz, gas naturalaren tarifaren kargura sartu diren eta 2012ko ekainaren 30ean horiei lotutako jardueri aplikatu ez zaizkien zenbatekoak gas-sisteman sartzeko.

## XI

Bada elektrizitate-sistemaren kostuak murrizten laguntzen duen bestelako neurririk; esaterako, sistemaren operadorea elektrizitatearen sektorearen kostu iraunkorren kargura finantzatzeari uztea, eta kostuok sarbide-bidesarien bitartez estaltzea. Hala, aurreikusten denez, sistemaren operadorea gobernuak finkatuko duen metodologiaren arabera finantzatuko da, ematen dituen zerbitzuak zeintzuk diren. Horrez gain, egoera berrira egokitzeko trantsizio-epe bat aurreikusten da, harik eta arau-garapen egokiak egiten diren arte.

Orain arte administrazioak arautzen bazuen ere sistemaren operadorearen ordainsaria, egoki deritzogu sarbide-bidesarien bidezko finantzaketa zerbitzuak ematen dituzten subjektuen esku jartzeari, merkatuaren eragilearen kasuan bezalaxe, azaroaren 27ko 54/1997 Legearen erreforma, uztailaren 4ko 17/2007 Legean aurreikusitakoa, indarrean jarri zenetik eragile kopurua eta operadoreak bere gain hartu beharreko funtzioak areagotu direlako. Finantzaketa berri horri esker, horniduraren segurtasuna bermatuko da, kosturik txikienarekin.

2011ko otsailaren 26an hornidura-bermeagatiko murrizketak ebazteko mekanismoa abian jarri zen, hornidura-bermeagatiko murrizketak ebazteko mekanismoa ezarri eta energia elektrikoaren ekoizpen-merkatua antolatzen eta arautzen duen abenduaren 26ko 2019/1997 Errege Dekretua aldatzen duen otsailaren 12ko 134/2010 Errege Dekretuan aurreikusitakoarekin bat. Prozedura horri jarraiki, merkatuaren eta ahalmenaren arabera ordainketen bitartez, ikatza kontsumitu behar duten zentral elektrikoek ikatza erosteagatik izandako kostuak aintzatesten dituen ordainsari arautu bat jasotzen dute, bai eta zentralak izandako gainerako kostu aldakor eta finkoen arabera bitartez ere. Mekanismo horri helduta, sistemaren operadoreak programatuko ditu eguneroko merkatuan uztartzen ez diren zentralak, hornidura-bermeagatiko murrizketen prozesuan.

Mekanismo hori aldi baterako gainkostu zuzena da ahalmenaren arabera ordainketan bidez finantzatzen laguntzen duen kontsumitzailearentzat.

Merkatuaren funtzionamenduaren eraginkortasunari eusteko, hornidura-bermeagatiko murrizketen prozedurari eutsi behar zaio. Hori kontuan izanik, aurreikuspenen arabera erreko den ikatz nazionalaren bolumena berrikusten bada, prozedura aplikatzearen kostua murriztuko da elektrizitate-kontsumitzailearentzat. Horregatik, errege lege-dekretu honetan 2012an erreko den bolumena mugatzea aurreikusten da salbuespen gisa, hornidura-bermeagatiko murrizketen mekanismoa aplikatzeko.

Azaroaren 17ko ITC/3127/2011 Aginduak ahalmenaren arabera ordainketen potentzia-erabilgarritasunaren zerbitzua arautu eta inbertsiorako pizgarria, 2007ko urriaren 1etik aurrerako elektrizitatearen tarifak berrikusteko irailaren 27ko ITC/2794/2007 Aginduaren III. eranskinak aipatzen duena, aldatzen du. Energia elektrikoaren eskaria txikia da gaur egun, eta ahalmen instalatua defizita izateko arrisku txikia dago, eskura dagoen informazioaren arabera. Hortaz, horren ildotik, beharrezkoa da ahalmenaren arabera ordainketen potentzia-erabilgarritasunaren zerbitzuei eta ingurumen inbertsiorako pizgarriari, hain zuzen ere, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrerako elektrizitatearen tarifak berrikusteko abenduaren 28ko ITC/3860/2007 Aginduaren bigarren xedapen gehigarriak aipatzen duenari, lotutako ordainsariak berrikustea.

Egoera hori kontuan izanik, epe luzeko ahalmen-inbertsiorako pizgarriaren ordainsaria aplikagarri zaien –irailaren 27ko ITC/2794/2007 Aginduaren III. eranskinen ezarritakoarekin bat– sortze-instalazioetarako zenbatekoa murriztuko da salbuespen gisa 2012rako, baita 2008ko urtarrilaren 1etik aurrerako elektrizitatearen tarifak berrikusteko abenduaren 28ko ITC/3860/2007 Aginduaren bigarren xedapen gehigarriak aipatzen duen ingurumen-inbertsiorako pizgarriaren zenbatekoa ere.

Ahalmenaren arabera ordainketetarako adierazitakoaren ildotik, ahalmen instalatuaren egungo defizit-arrisku txikia kontuan izan behar da, etengarritasun-eskaera kudeatzeko zerbitzua aplikatzeko, energia ekoizpen-merkatuan eskuratzen duten kontsumitzaileentzako etengarritasun-eskaera kudeatzeko zerbitzua arautzen duen uztailaren 26ko ITC/2370/2007 Aginduak arautu legez. Izan ere, etengarritasun-zerbitzua sistema malgutzen duen eta larrialdi-egoeretan erantzun azkar eta eraginkorrak ematea

ahalbidetzen duen tresna da, eta sistemaren segurtasunak izan dezakeen eragina murrizten du.

Hala ere, egungo eskaera txikiko egoeran, zerbitzu hori bidesari-aginduetan xedatutakora murriztuko da. Agindu horietan zehazten denez, etengarritasun-eskaera kudeatzeko zerbitzuaren funtzionamendua egiaztatzearen, sistemaren operadoreak sistema hori aplikatuko du urtero zoriz sistemak eskaera handiena izango duen urteko orduen % 1ean.

Egoera horrek etengarritasun-eskaera kudeatzeko zerbitzua ordaintzeko aurreikusitako kostuen berrikuspena justifikatzen du, bai eta hori beharrezko bihurtu ere, gaur egun zer-nola erabiltzen den kontuan hartuta.

Azkenik, 2012ko lehenengo hiruhilekoari aplikagarri zaion azken errekurtsoko tarifaren prezioen indarraldia luzatuko da. Preziook Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiak 2011ko abenduaren 30ean emandako Ebazpenean, energia elektrikoa ekoizteko prezioa eta 2011ko abenduaren 23tik 31ra eta 2012ko lehenengo hiruhilekoan aplikagarri diren azken errekurtsoko tarifak zehaztekoan, jasotzen dira. Ebazpena aipatutako zuzendaritza nagusiaren 2012ko otsailaren 2ko ebazpenaren bidez zuzendu da.

Hala eta guztiz ere, energia elektrikoaren sareetara sartzeko bidesariak berrikustea aurreikusten denez, Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusia gaitzen da 2011ko abenduaren 30eko Ebazpenean jasotako azken errekurtsoko prezioak berrikusteko, eta dagozkion sarbide-bidesarien prezioak sartuko dira, 2012ko apirilaren 1etik aurrerako ondorioekin eta batukortasuna bermatuta, azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 18. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Gas naturalari dagokionez, jakina da oinarrizko biltegitratze-jarduera jarduera arautua dela, eta hortaz, azken errekurtsoko tarifen, bidesarien, zehazten diren kanonen eta ordaindutako prezioen kargura ordainduko dela, hidrokarburoen sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legearekin eta hirugarrenak gas-instalazioetara sartzeara arautzeko eta gas naturalaren sektorearen sistema ekonomiko integratua zehazteko abuztuaren 3ko 949/2001 Errege Dekretuarekin bat.

Abenduaren 29ko ITC/3995/2006 Aginduak, oinarrizko sarean sartuta dauden gas naturalaren lurpeko biltegitratzeen ordainketa zehazten duenak, mota horretako azpiegiturarako ordainketa-mekanismo espezifikoa bat sartu zuen lehen aldiz. Bestalde, abuztuaren 3ko 949/2001 Errege Dekretuaren 15. artikulua zehazten duenez, ordainsariak eguneratzeko sistemak lau urteko epetarako finkatuko dira, eta indarraldiko azken urtean berrikusi egingo dira, eta hala badagokio, hurrengo eperako aurreikusitako egoerara egokitu.

Azaroaren 17ko ITC/3128/2011 Aginduak, hirugarrenen gas-instalazioetarako sarbidearen inguruko zenbait alderdi eta araututako jardueren ordainsariak arautzen dituenak, eguneratu zituen partez jada ordainketa horren zenbait parametro. Dena den, berrikuspena egiten jarraitu behar da lurpeko biltegitratzeen ordainketa-sistema egituratzeko. Sistema hori ez da oztopo izango, erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan, sustatzaileek beren inbertsioak berreskuratzeke bermearentzat eta arrazoizko errentagarritasun iraunkorraren printzipioari egokituko zaio, gas-sistemaren behar berriekiko koherentziari utsita.

Horren harira, 2012an lurpeko biltegitratze berriak abian jartzea aurreikusten da. Instalazio horiek oso garestiak dira, eta abenduaren 29ko ITC/3995/2006 Aginduan zehaztutako ordainsari-erregimenarekin bat, abian jartzen den urteaz geroztik sortutako urtesariak erregimen ekonomikoan behin betiko sartzan diren urtean ordaindu beharko lirarteke. Hartara, ezingo genuke gure gain hartu hurrengo ekitalditan sistemaren bidesarien eta kanonen gaineko eragin puntuala, bereziki egungo eskaeraren bilakaera-aurreikuspenekin.

Hori dela-eta, egoki deritzogu, bada, 2012az geroztik abian jarriko diren lurpeko biltegitratzeen ordainsari-erregimena egokitzeari, eta hala eskatu zuten instalazioei aldi baterako ordainketa etetea, bai eta urte berean sortutako urtesari bat baino gehiago jaso ezin izatea zehazteari ere.

Halaber, egitura geologikoek lurpeko biltegitratze gisa bikain funtzionatzen dutela ziurtatzeko, abian jartzeko akta bi fasetan ematea ezarri da. Hartara, arloetako zuzendaritzek edo, horiek ezean, industria eta energiako arloetako bulegoek abian jartzeko behin-behineko akta egingo dute lehenik eta behin, koltxoi-gasa bete ahal izateko, eta horren bitartez, biltegiak behar bezala funtzionatzen duela frogatzeko.

Ondoren, instalazioak parametro nominalei jarraiki funtzionatzen duela frogatu ondoren, abian jartzeko behin betiko akta egin ahal izango da. Proiektuaren titularrei inbertsioaren arrazoizko errentagarritasuna bermatze aldera, behin-behineko ordainketa egin ahal izango da kontuan, behin-behineko akta eraginkor bihurtu eta biharamunetik hasita.

Azkenik, gas-sistemaren instalazioetara sartzeko bidesari eta kanonak berrikusiko direnez, Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiak, 2011ko abenduaren 30ean, ebazpen bidez onartutako gas naturalaren azken errekurtsoko tarifaren indarraldia luzatuko da. Gainera, aipatutako arloko zuzendaritza nagusia gaitu da azken errekurtsoko tarifa berrikusteko, sistemara sartzeko bidesari eta kanonetan eta lehengaiaren kostuan egiten diren eguneraketak sartuta.

Neurriok gas-sistemaren iraunkortasuna bermatzera bideratuta daude, eta tarifa-defizita sortzea eta herritarrek zein enpresek jasan behar dituzten kargak asko ez igotzea saihestea dute helburu.

2008-2016 aldiko elektrizitatearen eta gasaren sektoreen plangintza-dokumentuko estimazioen arabera, elektrizitatearen eskaera % 3,2 igoko litzateke batez beste urtean egoera nagusian, eta, % 2,4, berriz, eraginkortasunari dagokionez. Gas naturalaren eskaera, aldiz, % 5,0 igoko litzateke kudeatzaile teknikoari dagokionez, eta % 3 eraginkortasunari dagokionez. Plangintza-dokumentuko aurreikuspenen arabera, gainera, barne-produktu gordina % 3 haziko litzateke urtean denbora-tarte horretan, eta 1.000 milioi euro inbertituko lirateke urtean bi sektoreetako bakoitzean. Nolanahi ere, 2008-2011 aldian, % 3,8 murriztu da elektrizitatearen eskaera erreala, eta % 16,3 gas naturalarena. Eskaeraren jaitzierak bultzatuta, 2010eko azaroaren 8an energia elektrikoak eta gas naturala garraiatzeko sareen aparteko instalazioen eta jardueren urteko programa onartzen duen ITC/2906/2010 Agindua onartu behar izan zen. Agindu horretan, plangintzan jasotako zenbait gas-instalazio eraikitzea atzeratzeko beharra berriz aztertu zen. Aipatutako azaroaren 8ko ITC/2906/2010 Aginduan «R» kategoria sortu zen eta bertara pasatu ziren eskaeraren bilakaerak justifikatu ez, baina, 2012-2020 aldiko plangintzari begira berriz aztertzeak diren azpiegiturak, plangintzan jasotakoak, alegia.

2011ko gasaren eskaera 2010ekoa baino % 7 txikiagoa izan da, eta elektrizitatearena, berriz, % 2,1 txikiagoa. 2012ko eskaerak aurreko urteko maileri eusten die, kalkuluaren arabera. Zifra horiek ikusita, 2008-2016 aldiko elektrizitatearen eta gasaren sektoreen plangintza-dokumentuan «R» kategoria eman zaien instalazioak berriz aztertu beharra dago, batez ere 2012-2020 aldiko plangintza berriari begira.

Segurtasun-baldintzetan sistemaren funtzionamendua bermatzeko ezinbesteko azpiegitura elektrikoak baino ez dira eraikiko, hurrengo urteetarako aurreikusitako eskaera-egoera eta estatu mugakideetako elektrizitate-sistemekin dauden barne-konexioak aintzat hartuta.

Gasari dagokionez, gas-interkonektioak eraikitzeak sortutako nazioarteko konpromiso lotesleei eutsiko zaie, eta gas kontsumitzaile berriei erantzungo zaie, baldin eta ez badio kostu gehigarriak ekartzen sistemari.

Neurri horrek ez du eragin negatiborik izango horniduraren segurtasunean, elektrizitatearen eta gas-sistemen egungo egoera positiboa baita. Gas-azpiegituren erabilera-ratioak % 40an daude, eta % 60an, berriz, 2014ra arte. Gainera, hornikuntzak eta sistemara sartzeko puntuak oso dibertsifikatuta daude.

Gas-sistemaren kasuan, finantza-orekaz gain, sistemaren oreka teknikoa arriskuan ez jartzeko neurriak hartzea beharrezkoa da. Nazioarteko konektioak eta eskaeraren geldialdia direla-eta, gas-ekarpen gehiago egin denez, ontziek askoz gutxiago deskargatzen dute birgasifikazio-instalazioetan. Instalazio horiek gutxieneko gas-izakinak eta gutxieneko ekoizpena izan behar dute, edo beste era batera esanda: gutxieneko birlikidotze-fluxua, instalazioa zerbitzuz kanpo gelditu ez dadin beharrezkoa dena. Nahikoa ontzi iristen ez direlako gutxieneko kopuru horretara ez bada iristen, instalazioa gelditu egin daiteke, izakinak agortu direla-eta. Ondorioz, sarearen amarauna galduko litzateke partez, eta ezingo da beste instalazio batzuen erabilezintasunaren aurrean erantzun; hortaz, baliteke sistemaren hornidura-segurtasuna arriskuan jartzea.

Birgasifikazio-instalazio gehiago sartuko direnez sisteman berehala, eta gasbide bakoitzak gas gehiago emango duenez, arazoa areagotu egingo da. Beraz, ez du zentzurik birgasifikazio-instalazio gehiago abian jartzeak, eta administrazioaren baimena, gauzatze-proiektuaren baimena edo instalazio horiek abian jartzeko akta, atzeratu egingo dira penintsulan, eskaerak justifikatzen duen arte. Hori ez zaie aurretik zeuden birgasifikazio-instalazioen zabaltzei aplikatuko.

Neurri horiek urgentziaz hartu behar dira. Une honetan, instalazio asko dago izapidetzeke, eta neurriok arau-bide arrunten bidez izapidetuko balira, neurria hartzea atzeratuko litzatekeenez, eskaeraren uneko mailak eta datozen urteetarako aurreikuspenak kontuan hartuta beharrezkoak ez diren instalazioak sartuko liriteke sisteman.

Energiaren Batzorde Nazionalak zera proposatzen du Espainiako energiaren sektoreari buruz martxoaren 9an egindako txostenean: urteko programa bat egitea berehala, eta hori onartzen denean, beste plangintza bat egitea egoera errealistago batean, eraiki beharreko azpiegiturak egoera makroekonomiko probableenera, sortzearen bilakaera aurreikusira eta elektrizitatearen sektorearen eta ekonomia nazionalaren egoera ekonomikora egokituta. Errege lege-dekretu honetan proposatutako neurriek gas eta elektrizitatearen sektoreen plangintza berria egitera bultzatzen dute; izan ere, plangintza berri bat egiten ari bazen ere, sakon berrikusi behar dira izapide-fasean den proposamena eta indarrean den plangintza, eskaeraren jaitsiera, sortzean egindako inbertsio berriak eta gobernua onartutako egoera makroekonomikoaren berrikuspenak jasotzen duen narriadura ekonomikoa direla-eta.

Horren arabera, Konstituzioaren 86. artikuluko baimenaz baliatuta, Industria, Energia eta Turismo ministroak hala proposatuta eta Ministro Kontseiluak 2012ko martxoaren 30ean eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

## I. TITULUA

### Energiaren arloko zuzentarauen transposizioari buruzko aldaketak

#### 1. artikulua. *Elektrizitatearen sektoreari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legea aldatzea.*

Elektrizitatearen sektoreari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legea aldatu egin da. Honela egongo da idatzita:

Bat. Hemendik aurrera, idazketa hau izango du 3. artikulua 5. paragrafoak:

«5. Lehiaren defentsarako organoei esleitutako eskumenei kalterik egin gabe, Energiaren Batzorde Nazionalari dagozkio, elektrizitatearen sektoreari dagokionez, indarrean den legeriak esleitutako funtzioez gain, hidrokarburoen sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legearen hamaikagarren xedapen gehigarriaren hirugarren paragrafoan zehaztutako funtzioak.»

Bi. Aldatu egin dira 9. artikulua a) eta g) lerroak. Aurrerantzean, honela egongo dira idatzita:

«a) Energia elektrikoaren ekoizleek, hots, energia elektrikoa sortzeko funtzioa duten pertsona fisiko zein juridikoek, dela beraiek kontsumitzeko, dela hirugarrenek kontsumitzeko, baita ekoizpen-zentralak eraikitzeko, ustiatzeko eta mantentzeko funtzioa dutenek ere.

Artikulu honen g) lerrokadan aipatzen diren hornidura-modalitate bereziko kontsumitzaileak ezingo dira ekoizle izan, inola ere.

(...)

g) Kontsumitzaileek; alegia, energia beraiek kontsumitzeko erosten duten pertsona fisiko edo juridikoek.

Kontsumitzaile jakin batzuentzako hornidura-modalitate bereziak ezarri ahal izango dira erregelamendu bidez –kokapen berean kontsumitzera bideratutako energia elektrikoaren banakako ekoizpena sustatzeko–, horietatik eratortzen diren eskubide eta betebeharren erregimena zehaztuta.

Energia ekoizpen-merkatuan zuzenean eskuratzen duten kontsumitzaileei Merkatuko Kontsumitzaile Zuzen esango zaie.»

Hiru. Aldatu egin da 10.1 artikulua 2. paragrafoa. Honela geratu da idatzita:

«Zehazten diren kontsumitzaileek energia elektrikoaren hornidurarako eskubidea izango dute, Industria, Energia eta Turismoko ministroaren aginduz finkatutako eta berrikusitako prezioetan, Ekonomia Gaietarako Gobernuako Batzorde Delegatuak aurrez adostu ondoren. Horiek azken errekurtsoko tarifatzat joko dira.»

Lau. 14. artikulua 2. paragrafoaren a) eta b) lerroekadak honela geratuko dira idatzita, eta e) lerrokada berria sartu da:

«a) Jarduera arautuak egiten dituzten sozietateetako kudeaketa-arduradunek ezingo dute enpresa-taldearen antolamendu-egituratan parte hartu, baldin eta horiek ekoizpen- eta merkaturatze-jarduerak edo energia birkargatzeko zerbitzuak kudeatzen badituzte, dela zuzenean, dela zeharka. Gainera, lege honen 35.2 artikulua 2. lerroekadan garraiolari bakarrari eta garraio-jarduera egiteko eskusibotasunari buruz zehaztutakoa gorabehera, banaketa-sarearen administratzaileak ezingo du garraio-jardueren eguneroko kudeaketan parte hartu.

(...)

d) Sozietateek, baldin eta jarduera arautuak egiten badituzte, jokabide-kode bat ezarriko dute, zeinetan azalduko baitituzten aurreko a), b) eta c) lerroekadetan xedatutakoa betetzeko hartutako neurriak.

Jokabide-kodeak langileen betebeharrak espezifikoki zehaztuko ditu, eta sozietateak izendatutako pertsona edo organo eskudunak behar bezala betetzen direla gainbegiratu eta ebaluatuko du. Ebaluazioaz arduratuko dena guztiz burujabea izango da, eta bere lana egiteko behar duen sozietatearen eta horren filialen informazio guztia izango du eskura.

Urtero, txosten bat aurkeztuko die Industria, Energia eta Turismo Ministerioari eta Energiaren Batzorde Nazionalari, aurreko a), b) eta c) lerroekadetan xedatutakoa betetzeko hartutako neurrien berri emateko. Txostena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

e) Jardueren banaketa, eta zehazki, funtzioen banaketa. Horretarako, behartutako enpresek lege honen 14.2.d artikuluan aurreikusitako jokabide-kodea igorriko diete Industria, Energia eta Turismo Ministerioari eta Energiaren Batzorde Nazionalari urte bakoitzeko martxoaren 31a baino lehen, aurreko ekitaldiari dagokionez.»

Bost. 14. artikulua 3. eta 4. paragrafoak 4. eta 5. paragrafo izatera pasatu dira, eta 3. paragrafoa sartu da:

«3. Enpresa banatzaileek, baldin eta lege honetan aurreikusitako terminoen arabera, jarduera aratu eta libreak egiten dituen sozietate-talde baten parte badira, ez dute informazio nahasgarririk emango edo beren markaren edo marka-irudiaren aurkezpen nahasgarririk egingo, merkaturatze-jarduerak egiten dituzten talde bereko filialen nortasunarekin nahas ez daitezen, gai honi buruz indarrean den araudian aurreikusitako arau-hausteei kalterik egin gabe.»

Sei. Aldatu egin da 34. artikulua 1. paragrafoa. Honela geratuko da idatzita:

«1. Honako hau izango da sistemaren operadorearen funtzio nagusia: elektrizitate-horniduraren jarraitutasuna eta segurtasuna bermatzea eta ekoizpen- eta garraio-sistema behar bezala koordinatzea. Energia elektrikoaren merkatu iberiarreko operadore eta subjektuekin batera arituko da, gardentasun-, objektibotasun- eta independentzia-printzipioei men eginez. Sistemaren operadorea garraio-sarearen kudeatzailea izango da.

Sistemaren operadorea, aurreko lerroekadak aipatzen duena, merkataritza-sozietatea izango da, eta bere sozietate-araubidea honako baldintzetara egokituko da:

a) Ezein pertsona juridikok edo fisikok ez du honetarako eskubiderik izango:

1. Sortze- edo merkaturatze-funtzioak egiten dituen enpresa baten gainean kontrola izateko, ez zuzenean, ez zeharka, eta aldi berean, sistemaren operadorean gainean kontrola izateko, ez zuzenean, ez zeharka.

2. Sistemaren operadore baten gaineko kontrolik izateko, ez zuzenean, ez zeharka, eta aldi berean, sortze- edo merkaturatze-funtzioak egiten dituen enpresa baten gaineko kontrola izateko, ez zuzenean, ez zeharka.

b) Ezein pertsona juridikok edo fisikok ezingo du sistemaren operadorearen administrazio-organoko kiderik izendatu, baldin eta sortze- edo merkaturatze-jarduerak egiten dituen enpresa bat kontrolatzen badu edo horren gaineko eskubideak baditu, dela zuzenean, dela zeharka.

c) Pertsona fisikoek zein juridikoek ezingo dute aldi berean administrazio-organoko kide izan sortze- edo merkaturatze-jarduerak egiten dituen enpresa batean eta sistemaren operadorean.

d) Aurreko a) eta b) lerroketan adierazitako eskubideen artean sartzen dira, zehazki:

1. Boto-eskubidea izatea administrazio-organoen edo sozietateetako gobernuetan.

2. Administrazio-organoko edo enpresa ordezkatzeko organoetako kideak izendatzeko ahalmena.

3. Gehiengo akzio-partaidetzak izatea, Merkataritzako Kodearen 42.1 artikuluan zehaztutakoarekin bat.

1.a) paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, «sortze- edo merkaturatze-jarduerak egiten dituen enpresa» kontzeptuaren barruan bilduko dira gas naturalaren sektorean ekoizpen- eta merkaturatze-jarduerak egiten dituztenak.»

Zazpi. Bi artikuluko gehitu dira, 34 bis eta 34 ter.

«34 bis artikulua. *Garraio-sarearen kudeatzailea izendatzea eta ziurtatzea.*

1. Sistemaren operadore aritzen den merkataritza-sozietatea onartu eta izendatuko du Industria, Energia eta Turismo ministroak garraio-sarearen kudeatzaile. Izendatu baino lehen, Energiaren Batzorde Nazionalak, artikuluko honetan bertan adierazitako prozedurari jarraiki, lege honen 34.2 artikuluan zehaztutako baldintzak betetzen dituela egiaztatu eta ziurtagiria emango dio.

Garraio-sarearen kudeatzailea izendatu eta baimendu ondoren, Energiaren Batzorde Nazionalak sozietateak 34.2 artikuluan zehaztutako baldintzak betetzen jarraitzen duela kontrolatuko du, horretarako ezarritako egiaztapen-prozeduraren bidez. Baldintzak betetzen ote dituen jakiteko egiaztapenak nolakoak diren, garraio-sarearen beste kudeatzaile bat izendatu eta baimenduko da.

Garraio-sarearen kudeatzailearen izendapenon berri emango zaio Europako Batzordeari, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitara dezan».

2. Energiaren Batzorde Nazionalak egiaztapen-prozesuari ekingo dio, enpresa interesdunak eskatu edo jakinarazi ondoren, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak edo Europako Batzordeak eskatu ostean, edo berak galdegin eta gero, baldin eta jarduera-banaketari buruz zehaztutako betekizunak ez betetzea eragingo duten edo eragin duten transakzioez jakitun badira.

3. Energiaren Batzorde Nazionalak, entzunaldia egin ondoren eta modu arrazoituan, egiaztapenari buruzko behin-behineko ebazpena egingo du, eskaera edo jakinarazpena aurkeztu eta gehienez ere lau hilabeteko epean. Epe horretan berriazko ebazpenik egiten ez badu, ulertuko da behin-behineko egiaztapena eman duela.

4. Energiaren Batzorde Nazionalak enpresa interesdunaren egiaztapenari buruzko behin-behineko ebazpenaren berri emango dio Europako Batzordeari, eta ebazpenari buruzko dokumentazioa ere jarriko du bere esku, kasu guztietan. Hartara, Europako Batzordeak dagokion irizpena emango du, behin betiko ebazpena egin baino lehen. Horrez gain, espedientearen kopia igorriko dio Industria, Energia eta Turismo Ministerioari.

Europako Batzordeak ez badu irizpenik ematen Erkidegoko legedian aurreikusitako epean, ulertuko da ez diola objekziorik jartzen Energiaren Batzorde Nazionalaren behin-behineko ebazpenari.

5. Europako Batzordeak emandako irizpena jaso eta bi hilabeteko epean, edo horretarako Erkidegoko legedian aurreikusitako epeak agortu ondoren, Energiaren



Batzorde Nazionalak egiaztapenari buruzko behin betiko ebazpena egingo du, Europako Batzordearen erabakia betez. Ebazpena eta Europako Batzordearen irizpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira, baita Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean ere. Egiaztapenak ez du ondorioz izango argitaratzen den arte.

6. Energiaren Batzorde Nazionalak eta Europako Batzordeak artikulua honetan adierazitako funtzioak betetzeko edonolako informazio erabilgarria eska diezaiakete garraio-sarearen kudeatzaileei eta sortze- edo merkaturatze-jarduerak egiten dituzten enpresei. Aurrekoari kalterik egin gabe, ez dute isilpekoa den merkataritzako informaziorik argituko.

34. ter artikulua. Europar Batasunekoak ez diren herrialdeen egiaztapena.

1. Garraio-sarearen kudeatzailea hirugarren herrialde baten edo gehiagoren kontrolpean gelditzen bada, Energiaren Batzorde Nazionalak horren berri emango dio Europako Batzordeari. Horretarako, garraio-sarearen kudeatzaileak gertakari hori sorraraz dezaketen gorabeheren berri emango dio Energiaren Batzorde Nazionalari.

2. Energiaren Batzorde Nazionalak egiaztapen-prozesuari ekingo dio, 34. bis artikuluan aurreikusitako prozedura eta epeekin bat. Honako hauek frogatzen ez badira, ukatu egingo du egiaztapena:

a) Erakundeak 34. artikuluan adierazitako betekizunak betetzen dituela.

b) Egiaztapena emateak hornidura nazionala eta Europar Batasuneko arriskuan jartzen ez duela, kontuan izanik Espainiak eta Europar Batasunak aipatutako hirugarren herrialdearekiko dituzten eskubideak eta betebeharrak, kasuari berezko zaizkion bestelako datu eta inguruabarrak, eta hirugarren herrialdea zein den.

Energiaren Batzorde Nazionalak, Europako Batzordeari ebazpen-proposamena jakinarazten dionean, irizpen espezifiko bat eskatuko du jakiteko, batetik, jarduerabanaketaren eskakizuna betetzen ote duen, eta, bestetik, egiaztapena emateak Europar Batasuneko hornidura-segurtasuna arriskuan jartzen ote duen.

3. Europako Batzordeak irizpenaren izapidea bideratu ondoren, aplikagarri den Erkidegoko legedian zehaztutako prozedura eta epeekin bat, Energiaren Batzorde Nazionalak egiaztapenari buruzko ebazpena emango du, Batzordearen irizpena aintzat hartuta.

Azken erabakia eta Europako Batzordearen irizpena ez badatoz bat, horren arrazoiak azalduko dira.»

Zortzi. 41. artikulua 1. paragrafoari p) lerrokada erantsi zaio; honako hau dio:

«p) Erregelamendu bidez zehaztutako epeak betetzea, hornitzaile-aldaketei lotutako jardueretan.»

Bederatzi. 44. artikulua 5. eta 6. paragrafoak 6. eta 7. paragrafo izatera pasatu dira, eta 4. eta 5. paragrafoak honela idatzita gelditu dira:

«4. Honako hauek joko dira kontsumitzaile ahultzat: zehaztutako ezaugarri sozialak, kontsumokoak eta erosahalmenekoak betetzen dituzten elektrizitate-kontsumitzaileak. Edonola ere, ohiko etxebizitzetan dauden pertsona fisikoetara mugatuko da.

Kontsumitzaile ahulak behar bezala babesteko neurri egokiak hartuko dira.

Gobernuak zehaztuko du erregelamendu bidez kontsumitzaile ahulen definizioa, horiek bete behar dituzten betekizunak eta kolektibo horrentzako hartu beharreko neurriak.

5. Administrazio eskudunek kontsumitzaileak babesteko neurriak hartuko dituzte erregelamendu bidez. Neurriok merkaturatzaileen kontsumo-ezaugarriak edo hornidura-baldintzak direla-eta kontratu-tratamendu berezia behar duten kontsumitzaileekin egiten dituzten hornidura-kontratuen baldintzetan jaso beharko dira.

Halaber, hornidurak kontratatze mekanismoak eta horniduren fakturazio-baldintzak zehaztuko dira erregelamendu bidez, hornitzailea aldatzeko prozedura

–hiru asteko epean egingo dira– eta erreklamazioak ebaztekoa barne. Araugarapen horietan, administrazio eskudunek, Energiaren Batzorde Nazionalarekin batera, harremanetarako puntu bakarra ezartzea hausnartuko da, hidrokarburoen sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legearen hamaikagarren xedapenean zehaztutakoaren arabera, kontsumitzaileei eskubide, indarrean den araudi eta auziak konpontzeko prozeduren berri emateko.

Halaber, merkaturatzaileak ez baditu Lege honen 45.1 artikulua a), b) eta h) lerrokadetan zehaztutako betekizunak betetzen, edo ez baditu elektrizitate-sistemaren ordainketak zehaztutako epeetan egiten, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak merkaturatzaile horren bezeroak azken errekurtsoko merkaturatzaile bati pasatzea erabakiko du, entzunaldia egin ondoren eta modu arrazoitu, objektibo eta gardenean. Bezeroak hartuko dituen azken errekurtsoko merkaturatzailea eta bezero horien hornidura-baldintzak ere zehaztuko ditu.

Horrek guztiak ez du esan nahi lege honen VI. tituluan ezarritakoari jarraiki sor daitezkeen zehapenak ezarriko ez direnik.»

Hamar. 45. artikulua 1. paragrafoaren j) lerrokada k) lerrokada izatera pasatu da, eta j), l) eta m) lerrokadak gehitu dira, honela idatzita geldituko direnak:

«j) Elektrizitate-horniduraren eta elektrizitateari lotutako eratorrien kontratuen eta transakzioei –handizkako bezeroekin eta garraio-sareen kudeatzaileekin egindakoak, erregelamendu bidez zehaztutakoarekin bat, alegia– buruzko datuak Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren, Energiaren Batzorde Nazionalaren, Lehiaren Batzorde Nazionalaren eta Europako Batzordearen esku izatea gutxienez bost urtez, dagozkien zereginak egin ditzaten.

Lerrokada honetan xedatutakoak ez die betekizun gehigarri sortuko Balioen Merkatuaren uztailaren 28ko 24/1988 Legearen aplikazio-eremuan sartzen diren erakundeei, aurreko lerrokadan aipatutako organismoek dagokienez.

Azpiatal honetako lehenengo lerrokadan aipatutako organismoek Balioen Merkatuaren uztailaren 28ko 24/1988 Legearen aplikazio-eremuan sartzen diren erakundeek gordetzen dituzten datuak eskuratu behar badituzte, Balioen Merkatuaren Batzorde Nazionalak emango dizkie beharrezko datuak.

k) Bezeroei hornitutako energiaren jatorriaren berri ematea, baita energia-iturrien ingurumen-eraginaren eta horietan erabilitako proportzioaren berri ere.

l) Bezeroei auziak konpontzeko eskura dituzten bideak erabiltzeko eskubideari buruz informatzea.

Azken kontsumitzaileak hornitze aldera, kontratatutako edo eskaintako zerbitzuari buruzko edonolako kexari, erreklamaziori, informazio-eskaerari edo jakinarazpeni erantzuteko zerbitzua izan behar dute, eta posta-helbide bat, doako telefono bidezko arreta-zerbitzu bat eta doako telefono-zenbaki bat eskaini behar dizkiete kontsumitzaileei, baita fax-zenbaki bat edo helbide elektronikoa ere. Emailak beren legezko helbidea jakinaraziko dute posta-helbide arruntarekin bat ez badator.

m) Erregelamendu bidez zehaztutako epeak betetzea, hornitzaile-aldaketei lotutako jardueretan.»

Hamaika. Honako hau da 46. artikulua 1. testu berria:

«46. artikulua. *Eskaera kudeatzea.*

1. Enpresa elektrikoek, kontsumitzaileek eta sistemaren operadoreak, beste eragile batzuekin batera, neurriak egin eta aplikatu ahal izango dituzte, baldin eta neurriok elektrizitate-eskaeraren kudeaketa hobetzeko, karga-kurba optimizatzeke, eta/edo energia eraginkorrago bihurtzeko edo aurrezteko badira.

2. Aurrekoa gorabehera, administrazioak erabiltzaileentzako zerbitzua hobetzen, eta energia eraginkorrago bihurtzen eta aurrezten laguntzen duten neurriak hartu ahal izango ditu, hala zuzenean, nola elektrizitatea aurrezteko edo ahalik eta eraginkortasun handienaz erabiltzeko helburua duten eragile ekonomikoen bitartez.

Neurrietan aurreikusitako helburuak betetzen badira, praktikan jartzeko kostuak aintzatetsiko dira. Horiek dibertsifikazioko eta hornidura-segurtasuneko kostuak

izango dira. Aintzatespen horren ondorioetarako, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak onartu beharko ditu neurriok, autonomia-erkidegoek beren lurralde-esparruan txostena egin eta gero.

Neurrion artean sartuko dira etengarritasun-zerbitzua emateko kontratuak, sistemaren operadoreak kudeatzen dituenak.»

Hamabi. Hau da 60.a) artikuluaen 4. lerrokadaren testu berria:

«4. Administrazioak baimendu ez dituen bidesariak, prezioak edo tarifak aplikatzea.»

Hamahiru. Hau da 60.a) artikuluaen 8. lerrokadaren testu berria:

«8. Administrazio eskudunak (Energiaren Batzorde Nazionala barne) edo sistemaren operadoreak beren funtzioen esparruan egindako ebazpen juridikoki lotesleak edo errekerimenduak ez betetzea, sistemaren funtzionamendua larri kalte badaiteke.»

Hamalau. Hau da 61.a) artikuluaen 4. lerrokadaren testu berria:

«4. Administrazio eskudunak (Energiaren Batzorde Nazionala barne) edo sistemaren operadoreak beren funtzioen esparruan egindako ebazpen juridikoki lotesleak edo errekerimenduak ez betetzea, sistemaren funtzionamendua larri kalte badaiteke.»

Hamabost. 61.a) artikuluar 22. eta 23. lerrokadak erantsi zaizkio, eta honela diote:

«22. Europar Batasunaren araudietan jasotako xedapenak, hain zuzen ere elektrizitatea herrialde mugakideei saldu eta erosteko sarera sartzeko baldintzei buruzkoak, ez betetzea.

23. Elektrizitatea banatzen eta merkaturatzen duten enpresek kontsumitzaileentzako arreta-zerbitzua mantentzeko eta horrek behar bezala funtzionatzeko betebeharrak ez betetzea, baita kontsumitzaileak babesteko neurriak ez betetzea ere, lege honetan eta hura garatzeko araudian zehaztutakoarekin bat.»

Hamasei. 66. artikuluar 3. paragrafoa erantsiko zaio, eta honela dio:

«3. Energiaren Batzorde Nazionalak, bere jarduera-eremuaren eta esleitu zaizkion funtzioen barruan, zehapen efektibo, proportzionatu eta eragozleak ezarri ahal izango dizkie enpresa elektrikoei, baldin eta lege honen 60.a) artikuluaen 1., 2., 5., 6. eta 7. lerrokadetan oso larritzat tipifikatutako arau-hausteak egiten badituzte, baita 60.a) artikuluaen 8., 9. eta 10. lerrokadetan tipifikatutakoak egiten badituzte ere, Energiaren Batzorde Nazionalak bere eskumenen esparruan egindako ebazpenak, juridikoki lotesleak direnak, edo errekerimenduak ez betetzeari dagokionez.

Halaber, aipatutako batzordeak aurreko lerrokan adierazitako arau-hauste larriak zehatuko ditu, egoera dela-eta, oso larritzat jo ezin direnean, eta zehazki, lege honen 61.a) artikuluaen 4. eta 5. lerrokadetan tipifikatutakoen kasuan, batzorde horrek bere eskumenen esparruan egindako ebazpenak, juridikoki lotesleak direnak, edo errekerimenduak ez betetzeari dagokionez.

Aipatutako batzordeak lege honen 62. artikuluan tipifikatutako arau-hauste arinak zehatuko ditu, batzorde horrek bere eskumenen esparruan egindako ebazpenak, juridikoki lotesleak direnak, edo errekerimenduak ez betetzeari dagokionez.

Nolanahi ere, zehapenaren zenbatekoak ezin du garraio-sarearen kudeatzailearen negozio-zifraren urteko zenbateko garbiaren % 10 gainditu, edo egitura bertikala duen taldeko sozietate nagusiaren negozio-zifra kontsolidatuaren urteko zenbateko garbiaren % 10.»

Hamazazpi. Aldatu egin da hogeita hirugarren xedapen gehigarria. Honela gelditu da idatzita:

«Hogeita hirugarren xedapen gehigarria. *Red Eléctrica Corporación, SAren sozietate filialak.*

1. Sistemaren operadoreari eta garraio-sarearen kudeatzaileari dagozkien funtzioak, 34. artikulua 2. paragrafoan definitutakoak, egiteko, Red Eléctrica de España, SAU enpresak organo-unitate espezifiko bat sortuko du bere egituraren barruan. Unitate horrek eskusibaz egingo ditu elektrizitate-sistemaren operadorearen eta garraio-sarearen kudeatzailearen funtzioak, behar bezala berezita kontabilitatea eta funtzioak, 14. artikuluan zehaztutako irizpideak betez.

Red Eléctrica Corporación, SA sozietatearen Administrazio Kontseiluak izendatu eta kanporatuko du aurreko lerrokadan aipatzen den organo-unitateko zuzendari exekutiboa, Industria, Energia eta Turismo ministroaren oniritziarekin.

Sistemaren operadore eta garraio-sarearen kudeatzaile diharduen unitateko langileek lege honen 14. artikuluan aipatutako jokabide-kodea izenpetuko dute, baita enpresa-taldeko gainerako unitatez kanpokoak direla bermatu ere.

2. Sozietate nagusiarik lege honen 34. artikulua 1. paragrafoan xedatutakoa aplikatuko zaio, eta honako muga hauek izango ditu:

a) Edozer pertsona fisiko edo juridiko eduki ahal izango ditu partaidetzak, baldin eta sozietate horren kapitaleko partaidetza zuzenak edo zeharkakoak ez badu kapital sozialaren % 5 gaitzen, edo ez badu % 3tik gorako eskubide politikorik. Ekintzak ez dute ondorioz izango.

b) Elektrizitatearen sektorean diharduten subjektuek eta aipatutako subjektuen kapitalean % 5etik gorako kuotarekin zuzenean nahiz zeharka parte hartzen duten pertsona fisiko zein juridikoek ezingo dute % 1etik gorako eskubide politikorik eduki sozietate nagusian, lege honen 34. artikulua 2. paragrafoan sortzaile eta merkaturatzaileentzat ezarritako mugei kalterik egin gabe.

Estatuko Industria Partaidetzarako Sozietateari dagokion partaidetzari ez zaizkio aurreko mugak aplikatuko, eta horrek Red Eléctrica Corporación, SA sozietate nagusian duen partaidetza ez da % 10etik beherakoa izango.

3. Energiaren Batzorde Nazionalak arau horretan ezarritako mugak betearazteko lege-ekintzak balia ditzake.

Akzio multzo horretako partaidetza zenbatze aldera, pertsona fisiko edo juridiko berari esleituko zaizkio, batetik, talde bereko –Balioen Merkatuaren uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 4. artikuluan definitu legez– erakundeek dituzten akzioak eta bestelako balioak edo horiek eskuratutakoak, eta, bestetik, beste titular batzuenak direnak. Hona hemen titularrok:

a) Itunduta edo erabaki-unitate bat osatuta, beren izenean baina horren kontura diharduten pertsonak. Administrazio organoko kideak pertsona juridiko baten kontura edo horrekin itunduta jarduten dutela ulertuko da, kontrakoa esaten ez den bitartean.

b) Kideak, zeintzuekin batera izango baitu kontrola erakunde menderatu baten gainean, Balioen Merkatuaren uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 4. artikuluan definitu legez.

Edozein kasutan ere, kontuan izango dira, batetik, akzioen jabari-titulartasuna eta gainerako balioak, eta, bestetik, edozer titulu dela-eta baliatu daitezkeen boto-eskubideak.

4. Xedapen honek aipatzen duen kapital-partaidetzaren muga ez betetzea arau-hauste oso larritzat joko da lege honen 60. artikuluan adierazitako ondorioetarako. Balioen titular diren pertsona fisiko zein juridikoak edo gehiegizko kapital-partaidetza edo gehiegizko boto-eskubide partaidetza egotz dakiekeenak izango dira erantzule, aurreko paragrafoetan xedatutakoa betez. Nolanahi ere, lege honetan aurreikusitako zehapen-arabidea aplikatuko da.

5. Red Eléctrica Corporación, SAk ezingo die jarduera arautuak egiten dituen filialen akziorik transmititu hirugarrenei.

6. Red Eléctrica Corporación, SAk ezingo du sistema operatzeaz, garraiatzeaz eta garraio-sarea kudeatzeaz bestelako jarduerarik egin filial arautuen bidez, beste jarduera batzuetan diharduten sozietateetan parte hartzea barne.

7. Red Eléctrica Corporación, SA sozietate nagusiaren kapitalean parte hartzen duten pertsonen akzio edo bestelako balioen eskubide politikoak, xedapen honetan adierazitako gehieneko mugak gainditzen dituztenak, eten egingo dira, errege lege-dekretu hau –zeinaren bidez elektrizitatearen eta gasaren barne-merkatuen arloko eta komunikazio elektronikoko arloko zenbait zuzentzauren transposizioa egiten baiten– indarrean jartzen denetik aurrera, harik eta muga horiek egokitu arte.»

Hemezortzi. Hogeita seigarren xedapen gehigarria erantsi da, eta honela dago idatzita:

«Hogeita seigarren xedapen gehigarria. *Energia berriztagarrien zuzentzarautik eratorritako konpromisoak betetzeko nazioarteko lankidetzeta-mekanismoak.*

1. Estatuko Administrazio Orokorrak iturri berriztagarrietatik datorren energia erabiltzea sustatzeko Erkidegoko legedian aurreikusitako lankidetzeta-mekanismoak abian jartzeko esparrua prestatuko du, zehazki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko apirilaren 23ko 2009/28/EE Zuzentzarauan, iturri berriztagarrietatik datorren energia erabiltzea sustatzekoan, 2001/77/EE eta 2003/30/EE Zuzentzarauak aldatu eta baliogabetzen dituenen. Honako hauek sartuko dira, gutxienez, nazioarteko lankidetzeta-mekanismoaren barruan:

- a) Iturri berriztagarrietatik datozen energia kantitate zehatzen estatistika-transferentziak estatu kideen artean.
- b) Proiektuak abian jartzea beste estatu kide batzuekin batera.
- c) Proiektuak abian jartzea hirugarren herrialdeekin batera.
- d) Beste estatu kide batzuetan ezarritako iturri berriztagarrietatik datorren energia babesteko sistemekin koordinatzea.

Mekanismo horiek aplikatzerakoan, elektrizitate-sistemaren segurtasuna bermatuko da uneoro, eta ez da ez murriztuko, ez galduko Espainian ekoiztako energia berriztagarriak.

2. Proiektu edo jarduera bereziak abian jarri ahal izateko, beharrezkoa da Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren onarpena; hots, Ministerioak energia garraiatzeko egiturak jasango duen eragina eta energia-plangintza osoa aintzat hartuko ditu.»

Hemeretzi. Hogeigarren eta hogeita batgarren xedapen iragankorrak gehitu dira, eta honela geratu dira idatzita:

«Hogeigarren xedapen iragankorra. *Kontsumitzaile ahulak.*

Lege honen 44. artikulua 4. paragrafoan zehaztutakoa garatu bitartean, kontsumitzailea ahultzat joko da energiaren sektoreko zenbait neurri hartzeko eta bono soziala onartzeko apirilaren 30eko 6/2009 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua eta bigarren xedapen iragankorraren aplikazio-eremuaren barruan badago, baita elektrizitatearen sektoreko tarifa-defizita zuzentzeko presazko neurriak ezartzen dituen abenduaren 23ko 14/2010 Errege Lege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriarenaren barruan badago ere.

Enpresa merkaturatzaileek telefono bidezko arreta-zerbitzu bat eta telefono zenbaki bat –biak doakoak– jarri behar dituzte kontsumitzaileen esku, kontratazioari eta hornidurari buruzko informazio-eskaerei erantzuteko.

Hogeita batgarren xedapen iragankorra. Garraio-sarearen kudeatzailea egiaztatzea.

Energiaren Batzorde Nazionalak garraio-sarearen kudeatzailea garraio-sarearen jabea dela, eta lege honen 34.2 artikuluan zehaztutako baldintzak betetzen dituela egiaztatu behar du, araudian aurreikusi moduan jardun dezan, 34 bis eta 34 ter artikuluetan zehaztutako prozedurari jarraiki.»

## 2. artikulua. *Hidrokarburoen sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legea aldatzea.*

Aldatu egin da hidrokarburoen sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legea. Honela egongo da idatzita:

Bat. Hemendik aurrera, idazketa hau izango du 3. artikulua 3. paragrafoak, eta 4. paragrafoa kendu egin da:

«3. Lehiaren defentsarako organoei esleitutako eskumenei kalterik egin gabe, Energiaren Batzorde Nazionalari dagozkie, indarrean den legeriak esleitutako funtzioez gain, lege honen hamaikagarren xedapen gehigarriaren 3. paragrafoan zehaztutako funtzioak.»

Bi. Hemendik aurrera, idazketa hau izango du 54. artikulua:

«54. artikulua. *Jardueren araubidea.*

1. Nahierara ekoizti, birgasifikatu, biltegitatu, garraiatu, banatu eta merkaturatu daitezke erregai gaseosoak, titulu honetan aurreikusitako baldintzetan, beste xedapen batzuetatik erator daitezkeen betebeharrei kalterik egin gabe; zehazki, zerga-xedapenetatik eta lurralde antolamenduari, ingurumenari eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesari buruzkoetatik.

Honako hauek dira erregai gaseosoak, titulu honen ondorioetarako:

a) Gas naturala, eta horren espezialitateak, alegia, gas natural likidotua eta gas natural konprimitua.

b) Gas erregai manufacturatu edo sintetikoak. Hona hemen horien banaketa:

1. Gas naturalaren, butano-gasaren edo propano-gasaren eta airearen arteko nahasketak.

2. Biogasa eta/edo biomasatik lortutako beste edozer gas.

3. Beste edozer gas erregai manufacturatu edo sintetiko mota, edo gas erregaiaren eta airearen arteko nahasketa.

Petrolio-gas likidotuei ez zaie titulu honetan xedatutakoa aplikatuko; izan ere, III. tituluaren xedatutakoari jarraituko diote.

2. Erregai gaseosoak Erkidegoko beste herrialde batzuei inportatzeko, esportatzeko eta trukatzeko, Erkidegoko araudian zehaztutako betekizunei men egingo zaie.

3. Biogasari eta biomasatik edo beste gas mota batzuetatik lortutako gasari ere aplikatuko zaizkie diskriminaziorik gabe lege honetan zehaztutako arauak, gas naturalari dagokionez, baldin eta teknikon posiblea eta segurua bada gasok gas naturalaren sarera sartzea, eta sarean barrena garraiatzea.

Horretarako, gas horien osaera-baldintzak zehaztuko dira. Hartara, pertsonen, instalazioen eta kontsumo-ekipamenduen segurtasuna bermatuko da, bai eta horiek behar bezala kontserbatzen direla ere.»

Hiru. Hemendik aurrera, idazketa hau izango du 56. artikulua 1. paragrafoak:

«1. Lege honetan zehaztutako ondorioetarako, erregai gaseoso manufacturatu edo sintetikoak ekoiztea (gas naturalaren, butano-gasaren edo propano-gasaren eta airearen arteko nahasketa barne) gas erregaien ekoizpentzat joko da, baldin eta horien xedea kanalizazio bidez kontsumitzaileak hornitzea bada.»

Lau. Hemendik aurrera, idazketa hau izango du 57. artikulua:

«57. artikulua. *Hornidura.*

1. Kontsumitzaileek gas naturala garraiatzeko eta banatzeko sareetara sartzeko eta konektatzeko eskubidea izango dute, Gobernuak, autonomia-erkidegoei kontsulta egin ondoren, erregelamendu bidez zehaztutako baldintzetan.

2. Zehazten diren kontsumitzaileek hornidurarako eskubidea izango dute, Industria, Energia eta Turismo ministroaren aginduz finkatutako eta berrikusitako prezioen arabera, Ekonomia Gaietarako Gobernu Batzorde Delegatuak aurrez adostu ondoren. Horiek azken errekurtsoko tarifatzat joko dira. Azken errekurtsoko tarifa azken errekurtsoko merkaturatzaileek tarifa hori izateko eskubidea duten kontsumitzaileei kobratuko dieten prezioa da.

3. Industria, Energia eta Turismoko ministroak hornidura-baldintza bereziak zehaztu ahal izango ditu zenbait kontsumitzailearentzat; hain zuzen ere, ezaugarri ekonomikoak, sozialak edo hornidurakoak direla-eta, bezero ahultzat jotzen direnentzat.

4. Administrazio eskudunek, Energiaren Batzorde Nazionalarekin batera, harremanetarako puntu bakarra ezarriko dute, kontsumitzaileei eskubide, indarrean den araudi eta auziak konpontzeko prozeduren berri emateko.»

Bost. Artikulu berri bat, 57 bis, erantsi da, idazkera honekin:

«57 bis artikulua. *Kontsumitzaileek hornidurarekin loturik dituzten eskubideak.*

Kontsumitzaileek honako eskubide hauek izango dituzte:

a) Gasa eskuratzea, lege honen IV. tituluaren II. kapituluaren zehaztutako terminoetan.

b) Gas naturala erosteko hornitzailea aukeratzea.

c) Hornidura neurtzeko ekipamenduek ondo funtzionatzen dutela egiaztatzeko eskatzea.

d) Telefono bidezko laguntza-zerbitzua izatea eguneko hogeita lau orduetan, beren instalazioetan segurtasun-gertakaririk dagoenean harengana jo ahal izateko. Zerbitzu hori beren instalazioak konektatuta dauden banatzaileak eman beharko du. Zerbitzu horren telefono-zenbakia behar bezala identifikatuta agertuko da fakturretan, eta, horrez gain, merkaturatzaileak kontsumitzaileari jakinarazi beharko dio.

e) Merkaturatzailearekin kontratu bat izatea eta bertan, honako hau zehaztea:

1. Hornitzailearen identitatea eta helbidea.

2. Emandako zerbitzuak, proposatutako kalitate maila eta hasierako konexiorako epea.

3. Eskaintzen den mantentze-zerbitzu mota.

4. Tarifa aplikagarri eta mantentze-gastu guztiei buruzko informazio eguneratua lortzeko modua.

5. Kontratuaren iraupena, zerbitzuak berritzeko eta bertan behera uzteko baldintzak, eta posible denean, kontratua kosturik gabe amaitzeko baldintzak.

6. Kontratututako kalitate mailak betetzen ez badira –fakturazio okerra edo atzeratua barne–, aplikagarri diren konpentsazio- eta errenbultso-akordioak.

7. Desadostasunak konpontzeko prozedura hasteko metodoa, j) lerrokadan xedatutakoarekin bat.

8. Kontsumitzaileen eskubideei buruzko informazioa, erreklamazioak eta e) lerrokadan aipatutako informazio guztia izapidetzeari buruzkoa barne, fakturen bidez edo gas naturalaren konpainien web-guneen bidez modu argian azalduta.

9. Baldintzak bidezkoak izango dira, eta aurrez emango dira ezagutzera. Edozein modutara ere, kontratua sinatu edo berretsi aurretik jakinarazi behar da informazioa. Kontratuak bitartekarien bidez sinatzen direnean, kontratua sinatu aurretik jakinaraziko da aurretik aipatutako informazioa.

f) Kontratuaren baldintzak aldatzeko asmoen berri izatea behar bezala, eta horren berri dutenean, kontratua amaitzeko eskubideei buruzko informazioa jasotzea. Merkaturatzaileek prezioak igo direla jakinaraziko diete bezeroei zuzenean, egoki den unean eta fakturazioaren ohiko epean, igoera indarrean jarri ondoren, modu garden eta ulergarrian. Bezeroek kontratua amaitu ahal izango dute kosturik gabe, baldin eta gas-merkaturatzaileak jakinarazitako baldintza berriak onartzen ez badituzte.

g) Gas-zerbitzuak erabiltzeko aplikagarri diren prezioei, tarifei eta baldintza orokorrei buruzko informazioa garden jasotzea.

h) Ordaintzeko modua libreki aukeratu ahal izatea, kontsumitzaileen arteko diskriminazio bidegaberik sor ez dadin. Aurrez ordaintzeko sistemak bidezkoak izango dira, eta kontsumo probablea behar bezala islatuko dute. Baldintzak aldatzen badira, ordaintze-sistema ezberdinek kontsumitzaileari zer-nolako kostuak eragingo dizkieten islatuko da. Baldintza orokorrak bidezkoak eta gardenak izango dira. Era argi eta ulergarrian azalduko dira, eta ez dute bezeroen eskubideak erabiltzeko kontratu-trabari (esaterako, gehiegizko kontratu-dokumentaziorik)

izango. Bezeroak gehiegizko salmenta-metodo zalantzarrien aurrean babestuko dira.

i) Hornitzailez aldatzea, kosturik gabe.

j) Erreklamazioak izapidetzeko prozedurak izatea. Hain zuzen ere, gas-zerbitzuaren hornitzaileak zerbitzu maila ona eskaini behar die kontsumitzaileei, baita erreklamazioak behar bezala izapidetu ere. Judizioz kanpoko konponbide horiek auziak zuzen eta azkar konpontzeko aukera emango dute, ahal bada, hiru hilabete baino lehen, eta errenboltso- eta/edo konpentsazio-sistema bat jasoko dute, justifikatuta dagoenean.

Aukera dagoenean, prozedurok Europako Batzordearen 1998ko martxoaren 30eko 98/257/EE Gomendioan, kontsumo-gaietako auziak judizioz kanpo konpontzeko organo arduradunei aplikatzeko printzipioei buruzkoan, xedatutakora doitu dira. Organo horietako bat Kontsumoko Arbitraje Sistema da.

k) Gas-sarera konektatutako bezeroentzat, kalitate jakin bateko gas naturala arrazoizko prezioekin hornitzeko eskubideei buruzko informazioa jasotzea, legedi nazional aplikagarriari jarraiki.

l) Kontsumo-datuak eskura izatea, eta neurketa-datuak edozer hornidura-enpresa erregistraturi jakinarazi ahal izatea, doako akordio esplizitu baten bitartez. Datuak kudeatzeaz arduratuko den aldeak datuok jakinarazi beharko dizkio enpresari, erregelamendu bidez garatutako formatu eta prozedurak erabilia. Ezingo zaio zerbitzu-kostu gehigarririk fakturatu kontsumitzaileari.

m) Benetako gas-kontsumoaren eta dagozkion kostuen berri izatea, erregelamendu bidez zehaztutako maiztasunarekin, beren gas-kontsumoa doitu ahal izan dezaten. Denbora nahikoarekin jakinaraziko da informazioa, bezeroaren neurketa-ekipamenduaren ahalmena kontuan izanik. Ezingo zaio zerbitzu-kostu gehigarririk fakturatu kontsumitzaileari.

n) Gas naturalaren hornitzailea aldatu ondoren, kontuaren likidazioa jasotzea, aldaketa egin eta gehienez ere sei asteko epean.

o) Hirugarrenen birgasifikazio-, biltegitratze-, garraio- eta banaketa-instalazioetara sartzeko, hidrokarburoen sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legean eta hura garatzeko araudian aurreikusitako terminoetan.»

Sei. Hau da 58. artikuluaen testu berria:

«58. artikulua. *Sistemaren barruan diharduten subjektuak.*

Honako hauek emango dute gas naturala kanalizazio bidez:

a) Garraiolariak gas natural likidotuaren birgasifikazio-instalazioak eraikitzeke, operatzeko eta mantentzeko eta gas naturala garraiatzeko eta biltegitratzeko baimena duten merkataritza-sozietateak dira.

Garraio-sarearen kudeatzaileak enbor-sareko instalazioak eraikitzeke, operatzeko eta mantentzeko baimena duten merkataritza-sozietateak dira. 63 bis artikuluan zehaztutako prozeduraren arabera egiaztatuta daude. Sare-kudeatzaile burujabeak ere garraio-sarearen kudeatzaile dira.

Sare-kudeatzaile burujabeak enbor-sareko instalazioak kudeatzen dituzten, baina horien jabe ez diren, merkataritza-sozietateak dira, eta eraikitzeke, operatzeko eta mantentzeko baimena dute, 63 *quater* artikuluan xedatutakoarekin bat.

b) Sistemaren kudeatzaile teknikoak oinarritzko sarea eta lege honetan zehaztutako bigarren mailako garraio-sareak operatu eta kudeatuko ditu, 64. artikuluan zehaztutako funtzioen arabera. Gainera, sistema behar bezala aritzeko baldintzei eutsiko die.

c) Banatzaileak gasa kontsumo-puntuetan kokatzera bideratutako banaketa-instalazioak eraikitzeke, operatzeko eta mantentzeko baimena duten merkataritza-sozietateak dira.

Banatzaileek bigarren mailako garraio-sareko instalazioak eraiki, mantendu eta operatu ahal izango dituzte baita ere, eta barne-kontabilitatean bi jarduerak bereizi beharko dituzte, 63. artikuluan xedatutakoarekin bat.

d) Merkaturatzaileak, titulu honetan zehaztutako terminoetan, hirugarrenen instalazioetatik gas naturala eskuratzen eta, ondoren, kontsumitzaileei edo beste



merkaturatzaile batzuei saltzen dieten, edo nazioarteko joan-etorriak egiteko erabiltzen duten merkataritza-sozietateak dira. Merkaturatzaileak dira, halaber, gas-sistemaren barruan beste merkaturatzaile batzuei, edo azken kontsumitzaileei gas natural likidotua (GNL) saltzen dieten merkataritza-sozietateak.

e) Azken kontsumitzaileak, gasa kontsumitzeko erosten dutenak, eta hornitzailea hautatzeko eskubidea dutenak. Merkatuko kontsumitzaile zuzenak hirugarrenen instalazioetara zuzenean sartzen direnak dira.

Azken kontsumitzaile izango dira, halaber, lege honetan aurreikusitako ondorioetarako, zerbitzuguneetan erregai gisa erabiltzeko gas naturala, biogasa edo gas manufakturatua hornitzen dituzten enpresak, baldin eta merkaturatzaile baten bidez hornitzen badira. Xede hori duten instalazioek erregelamendu bidez exijitutako baldintza teknikoak eta segurtasunekoak bete beharko dituzte.

f) Hornitzaileak Aldatzeko Bulegoak azken kontsumitzaileen hornitzaile-aldaketak gainbegiratu, eta, hala badagokio, kudeatuko dituzten merkataritza-sozietateak izango direnak.»

Zazpi. 59. artikulua honela geratuko da idatzita:

«59. artikulua. *Gas-sistema eta gas naturalaren oinarrizko sarea.*

1. Gas-sistemak honako instalazioak hartuko ditu barnean: oinarrizko sarean sartutakoak, bigarren mailako garraio-sareak, banaketa-sareak, oinarrizkoak ez diren biltegiak eta gainerako instalazio osagarriak.

2. Lege honetan zehaztutako ondorioetarako, honako hau da gas naturalaren oinarrizko sarearen osaera:

a) Goi-presioko gas naturalaren lehen mailako garraiorako gasbideak. Halakotzat joko dira 60 bareko edo gehiagoko gehieneko diseinu-presioa dutenak. Honela sailkatzen dira:

1. Enbor-sarea: Elkarri lotutako lehen mailako garraiorako gasbideak, sistemak funtzionatzeko eta hornidura segurtatzeko ezinbestekoak direnak, batik bat gas naturala tokian hornitzeko erabiltzen diren lehen mailako garraiorako gasbideen zatia izan ezik. Nolanahi ere, bertan biltzen dira Espainiako gas-sistemaren eta beste sistema batzuen arteko nazioarteko konexioak, barnean gas naturaleko hobiak edo oinarrizko biltegiak dituzten konexioak, eta birgasifikazio-instalazioekin, konpresio-guneekin eta funtzionatzeko beharrezko elementu osagarriekin dauden konexioak.

2. Tokiko eragin-sarea: Batik bat gas naturala tokian hornitzeko erabilitako garraio-gasbideak.

b) Gas natural likidotua birgasifikatzeko instalazioak, gas-sistema eta gas naturala likidotzeko instalazioak horni ditzaketenak.

c) Gas naturalaren oinarrizko biltegiak, gas-sistema horni dezaketenak.

3. 60 eta 16 bar arteko gehieneko diseinu-presioa duten gasbideek osatzen dituzte bigarren mailako garraio-sareak.

4. Banaketa-sareak 16 bareko edo gehiagoko gehieneko diseinu-presioa duten gasbideak hartuko dituzte, baita gasa oinarrizko sareko edo bigarren mailako garraioko gasbide batetik kontsumitzaile bakar bati eramaten diotenak ere, gehieneko diseinu-presioa dena delakoa izanda ere.

5. Oinarrizkoak ez diren gas naturaleko biltegiak gas naturala lurpean biltegiatzeko egiturak eta gas naturaleko lurpeko biltegiak ustiatzeko behin-behinean edo behin betiko behar diren lurrazaleko instalazioak –biltegiak eta gas naturalaren oinarrizko sarea konektatzeko gasbideak barne– dira. Instalaziook gas naturalaren ordainsari-sistematik at egongo dira.»

Zortzi. Hemendik aurrera, idazketa hau izango du 62. artikulua 1. paragrafoaren 2. lerroak:

«Lege honen 60.1 artikulua araberako jarduerak egiten dituzten sozietateek jardura bakoitzeko kontu bereziak izango dituzte kontabilitatean, eta jardura bakoitzari egotz dakizkiokeen diru-sarrerak eta gastuak bereziko

dituzte. Gainera, sare-kudeatzaile burujabeek kudeatzen duten enpresa bakoitzerako kontu bereziak izango dituzte kontabilitatean, eta kudeaketa horri egotz dakizkiokeen diru-sarrera eta gastuak bereziko dituzte.»

Bederatzi. Hemendik aurrera, idazketa hau izango du 62. artikulua 4. paragrafoaren 1. lerrokadak:

«4. Gas-sisteman diharduten erakundeek eskatzen zaien informazioa eman beharko diote administrazio eskudunari, zehazki, sinatu dituzten zuzkidura- eta hornidura-kontratuei buruzkoa eta urteko kontuei buruzkoa. Urteko kontuak ikuskatu egingo dira, Kontu Ikuskaritzaren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 1eko 1/2011 Legegintzako Errege Dekretuan eta hura garatzeko xedapenetan xedatutakorekin bat. Ikuskaritzan, jarduera arautuen arteko, eta horien eta jarduera liberalizatuen arteko diskriminazioak eta diru-laguntza gurutzatuak saihesteko betebeharrak errespetatzen direla egiaztatuko da.»

Hamar. 63. artikulua honela idatzita geratuko da:

«63. artikulua. *Jarduerak bereiztea.*

1. Merkataritza-sozietateek, baldin eta lege honen 60.1 artikuluan aipatzen diren birgasifikazio-, oinarritzko biltegitze-, garraio- eta banaketa-jarduera arautu bat/batzuk egiten badute/badituzte, jarduerok egin ditzakete bakar-bakarrik; alegia, ezin dute ez ekoizpen- edo merkaturatze-jarduerarik egin, ez jarduerok egiten dituzten enpresatan partaidetzarik izan.

2. Garraiolariak, baldin eta gas naturalaren oinarritzko sarean sartutako eta 59. artikulua 2. paragrafoan definitutako instalazioaren batean badihardute, 58.a) artikuluan definitutako garraio-jarduera egin dezakete bakar-bakarrik gasaren sektorean, eta beren aktiboen artean bigarren mailako garraio-sareko gasbideak izan ditzakete. Gainera, bereizita jasoko dituzte birgasifikazio-, biltegitze- eta garraio-jardueren kontuak barne-kontabilitatean.

3. Enpresek, baldin eta gasbideen enbor-sareko instalazioen jabe badira, beren sare propioak operatu eta kudeatu beharko dituzte, edo bestela, horien kudeaketa sare-kudeatzaile burujabe bati esleitu, lege honetan aurreikusitako kasuetan.

Honako baldintza hauek bete beharko dituzte garraio-sarearen kudeatzaileek:

a) Pertsona fisiko zein juridikoek, baldin eta garraio-sarearen kudeatzaileak zuzenean nahiz zeharka kontrolatzen badute, ezingo dute, ez zuzenean, ez zeharka, gas naturala ekoizten edo merkaturatzen duen enpresarik kontrolatu, ezta alderantziz ere.

b) Pertsona fisiko zein juridikoek, baldin eta garraio-sarearen kudeatzailearen Administrazio Kontseiluko edo lege hori ordezkatzeko organoetako kide badira edo horietako kideak izenda badituzte, ezingo dute gas naturala ekoizten edo merkaturatzen duen enpresarik kontrolatu, edo horietan eskubiderik izan. Ezingo dute, ezta ere, enpresa ekoizle edo hornitzaileetara garraio-sarearen kudeatzailetzako langilerik transferitu.

Ondorio horietarako, sozietate batek beste bat kontrolatzen duela ulertuko da, Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan aurreikusitakoa betetzen badu.

Nolanahi ere, enpresa garraiolariak, baldin eta enbor-sareko instalazioen jabe badira 2009ko irailaren 3a baino lehen, eta ekoizpen- eta merkaturatze-jarduerak egiten dituzten sozietatez osatutako enpresa-talde baten parte direlako, aurreko lerrokadan xedatutakoa betetzen ez badute, enbor-sareko instalazioen jabetzari eutsi ahal izango diote, betiere, horien kudeaketa sare-kudeatzaile burujabe bati esleitzen badiote, 63 *quater* artikuluan zehaztutako baldintzetan.

4. Gasaren enbor-sareko instalazioen jabe diren enpresentzako 3. paragrafoan zehaztutakoari kalterik egin gabe, sozietate-talde batek lege honen arabera bateraezinak diren jarduerak egin ditzake, baldin eta sozietate ezberdinek egiten badituzte, eta honako burujabetasun-irizpide hauek betetzen badira:

a) Jarduera arautuak egiten dituzten sozietateetako kudeaketa-arduradunek ezingo dute enpresa-taldearen antolamendu-egituratan parte hartu, baldin eta horiek ekoizpen- eta merkaturatze-jarduerak kudeatzen badituzte, dela zuzenean, dela zeharka.

b) Sozietate-taldeek jarduera arautuak egiten dituzten sozietateak kudeatzeaz arduratzen diren pertsonen burujabetasuna bermatuko dute; horretarako, beren interes profesionalak babestuko dituzte. Zehazki, ordainsariari eta kargu-uzteari buruzko bermeak ezarriko dituzte.

Jarduera arautuak egiten dituzten sozietateek eta kudeatzeaz arduratzen diren pertsonak ezingo dute akziorik eduki ekoizpen- edo merkaturatze-jarduerak egiten dituzten sozietateetan.

Halaber, jarduera arautuen ildotik, banaketa-jarduerak egiten dituzten sozietateetako kudeaketa-arduradunek, ezingo dute enpresa-taldearen antolamendu-egituratan parte hartu, baldin eta horiek garraio-jarduera kudeatzen badute, dela zuzenean, dela zeharka.

Gainera, jarduera arautuak egiten dituzten sozietateek eta horietako langileek ezingo dute merkataritzako informazio konfidentzialik partekatu kide diren sozietate-taldeko enpresekin, baldin eta horiek jarduera liberalizatuak egiten badituzte.

c) Jarduera arautuak egiten dituzten sozietateek erabaki efektiboak hartu ahal izango dituzte, sozietate-taldetik kanpo, gas natural likidotuaren birgasifikazio-instalazioak ustiatzeko, mantentzeko edo garatzeko, eta gas naturala garraiatzeko, biltegitratzeko eta banatzeko beharrezko aktiboei dagokienez.

Aitzitik, sozietate-taldeak aipatu sozietateen ekonomia eta kudeaketa gainbegiratzeko eskubidea izango du, eta urteko finantza-plana edo tresna baliokidea onartzea proposatu ahal izango du, baita zorpetze mailari muga orokorrak ezarri ere.

Enpresa-taldeak ezingo die jarduera arautuak egiten dituzten sozietateei jarraibiderik eman, ez eguneroko kudeaketari buruz; ez gas natural likidotua birgasifikatzeko aktiboak eraikitzeko edo erosteko, eta gas naturala garraiatzeko, biltegitratzeko eta banatzeko erabaki partikularrei buruz. Betiere, urteko finantza-planean edo tresna baliokidean zehaztutakoa gainditzen ez bada.

d) Sozietateek, baldin eta jarduera arautuak egiten badituzte, jokabide-kode bat ezarriko dute, zeinetan azalduko baitituzten aurreko a), b) eta c) lerroketan xedatutakoa betetzeko hartutako neurriak.

Jokabide-kodeak langileentzako betebeharrak espezifikokoak zehaztuko ditu, eta sozietateak behar bezala betetzen direla gainbegiratu eta ebaluatuko du.

Urtero, txosten bat aurkeztuko zaie Industria, Energia eta Turismo Ministerioari eta Energiaren Batzorde Nazionalari, aurreko a), b) eta c) lerroketan xedatutakoa betetzeko hartutako neurrien berri emateko. Txostena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

5. 1. paragrafoan zehaztutakoa gorabehera, jarduera arautuak egiten dituzten merkataritza-sozietateek akzio-partaidetzak erosten dituztenean, lege honen hamaikagarren xedapen gehigarrian aipatzen den aurretiazko baimena lortu beharko dute.

6. Enpresa banatzaileek, baldin eta lege honetan aurreikusitako terminoen arabera, jarduera arautu eta ez arautuak egiten dituen sozietate-talde baten parte badira, ez dute informazio nahasgarririk emango edo beren markaren edo markairudiaren aurkezpen nahasgarririk egingo, merkaturatze-jarduerak egiten dituzten talde bereko filialen nortasunarekin nahas ez daitezela, gai honi buruz indarrean den araudian aurreikusitako arau-hausteei kalterik egin gabe.»

Hamaika. 63 bis artikulua erantsi da. Honela egongo da idatzita:

«63 bis artikulua. *Garraio-sarearen kudeatzaileen egiaztapena.*

1. Garraio-sarearen kudeatzaileek –sare-kudeatzaile burujabeak barne– jarduerak bereizteko betebeharrak betetzen dutela egiaztatzen duen agiria lortu beharko dute aurrez. Energiaren Batzorde Nazionalak ematen du egiaztapen hori, datozen paragrafoetan jasotako prozedurarekin bat.

2. Enbor-sareko instalazio bat kudeatu nahi duten enpresek aipatu egiaztapena eskatu beharko diote Energiaren Batzorde Nazionalari.

Halaber, egiaztapena jaso duten enpresek jarduerak bereizteko betebeharra kontrolatzea eska dezakeen edozer transakzioen berri emango diote Energiaren Batzorde Nazionalari, Europar Batasuneko kide ez den herrialde bateko pertsona batek/batzuek enbor-sarearen zati baten edo garraio-sarearen kudeatzaile baten kontrola hartzea ekar dezakeen edozer gertakari barne.

3. Energiaren Batzorde Nazionalak egiaztapen-prozesuari ekingo dio, enpresa interesdunak eskatu edo jakinarazi ondoren, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak edo Europako Batzordeak eskaera arrazoitua egin ostean, edo Batzordearen ekimenez, baldin eta jarduera-banaketari buruz zehaztutako betekizunak ez betetzea eragingo duten edo eragin duten transakzioen berri badauka.

4. Energiaren Batzorde Nazionalak, entzunaldia egin ondoren eta modu arrazoituan, egiaztapenari buruzko behin-behineko ebazpena egingo du, eskaera edo jakinarazpena aurkeztu eta gehienez ere lau hilabeteko epean. Denbora-tarte horretan berariazko ebazpenik egiten ez badu, ulertuko da behin-behineko egiaztapena eman duela.

5. Energiaren Batzorde Nazionalak enpresa interesdunaren egiaztapenari buruzko behin-behineko ebazpenaren berri emango dio Europako Batzordeari, eta ebazpenari buruzko dokumentazioa ere jarriko du bere esku. Hartara, Europako Batzordeak dagokion irizpena emango du, behin betiko ebazpena egin baino lehen. Horrez gain, espedientearen kopia igorriko dio Industria, Energia eta Turismo Ministerioari.

Europako Batzordeak ez badu irizpenik ematen Erkidegoko legedian aurreikusitako epean, ulertuko da ez diola objektiorik jartzen Energiaren Batzorde Nazionalaren behin-behineko ebazpenari.

6. Europako Batzordeak emandako irizpena jaso eta bi hilabeteko epean, edo horretarako Erkidegoko legedian aurreikusitako epeak agortu ondoren, Energiaren Batzorde Nazionalak egiaztapenari buruzko behin betiko ebazpena egingo du, Europako Batzordearen erabakia betez. Ebazpena eta Europako Batzordearen irizpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira, baita Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean ere. Egiaztapenak ez du ondorioz izango argitaratzen den arte.

7. Prozeduraren edozer fasetan, Energiaren Batzorde Nazionalak eta Europako Batzordeak artikuluko honetan jasotako zereginak egiteko informazio erabilgarria eskatu ahal izango diote enpresa garraiolariari, edo ekoizpen- edo merkaturatze-jarduerak egiten dituzten enpresei.

Energiaren Batzorde Nazionalak merkataritzako informazio konfidentzialik jakinarazten ez dela bermatuko du.»

Hamabi. Artikulu berri bat, 63 *ter*, erantsi da, idazkera honekin:

«63 *ter* artikulua. *Egiaztapena, Europar Batasunekoak ez diren herrialdeei dagokienez.*

1. Europar Batasuneko kide ez den/diren herrialde bateko/batzuetako pertsona batek/batzuek kontrolatzen duen/duten enpresa batek egiaztapen bat eskatzen duenean, Energiaren Batzorde Nazionalak Europako Batzordea jakinaren gainean jarriko du. Horrez gain, hirugarren herrialde bateko/batzuetako pertsona batek/batzuek enbor-sarearen zati baten edo garraio-sarearen kudeatzaile baten kontrola hartzea ekar dezakeen edozer gertakariaren berri emango dio.

2. Energiaren Batzorde Nazionalak egiaztapen-prozesuari ekingo dio, 63 *bis* artikuluan aurreikusitako prozedurarekin eta epeekin bat.

Dena dela, honakoetan egiaztapena ukatuko du:

a) Erakundeak 63. artikuluan adierazitako betekizunak betetzen dituela frogatu ez denean.

b) Egiaztapena emateak energia-hornidura nazionala eta Europar Batasuneko arriskuan jartzen ez duela frogatu ez bada, kontuan izanik Espainiak eta Europar Batasunak aipatutako hirugarren herrialdearekiko dituzten eskubideak

eta betebeharrak, kasuari berezko zaizkion bestelako datu eta inguruabarrak, eta hirugarren herrialdea zein den.

Energiaren Batzorde Nazionalak, Europako Batzordeari behin-behineko ebazpena jakinarazten dionean, irizpen espezifiko bat eskatuko du jakiteko, batetik, jarduera-banaketaren eskakizuna betetzen ote duen, eta bestetik, egiaztapena emateak Europar Batasuneko hornidura-segurtasuna arriskuan jartzen ote duen.

3. Behin betiko ebazpena eta Europako Batzordearen irizpena ez badatoz bat, Energiaren Batzorde Nazionalak horren arrazoiak jakinaraziko ditu, aipatu ebazpenarekin batera.»

Hamahiru. Artikulu berri bat, 63 *quater*, erantsi da, idazkera honekin:

«63 *quater* artikulua. *Sare-kudeatzaile burujabea.*

1. 63.3 artikuluan zehaztutako jarduerak bereizteko betebeharra betetzen ez duten gasbideen enbor-sareko instalazioen jabe diren enpresek, 2009ko irailaren 3a baino lehen baziren haien jabeak, horien kudeaketa sare-kudeatzaile burujabe bati laga ahal izango diote.

Horretarako, garraio-jarduerak bereizteko betebeharra betetzen dutelako egiaztapena lortu duten enpresen artean, sare-kudeatzaile burujabe bat proposatuko dute, eta Industria, Energia eta Turismoko ministroari eskatuko diote onar dezala. Izendapena egin ahal izateko, beharrezkoa da Europako Batzordearen onarpena. Izendapena, gainera, ukatu ahal izango da, sare-kudeatzaile burujabeak ez badu lege honetan eta hura garatzeko araudian zehaztutako baldintzaren bat betetzen.

2. Honako hauek egin beharko ditu sare-kudeatzaile burujabeak:

a) Bere eginkizunak egiteko beharrezko giza baliabideak eta baliabide tekniko, finantzario eta fisikoak dituela frogatzea.

b) Europako Parlamentuaren eta Europako Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 715/2009 (EE) Erregelamenduak, gas naturala garraiatzeko sareetara sartzeko baldintzei buruzkoak, eta 1775/2005 (EE) Erregelamendua indargabetzen duenak, ezarritako betebeharrak –garraiolarien Europa eta eskualde mailako lankidetzaren barne– betetzeko gaitasuna izatea.

3. Hona hemen sare-kudeatzaile burujabearen funtzioak, kudeatzea egokitu zaion enbor-sareko instalazioei dagokienez:

a) Instalazioetara sartzeko eskaerak onartzea eta kudeatzea.

b) Hirugarrenek instalazioetara sartzeko kontratuak sinatzea eta bidesariak biltzea.

c) Garraio-sarea ustiatzea, mantentzea eta garatzea, nahitaezko plangintzan, lege honetan eta hura garatzeko araudian aurreikusitakoarekin bat.

d) Kudeatzen dituzten instalazioek behar bezala funtzionatzeko beharrezko azpiegiturak planifikatzea, baimenak izapidetzea eta horiek eraikitzea; betiere, instalaziook ez badira zuzenean esleitzen, lege honen 67.1 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

e) Kudeaketa laga dietela-eta kudeatzen dituzten aktiboekin lotutako funtzioei dagozkien erantzukizunak estaltzeko beharrezko neurriak hartzea.

4. Enbor-sareko instalazioen jabeek, baldin eta horien kudeaketa sare-kudeatzaile burujabe bati laga badiote, zera egin beharko dute:

a) Sare-kudeatzaile burujabearekin lankidetzan aritu eta hari funtzioak betetzen lagundu, bai eta beharrezko informazio guztia eman ere.

b) Dituen aktiboetatik eratorritako erantzukizuna –sare-kudeatzaile burujabearen funtzioei dagokiena salbu– estaltzeko beharrezko neurriak hartzea.

c) Sare-kudeatzaile burujabeak erabakitako eta Energiaren Batzorde Nazionalak onartutako inbertsioak finantzatzea, edo edozer alderdi interesatuk, sare-kudeatzaile burujabeak barne, finantzatzeko baimena ematea. Energiaren Batzorde Nazionalak onartu beharko ditu finantzazio-mekanismoak, bai eta aktiboen jabeari eta bestelako alde interesatuei aurrez kontsulta egin ere.

d) Sarearen edozer handitze finantzatzea errazteko beharrezko bermeak ematea, zenbait inbertsio izan ezik, inbertsio horiek edozer alde interesatuk finantzatzeko baimena eman badu.

e) Ez dute gaitasunik izango lagatako instalazioetan sartzeko baimena emateko edo hura kudeatzeko, ezta inbertsioen plangintza egiteko ere.

5. Horretarako, sare-kudeatzaile burujabeak eta enbor-sareko instalazioen jabeak kontratu-baldintzak eta bakoitzaren erantzukizunak zehazten dituen kontratua sinatuko dute. Kontratua Energiaren Batzorde Nazionalak onartu beharko du.

6. Energiaren Batzorde Nazionalak aipatu kontratua sinatu dutenek artikulua honetan zehaztutakoa betetzen dutela kontrolatuko du. Horretarako, behar adina informazio eskatu ahal izango du, baita garraio-instalazioaren titularraren nahiz sare-kudeatzaile burujabearen instalazioak aldeaz aurretik abisatu gabe ikuskatu ere.

7. Energiaren Batzorde Nazionala izango da garraio-instalazioaren titularraren eta sare-kudeatzaile burujabearen arteko desadostasunak konpontzeko organoa, bietakoren batek erreklamazioa egiten duenean.»

Hamalau. r) lerrokada erantsi zaio 64. artikuluari, eta honela dio:

«r) Sistemako eragileek larrialdiko egoerarako Gobernuak hartutako neurriak behar bezala betetzen dituztela gainbegiratzea, eta gainbegiraketa horren ondorioak jasoko dituen txosten bat egitea. Txostena Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren eta Energiaren Batzorde Nazionalaren esku jarriko da.»

Hamabost. Hemendik aurrera, idazketa hau izango du 67. artikulua 1. paragrafoaren 4. lerrokadak:

«Nahitaez planifikatu behar diren garraio-gasbideak eraikitze eta ustiatzeko baimenak lehia bermatuko duen prozedura bidez eman beharko dira, lege honen 4. artikuluari jarraiki; prozedura hori agintaritza eskudunak sustatu eta ebatziko du, bigarren mailako garraio-gasbideak direnean. Enbor-sareko instalazioen kasuan, enbor-sareko instalazioen zatirik handienaren titular den enpresari emango zaio instalazioak eraikitze eta ustiatzeko baimena. Estatuko Administrazio Orokorraren eskumenekoak diren beste garraio-gasbide batzuen kasuan, konektatzen diren instalazioen titularrei esleiki dakieke.»

Hamasei. Hemendik aurrera, 67. artikulua 4. paragrafoa honela egongo da idatzita:

«4. Garraio-instalazioen baimenek eraikitze eta ustiatzeko aintzat hartu behar diren baldintza guztiak bilduko dituzte.

Instalazio baimenduak beste titular batenak diren eta dagoeneko badauden instalazioetara konektatu behar direnean, horrek, edo, bera ezean, garraio-sarearen kudeatzaileak edo dagokion sare-kudeatzaile burujabeak, konektatzeko baimena eman behar du, erregelamenduz ezarritako baldintzetan.»

Hamazazpi. 68. artikulua honela idatzita geratuko da:

«68. artikulua. *Gas naturala birgasifikatzeko, garraiatzeko eta biltegitzeko baimenen titularren betebeharrak.*

Honako betebeharrak hauek dituzte gas natural likidotua birgasifikatzeko, eta gas naturala garraiatzeko eta biltegitzeko administrazio-baimenen titularrek, baita, aplikagarri zaizkien arlotan, sare-kudeatzaile burujabeek ere:

a) Jarduerak baimenduta eta aplikagarri diren xedapenei jarraiki egitea; horretarako, zerbitzua modu erregular eta jarraituan ematea, zehazten diren kalitate maileri eustea eta instalazioak kontserbazio eta egokitasun tekniko baldintza egokietan mantentzea, sistemaren kudeatzaile teknikoak, eta, hala badagokio, administrazio eskudunak emandako jarraibideak jarraituta.

b) Urteko eta hainbat urtetarako inbertsio-planak aurkeztea Industria, Energia eta Turismo Ministerioko Energiaren estatu-idazkariari eta Energiaren Batzorde Nazionalari, urte bakoitzeko urriaren 15a baino lehen, gutxienez 10 urteko epearekin.

Urteko inbertsio-planek hainbat informazio jasoko dute, besteak beste: hurrengo urterako aurreikusitako proiektuei buruzko datuak, horien ezaugarri tekniko nagusiak, aurrekontua eta gauzatze-egutegia.

c) Lege honetan xedatutakotik eratorritako gas-mugimenduetarako instalazioak erabiltzea erraztea, eta baimendutako subjektu guztiek instalazioak erabiltzea baimentzea, diskriminaziorik gabe, eta arau teknikoak betez.

d) Esku artean duten merkataritzako informazioaren konfidentzialtasuna bermatzea, eta beren jarduerari buruzko informazio konfidentziala diskriminazioz ezagutzera ematea saihestea, merkataritza-abantailarik ez dezan eduki inork.

e) Beren instalazioetara sartzeko eskubidea dutenekin, birgasifikazio-, biltegitratze- eta garraio-kontratuak sinatzea.

f) Biltegitratze-, garraio- eta banaketa-jarduerak egiten dituen beste edozer enpresari, eta sistemaren kudeatzaileari informazioa ematea, gasa garraiatzeko eta biltegitratzeko jarduerak, eta interkonektatutako sarearen funtzionamendu seguru eta eraginkorra bateragarriak izatea bermatzeko adina, hain zuzen.

g) Informazioa ematea, administrazio eskudunak eskatutako xehetasun eta maiztasunarekin eman ere, eta beren instalazioetara sartzeko sinatzen dituzten kontratuen berri ematea Industria, Energia eta Turismo Ministerioari. Halaber, beren instalazioetara sartzeko kontratuen berri eman beharko diete autonomia-erkidegoei, instalaziook autonomia-erkidego horretan kokatuta badaude, dela guztiz, dela partez, eta zerbitzu horiek kontratatu dituen kontsumitzaile kualifikatua, merkaturatzailea edo instalazioak autonomia-erkidego horretan dituen garraiolaria bada.

h) Plangintza-prozesuan parte hartzea, eskari-aurreikuspenekin bat eta erregelamenduz zehaztutakoa oinarri, gaitasun nahikoa bermatzeko beharrezko instalazioen proposamena eginda.»

Hemezortzi. Aldatu egin da 70. artikulua idazpena. Honela gelditu da:

«70. artikulua. *Garraio-instalazioetara sartzea.*

1. Instalazioen titularrek horiek erabiltzeko baimena eman behar diete eskatutako baldintzak betetzen dituzten merkatuko kontsumitzaile zuzenei eta merkaturatzaileei. Horretarako, garraio-, birgasifikazio- eta biltegitratze-jarduerak kontratatuko dituzte, dela berezita, dela batera, diskriminaziorik ezaren, gardentasunaren eta objektibotasunaren printzipioak oinarri hartuta. Indarreko bidesariek zehaztuko dituzte garraio-sareak erabiltzeko prezioak.

2. Erregelamendu bidez arautuko dira hirugarrenak instalazioetara sartzeko baldintzak eta instalazioen titularrek dituzten betebeharrak eta eskubideak, hirugarrenak sartzearekin lotutakoak, baita merkatuko kontsumitzaile zuzenenak eta merkaturatzaileenak ere. Halaber, kontratuen gutxieneko edukia definituko da, baita, hala badagokio, bigarren mailako ahalmen-merkatuaren baldintzak arautu ere.

3. Birgasifikazio-, oinarrizko biltegitratze-, garraio- eta banaketa-instalazioetarako sarbidea arautu egingo da.

Nahitaezko plangintzak biltegitratzea oinarrizkoa den edo ez zehaztuko du, irizpide ekonomiko eta teknikotan oinarrituta, baita, sistemak modu eraginkorrean funtziona dezan, biltegitratzeak zer behar estrategiko edo operatibo dituen ere.

Oinarrizkoak ez diren biltegitratzeetara sartzea negoziatu egin beharko da, gardentasun, objektibotasun eta diskriminaziorik ezaren irizpideetan oinarrituta. Biltegitratzeok plangintzan jasoko dira, argibide moduan. Instalazioak gas naturalaren sistemaren ordainsari-erregimenetik at egongo dira.»

Oinarrizkoak ez diren biltegitratzeen titularrek beren instalazioei ahalmena esleitzeko metodologia eta kanonak kalkulatzeko metodologia aurkeztuko diote Energiaren Batzorde Nazionalari, aurreko lerrokadan jasotako gardentasun, objektibotasun eta diskriminaziorik ezaren irizpideak betetzen direla egiazta dezan.

Honakook ere jakinarazi behar dizkiete Energiaren Batzorde Nazionalari eta Industria, Energia eta Turismo Ministerioari, gehienez ere hiru hilabeteko epean: merkataritza-baldintza nagusiak, eskaintako zerbitzuak, sinatutako kontratuak, instalazioak erabiltzeko prezioen zerrenda eta horietan egiten diren aldaketak. Merkataritzako informazio ez konfidentziala ezagutzera emango du aipatu batzordeak.

4. Sarera sartu ahal izatea ukatu ahal izango da ahalmen nahikorik ez badago, sarera sartzek ezarritako hornidura-betebeharrak betetzea galaraz badezake edo nahitaezko erosketa-kontratuetatik erator litezkeen zailtasun ekonomiko eta finantzario larriak direla-eta, Erkidegoko legedi uniformearen irizpideei jarraiki, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzekin eta prozedurarekin bat.

5. Sarera sartu ahal izatea ukatu ahal izango da, halaber, gasa hornitzen duen enpresa antzeko eskubideak aitortzen ez dituen herrialde batean kokatzen bada, dela zuzenean, dela beste enpresa hornitzaile batzuekin edo horiekin lotura duten beste batzuekin sinatutako akordioen bidez, eta sarbidea eskatzen zaien enpresentzako elkarrekotasun-printzipioa alda dezakeela uste bada; betiere, Energiaren Batzorde Nazionala ados badago. Gainera, Europar Batasuneko estatu kideetako enpresei buruzko irizpideak jarraitu behar dira, gai horri buruzko legedia uniformeak zehaztutakoarekin bat.

6. Salbuespen gisa, hirugarrenen sarbide-betebeharretik salbuets daitezke zenbait instalazio berri edo aurretik zeuden instalazioen aldaketak –ezaugarri bereziak direla-eta hala eskatzen dutenak–, baldin eta ahalmena asko handitzea badakarte, edo gasa hornitzeko iturri berriak garatzeko aukera ematen badute, lege honen 71. artikuluan jasotako salbuespena baimentzeko prozedurarekin bat.

Europar Batasunekoak ez hirugarren herrialdeetako instalazioekin diren nazioarteko konexioen kasuan, aipatu salbuespena Gobernuak hidrokarburoei buruz egindako plangintzan jasoko da, 4. artikuluan zehaztutakoarekin bat.

Salbuespen horren ondorioz, instalazioa ez da gas naturalaren sektorearen ordainsari-erregimenean sartuko.

7. Sistemara sartzeko instalazioetara –artikulu honen 5. paragrafoan xedatutakoaren mendekoetara– zuzenean konektatutako hartune edo lineen bidez bakarrik hornitzen diren kontsumoek lege honetan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte, zehazki, 98. artikulutik eratorritakoak, oinarrizko sarekoak ez diren instalazioen kasuan.»

Hemeretzi. Beste artikulua bat, 71. artikulua, gehitu da, titulu eta idazpen honekin:

«71. artikulua. *Hirugarrenen sarbide-betebeharra salbuestea.*

1. Hirugarrenen sarbide-betebeharra, 70. artikulua 6. paragrafoan aipatutakoa, salbuestea eska daiteke, baldin eta horiek ondorengo baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Inbertsioak gas hornidurako lehia indartu eta horniduraren segurtasuna sustatu behar ditu.

b) Inbertsioaren berezko arrisku maila dela-eta, hura ezin egin izatea salbuespena eman ezean.

c) Azpiegiturak garraiolarietaz –zeintzuen sareetan eraikiko baita azpiegitura– bestelako entitate batenak izango dira, gutxienez izaera juridikoari dagokionez.

d) Azpiegituraren erabiltzaileei kanonak kobratuko zaizkie.

e) Salbuespena ez da lehiaren, ez Europar Batasuneko gasaren barne-merkatuaren funtzionamenduaren, ez azpiegitura konektatuta dagoen sare arautuaren funtzionamendu eraginkorren kalterako.

Hirugarrenen sarbide-salbuespena aplika dakiok, batetik, azpiegitura berriaren ahalmen osoari edo zati bati, edo, bestetik, aurretik zegoen eta ahalmena handitu zaion azpiegituraren ahalmen osoari edo zati bati.

2. Horretarako, instalazioaren titularrak Industria, Energia eta Turismo Ministerioari eskatuko dio salbuespena, eta horrek txostena eskatuko dio Energiaren Batzorde Nazionalari.



Energiaren Batzorde Nazionalak salbuespen-eskaeren kopia igorriko dio Europako Batzordeari, eta kasu bakoitza aztertuko du. Horretarako, honako alderdi hauek hartuko ditu kontuan, beste batzuen artean: eraikiko den ahalmena edo aurrez zegoen ahalmenaren aldaketa, aurreikusitako proiektuaren epea eta gasaren sektorearen egoera. Energiaren Batzorde Nazionalak salbuespenaren iraupenari eta azpiegiturara diskriminaziorik gabe sartzeari buruzko baldintzak proposatuko ditu txostenean.

Bestalde, ahalmena kudeatzeko eta esleitzeko arau eta mekanismoak ere bilduko ditu txostenean. Nolanahi ere, balizko erabiltzaile guztiei alde aurreko kontsulta egingo zaie ahalmen berria eta norberaren erabilerarako ahalmena kontratatzeke duten interesa galdetzeko, hura esleitu aurretik. Energiaren Batzorde Nazionalak kontsultaren emaitzak kontuan izango ditu artikulu honen 1. paragrafoan zehaztutako irizpideak betetzen diren ebaluatzeke.

Erabili ez den ahalmena gardentasunez, objektibotasunez eta diskriminaziorik gabe eskaini beharko da merkatuan, eta azpiegituraren erabiltzaileek kontratatutako ahalmena saldu ahal izango dute bigarren mailako merkatuan.

3. Energiaren Batzorde Nazionalak txosten bat eta espedientean jasotako dokumentazio guztia pasako dizkio Industria, Energia eta Turismo ministroari, eta horrek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko den agindu bidez ebatziko du. Halaber, aipatu agindua eta Energiaren Batzorde Nazionalak egindako txostena erakunde horren web-gunean argitaratuko dira.

4. Salbuespen-agindua eta horrekin lotutako informazio guztia Europako Batzordearen esku jarriko da, 2009/73/EE Zuzentarauaren 36.9 artikuluan jasotakoa bete dadin, eta, hala badagokio, egokitu edo baliogabetu egingo da, aipatutako artikulua betez, Batzordeak zer erabakitzen duen.

5. Europako Batzordeak onartutako salbuespen-erabakiak onartu eta bi urtera utziko dio eragina izateari, baldin eta ordurako ez bazaio azpiegitura eraikitzeari ekin, eta onartu eta bost urtera, berriz, ordurako azpiegitura ez badago martxan, non eta Europako Batzordeak ez duen erabakitzen atzeratzeak arrazoituta daudela.

6. Azpiegitura –zeina salbuestea eskatu baiten– Europar Batasuneko estatu kide baten baino gehiagoren lurraldean badago, 2009/73/EE Zuzentarauaren 36.4 artikuluan xedatutakoari egingo zaio men.»

Hogei. t) lerrokada gehitu da 74.1 artikulua amaieran. Horrela dio:

«t) Erregelamendu bidez zehaztutako epeak betetzea, hornitzaile-aldaketei lotutako jardueretan. Epe hori ez da izango, inola ere, hiru astetik gorakoa.»

Hogeita bat. Lau lerrokada berri erantsi dira 81. artikulua 2. paragrafoaren amaieran. Hau diote:

«n) Azken kontsumitzaileak hornitzeko, kontratatutako edo eskainitako zerbitzuari buruzko edonolako kexari, erreklamaziori, informazio-eskaerari edo jakinarazpeni erantzuteko zerbitzua izan behar dute, eta posta-helbide bat, telefono bidezko doako arreta-zerbitzu bat eta doako telefono-zenbaki bat eskaini behar dizkiete kontsumitzaileei, baita fax-zenbaki bat edo helbide elektronikoko bat ere. Elektronikoki komunikatzeko sistema horrek eskaera noiz eta zer ordutan jaso den eta zer zenbaki eman zaion adieraziko du automatikoki, herritarrak eskaerari sarrera eman zaiola jakin dezan ziurtasunez. Emaillek beren legezko helbidea jakinaraziko dute posta-helbide arruntarekin bat ez badator.

o) Handizkako bezeroekin, garraio-sareetako kudeatzaileekin, biltegiatze eta gas natural likidotuaren kudeatzaileekin eginiko gas-horniduraren eta gasarekin lotutako eratorrien kontratuei eta transakzioei buruzko datuak Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren, Energiaren Batzorde Nazionalaren, Lehiaren Batzorde Nazionalaren eta Europako Batzordearen esku jartzea, gutxienez bost urtez.

p) Desadostasunak judizioz kanpo konpontzeko sistemen berri ematea bezeroei, baita sistemon erabileraren berri ematea ere.

q) Hornitzaile-aldaketei loturiko jardunetarako araudian ezarritako epeak betetzea. Arauz ezarritako epea ez da, inola ere, hiru astetik gorakoa izango.»

Hogeita bi. Aldatuko egin dira 92. artikulua 3., 4. eta 5. paragrafoak. Aurrerantzean, honela egongo dira idatzita:

«3. Titulu honek araututako jarduerak egiten dituzten enpresek bidesari eta kanonak zehazteko behar adina informazio emango diete Energiaren Batzorde Nazionalari eta Industria, Energia eta Turismo Ministerioari. Informazio hori eskatzen duten autonomia erkidegoen esku egongo da, beren lurralde-eremuari eragiten dion heinean.

4. Energiaren Batzorde Nazionalak oinarritzko sarbide-zerbitzuen (garraioa eta banaketa, birgasifikazioa, biltegiatzea, eta zisternak kargatzea) bidesari eta kanonak kalkulatzeko metodologiak zehaztuko ditu, lege honetan eta hura garatzeko araudian definitutako ordainsarien eta tarifen esparruan.

Industria, Energia eta Turismo ministroak, Ekonomia Gaietarako Gobernu Batzorde Delegatuarekin aurrez adostu ondoren, bidesarien balioak onartuko ditu, Energiaren Batzorde Nazionalak zehaztutako metodologiari jarraiki, baita aplikagarri diren sistemaren gainerako kostuak ere.

5. Bidesari eta kanonek sarea erabiltzearen kostuak kontuan hartuko dituzte, azpiegituren erabilera optimizatzearen, eta presio mailen, kontsumo-ezaugarrien eta kontratuen iraupenaren arabera bereizi ahal izango dira.»

Hogeita hiru. 100. artikuluari beste lerrokada bat erantsi zaio, hirugarrena, eta honela dio:

«Industria, Energia eta Turismo Ministerioak, Petrolio Produktuen Erreserba Estrategikoen Korporazioarekin batera, hornidura-segurtasuna gainbegiratzetik ateratako emaitzen txostena egin eta argitaratuko du urte bakoitzeko uztailaren 31 baino lehen, baita izandako arazoak konpontzeko hartutako edo aurreikusitako neurriak ere.»

Hogeita lau. 101. artikuluari beste bi lerrokada gehitu zaizkio, eta honela diote:

«3. Gobernuak hirugarren herrialdeekin lankidetzan aritzea sustatuko du, larrialdietan edo hornidura-eskasia dagoenetan erabili ahal izateko mekanismo koordinatuak garatzeko eta hartutako nazioarteko konpromisoetatik eratorritako betebeharrak betetzeko.

4. Gobernuak hartutako neurrien berri emango die, hala Europako Batzordeari, nola gainerako estatu kideei.»

Hogeita bost. Aldatu egin dira 109.1. artikulua g) eta h) lerroak. Honela egongo dira idatzita:

«g) Administrazio eskudunak (Energiaren Batzorde Nazionala barne) edo sistemaren kudeatzaile teknikoak beren funtzioen esparruan hartutako erabaki juridikoki lotesleak edo egindako errekerimenduak ez betetzea, sistemaren funtzionamenduarentzat oso kaltegarriak direnean.»

h) Jarduera bateraezinak egitea, eta, lege honetan eta berau garatzeko arauetan xedatutakoarekin bat, ondarea eta funtzioak banatzeko eta kontuak bereizteko betebeharrak ez betetzea, horretara behartuta dauden subjektuen kasuan.»

Hogeita sei. 109.1 artikulua amaieran, z *bis* lerrokada aa) lerrokada izatera pasatu da, eta honela dioten beste bi lerrokada erantsi dira:

«ab) Subjektuek hidrokarburoen sektoreari buruz aplikagarri zaizkien Europar Batasunaren Erregelamenduak eta zuzenbide-erabakiak ez betetzea behin eta berriro, baldin eta horretara behartuta badaude.

ac) Sare-kudeatzaile burujabeek edo, kudeaketa haiei laga dieten instalazioen jabeek lege honen 63 *quater* artikuluan zehaztutako betebeharrak ez betetzea behin eta berriro.»

Hogeita zazpi. Hau da 110. artikulua d) lerrokadaren testu berria:

«d) Administrazio eskudunak (Energiaren Batzorde Nazionala barne) edo sistemaren kudeatzaile teknikoak beren funtzioen esparruan hartutako erabaki juridikoki lotesleak edo egindako errekerimenduak ez betetzea, sistemaren funtzionamendua larri kaltetzen ez bada.»

Hogeita zortzi. 110. artikuluaaren amaieran, beste hiru lerrokada gehitu dira. Honela diote:

«u) Gas naturala banatzen eta merkaturatzen duten enpresek kontsumitzaileentzako arreta-zerbitzua mantentzeko eta horrek behar bezala funtzionatzeko betebeharrak ez betetzea, baita kontsumitzaileak babesteko neurriak ez betetzea ere, lege honetan eta berau garatzeko araudian zehaztutakoarekin bat.»

v) Subjektuek hidrokarburoen sektoreri buruz aplikagarri zaizkien Europar Batasunaren Erregelamenduak eta erabakiak ez betetzea, baldin eta horretara behartuta badaude.

w) Sare-kudeatzaile burujabeek edo kudeaketa laga dieten instalazioen jabeek lege honen 63 *quater* artikuluan zehaztutako betebeharrak ez betetzea.»

Hogeita bederatzia. Hona hemen 111. artikuluaaren eduki berria:

«111. artikulua. *Arau-hauste arinak.*

Honako hauek dira arau-hauste arinak: lege honetan, berau garatzeko arauetan eta aplikagarri den gainerako araudian jasotako nahitaezko aginduak urratzea; betiere, urratze horiek ez badira arau-hauste larriak edo oso larriak, aurreko bi artikuluetan xedatutakoari jarraiki.»

Hogeita hamar. 113. artikuluaaren 1. paragrafoaren amaieran, honako lerrokada hau gehitu da:

«Aurretik zehaztutako mugei kalterik egin gabe, Energiaren Batzorde Nazionalak ezarritako zehapenen zenbatekoak ezingo du enpresa arau-hauslearen urteko negozio-bolumenaren zenbatekoaren ehuneko jakin bat gairiditu, ezta egitura bertikala duen taldeko sozietate nagusiaren urteko negozio-bolumen kontsolidatuaren ehuneko jakin bat ere. Hona hemen ehunekook:

- a) % 1 arau-hauste arinetan.
- b) % 5 arau-hauste larrietan.
- c) % 10 arau-hauste oso larrietan.»

Hogeita hamaika. Hemendik aurrera, idazketa hau izango du 116. artikulua:

«116. artikulua. *Zehatzeko eskumenak.*

1. Zehapenak ezartzeko gaitasuna, arau-haustea egin zen ekitaldian jarduera edo dagozkion instalazioak baimentzeko eskumenaren titularraren arabera izango da.

2. Laugarren paragrafoan xedatutakoa gorabehera, Estatuko Administrazio Orokorren esparruan, arau-hauste oso larriengatik zehapenak Ministroen Kontseiluak ezarriko ditu, eta arau-hauste larriengatik, Industria, Energia eta Turismo ministroak. Arau-hauste arinak, berriz, Energia Politikako eta Meatzeetako zuzendari nagusiak zehatuko ditu.

3. Autonomia-erkidegoen esparruan, horien araudian aurreikusitakoa jarraituko da.

4. Honako hauek Energiaren Batzorde Nazionalak zehatuko ditu:

a) 109.1 artikuluaaren h), i), q), r) eta ac) lerroketan aurreikusitako arau-hauste oso larriak.

Halaber, 109.1 artikuluaaren d), g) eta j) lerroketan tipifikatutako arau-haustek zehatu ahalko ditu, baldin eta arau-haustea gertatu bada juridikoki lotesleak diren erabakiak ez betetzeagatik, informazioa ez igortzeagatik, ikuskaritzak ez egiteagatik edo Energiaren Batzorde Nazionalak bere eskumenen esparruan egindako errekerimenduak ez betetzeagatik.

b) 110. artikulua l), t), u) eta w) lerroketan aurreikusitako arau-hauste larriak.

Halaber, 110. artikulua d), eta f) lerroketan tipifikatutako arau-haustek zehatu ahalko ditu, baldin eta arau-haustea gertatu bada juridikoki lotesleak diren erabakiak ez betetzeagatik, informazioa ez igortzeagatik, ikuskaritzak ez egiteagatik edo Energiaren Batzorde Nazionalak bere eskumenen esparruan egindako errekerimenduak ez betetzeagatik.

c) Juridikoki lotesleak diren erabakiak eta Energiaren Batzorde Nazionalak bere eskumenen esparruan egindako errekerimenduak ez betetzearekin lotutako arau-hauste arinak.»

Hogeita hamabi. Hamaikagarren xedapen gehigarrian, hirugarren atalaren 1. azpiatalean, ondoko eginkizun hauek erantsi zaizkie Energiaren Batzorde Nazionalari dagozkion eginkizunei, hemezortzigarrenaren ondoren:

«Hemeretzigarrena: Honako hauek zehaztea zirkular bidez, kontsultaldi-zapidea egin ondoren, eta ekonomia-eraginkortasun, gardentasun, objektibotasun eta diskriminaziorik ezaren irizpideei jarraiki:

i. Elektrizitate-sareetara sartzeko bidesarien zati bat, hain zuzen ere, elektrizitatearen sektorearen azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 17.1 artikuluan zehazten diren garraio- eta banaketa-kostuei dagokiena, kalkulatzeko metodologia, aipatu legean eta hura garatzeko araudian zehaztutako tarifa eta ordainsariekin bat.

Horretarako, kontsumitzaile eta sortzaileei garraio- eta banaketa-kostuak eraginkortasunez esleitzea joko da bidesariak kalkulatzeko metodologiatzat.

ii. Azpiegitura mugakideetara sartzeko metodologia, ahalmena esleitzeko eta metaketa kudeatzeko prozedurak barne, azpiegiturretara sartzeko eta energia elektrikoa ekoizteko merkatuak funtzionatzeko arau-esparruari, eta erregelamenduz zehazten diren irizpideei jarraiki.

iii. Sistemaren operadore batek baino gehiagok kudeatutako sistemak orekatzeko zerbitzuak emateko metodologiak, hain zuzen ere, sarearen erabiltzaileei beren ekoizpena eta kontsumoa orekatzeko pizgarri egokia eskainiko dizkietenak kostu txikiaren, bidezko moduaren eta diskriminaziorik ezaren ikuspuntutik, elektrizitate-sistemak behar bezala funtzionatzeko arau-esparruarekin bat.

iv. Oinarrizko sarbide-zerbitzuen (garraioa eta banaketa, birgasifikazioa, biltegiatzea, eta zisternak kargatzea) bidesari eta kanonak kalkulatzeko metodologiak, hidrokarburoen sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legean eta hura garatzeko araudian definitutako ordainsarien eta tarifen esparruan.

v. Oreka-zerbitzuak emateko metodologia, sarearen erabiltzaileek gas-sistemaren sarrerak eta irteerak orekatzeko pizgarri egokiak eman ditzaten, hidrokarburoen sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legean eta hura garatzeko araudian definitutako sistemara sartzeko eta sistemak funtzionatzeko arau-esparruan.

vi. Azpiegitura mugakideetara sartzeko metodologiak, ahalmena esleitzeko eta metaketa kudeatzeko prozedurak barne, hidrokarburoen sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legean eta hura garatzeko araudian definitutako sistemara sartzeko eta sistemak funtzionatzeko arau-esparruan.

Hogeigarrena: Honako hauek gainbegiratzea: interkonexio-ahalmenaren kudeaketa eta esleipena, garraiolariak eta enpresa banatzaileek konexioak eta konponketak egiten ematen duten denbora, eta sareetako ahalmen-metaketa konpontzeko mekanismoak.

Horretarako, garraio-sarearen kudeatzaileek edo, hala badagokio, banatzaileek alde interesdunei interkonexioei, sarearen erabilerari eta ahalmen-esleipenari buruzko beharrezko informazioa behar bezala jakinarazten dietela gainbegiratzea.

Hogeita batgarrena: Elektrizitatearen sektoreko garraio-, birgasifikazio-, banaketa-, biltegiatze- eta hornidura-jarduerak, eta sortze-, garraio-, banaketa- eta hornidura-jarduerak bereiztea, eta, bereziki, haien arteko bereizketa funtzionala eta kontuen artekoa, jarduera horien artean diru-laguntza gurutatuak saihestearren.

Hogeita bigarrena: Hornitzaile-aldaketekin lotutako araudia eta prozedurak betetzen direla kontrolatzea.

Hogeita hirugarrena: Gas naturalaren sektorean, biltegitratzera, tartean, lurpeko biltegitratzeetara, gas natural likidotuaren deposituetara, gasbideetan biltegitratutako gasera eta bestelako zerbitzu osagarrietara sartzeko baldintzak gainbegiratzea. Halaber, jabeek oinarrizkoak ez diren gas naturalaren biltegitratzeetarako ezartzen diren betekizunak betetzen dituztela gainbegiratuko du. Elektrizitatearen sektorearen kasuan, berriz, elektrizitate-produktu berriei aplikagarri zaizkien konexio-baldintzak eta -tarifak gainbegiratzea.

Hogeita laugarrena: Garraio-sarearen kudeatzaileen inbertsio-planak gainbegiratzea; zehazki, Europar Batasunaren arloan sarearen garapen-planera egokitzeari dagokionez. Gainera, horiek aldatzeko gomendioak egin ditzake.

Hogeita bosgarrena: Hornidura etengabearen kontratuen eta epe luzeko kontratuen kontratu-askatasuna errespetatzen dela gainbegiratzea, betiere, indarrean den legediarekin eta Europar Batasuneko zuzenbidearekin bateragarriak badira.

Hogeita seigarrena: Sareen segurtasun- eta fidagarritasun-arauak betetzen direla gainbegiratzea.

Hogeita zazpigarrena: Garraiolari eta banatzaileek, eta, hala badagokio, sareen jabeek eta garraio- eta banaketa-sareen kudeatzaileek lege honetan, elektrizitatearen sektorearen azaroaren 27ko 54/1997 Legean eta aplikagarri den beste edozer xedapenetan ezarritako betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzea, mugaz haraindiko gaiak barne. Halaber, gasaren eta elektrizitatearen sektoreetan diharduten subjektuek Europar Batasuneko arau-xedapenetan xedatutakoa behar bezala aplikatzen dutela egiaztatuko du.

Hogeita zortzigarrena: Energia elektrikoa garraiatzeko sarearen kudeatzailearen eta hirugarren herrialdeetako kudeatzaileen arteko lankidetzak teknikoak gainbegiratzea.

Hogeita bederatzigarrena: Gas- eta elektrizitate-kontsumitzaileak babesteko neurriak gainbegiratzea, eta erabiltzaileak behar bezala hornitu ez dituzten subjektuak zehaztea. Horrez gain, zerbitzu-kalitatearen, horniduraren eta babes-neurrien betekizunekin lotutako arau-proposamenak egin diezazkieke Industria, Energia eta Turismo Ministerioari eta autonomia-erkidegoetako administrazioei.

Hogeita hamargarrena: Azken kontsumitzaileei aplikatzen zaizkien hornidura-prezio eta -baldintzak hidrokarburoen sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legean, eta elektrizitatearen sektorearen azaroaren 27ko 54/1997 Legean eta hura garatzeko araudietan xedatutakora egokitzen direla gainbegiratzea.

Hogeita hamaikagarrena: Honako hauek gainbegiratzea gasaren eta elektrizitatearen sektoreetan:

1. Gardentasun- eta lehia maila, handizkako prezioena barne. Horrez gain, gas- eta elektrizitate-enpresek gardentasun-betebeharrak betetzen dituztela ikuskatuko du.

2. Merkatu- eta lehia-irekieraren maila eta eraginkortasuna, hala handizkako merkatuan, nola txikizkakoan. Gainera, elektrizitatearen sektorearen kasuan, eperako kontratazio-enkante arautuetan.

3. Kontratu-praktika murriztaileak egotea, etxekoak ez diren bezero handiek hornitzaile batekin baino gehiagorekin aldi berean kontratuak sinatzeko erabakia galaraz edo muga dezaketen eksklusibotasun-klausulak barne. Erakunde eskudunak jakinaren gainean jarri beharko ditu.

Hogeita hamabigarrena: Energia elektrikoaren kontsumitzaileek eta hidrokarburoen sektorekoek mahaigaineratutako erreklamazioak jakinaraztea, erantzutea eta izapidetzea, jarduera-protokoloen bidez, administrazio eskudunekin batera, eta kontsumitzaileen eskura jartzea beren eskubideei, indarrean den legediari eta auziak konpontzeko bideei buruzko informazioa. Energiaren Batzorde Nazionalak, ekonomia iraunkorraren martxoaren 4ko 2/2011 Legearen 20. artikulua betez, egin behar duen urteko sektore-txostenean, jakinarazitako, erantzundako eta izapidetutako erreklamazio kopuruari buruzko informazioa jasoko da, baita horiei buruzko balorazioa ere.

Halaber, aurkeztutako erreklamazioen berri emango dio urtero Industria, Energia eta Turismoko ministroari, eta, hala badagokio, arau-hobekuntzak proposatuko dizkio.»

Hogeita hamahiru. Hamaikagarren xedapen iragankorrean, hirugarren atalean, aldatu egin da 5. paragrafoa, eta 6. eta 7. paragrafoak erantsi dira, idazkera honekin.

«5. Energiaren Batzorde Nazionalak txosten bat egingo du urtero gainbegiratze-funtzioak gauzatzeko egindako jarduerak zehazteko, baita horien ondorioak zehazteko ere. Txosten horren edukia urteko sektore-txostenean jasoko da. Lehen adierazi bezala, Ekonomiaren Batzorde Nazionalak egin behar du txostena, ekonomia iraunkorraren martxoaren 4ko 2/2011 Legearen 20. artikulua betez. Halaber, hala badagokio, dagozkion arau-hobekuntzak proposatuko dizkio Industria, Energia eta Turismoko ministroari.

Aipatu batzordeak baldintzaren bat betetzen ari ez delako zantzurik antzematen badu gainbegiraketa-lana egiterakoan, agintaritza eskudunak jakinaren gainean jarriko ditu, eta eskura dituen egitatezko elementu guztiak emango ditu, baita jarduera-proposamen bat ere, hala badagokio.

6. Energiaren Batzorde Nazionalak zirkular moduko xedapenak eman ditzake lege hau garatzerakoan, Industria, Energia eta Turismoko ministroak ematen dituen errege-dekretu eta aginduetan jasotako arauak garatzeko eta betearazteko, xedapenok horretarako berariaz ematen badira, bere jarduera-eremuko xede eta funtzioak betetzeko helburuarekin. Zirkular horiek Hidrokarburoen Kontsulta Batzordearen eta Elektrizitatearen Kontsulta Batzordearen nahitaezko txostena behar dute, kasuan kasu, eta merkatuetako lehia-baldintzen gaineko eragina nabarmena bada, berriz, Lehiaren Batzorde Nazionalaren txosten erabakigarria, lehiaren defentsaren uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 17.2.b) artikuluekin bat. Zirkularrok Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Energiaren Batzorde Nazionalak hartutako egintza eta ebazpenak jurisdikzio-kontrola ahalbidetzeko guztiz arrazoituta egongo dira, eta jendearen esku egongo dira. Aldi berean, merkataritzako informazioaren konfidentzialtasunari eutsiko zaio, 4. paragrafoan zehaztutakoa betez.

Aipatu batzordearen egintza eta ebazpenek amaitu egingo dute administrazio-bidea, eta horien aurka helegitea jarri ahalko da administrazioarekiko auzien jurisdikzian, hain zuzen ere, jurisdikzio hori arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean zehaztutako terminoetan. Energiaren Batzorde Nazionalak zirkular bidez onartzen dituen xedapenen aurka ere helegitea jarri ahalko da jurisdikzio horretan, aipatutako uztailaren 13ko 29/1998 Legean zehaztutako terminoetan.

7. Energiaren Batzorde Nazionalak energia-gaietan estatuko legediak araututako erregistroak kontsultatu ahal izango ditu. Gainera, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak Energiaren Batzorde Nazionalaren esku dauden datu-baseak kontsultatu ahal izango ditu.

Hala, beharrezko informatika-garapenak egingo dira, bi erakundeek sarbide elektronikoa izan dezaten. Hartara, datu-baseetan eta erregistroan jasotako informazioa kontsultatu ahal izango dute, informazioaren segurtasunari, konfidentzialtasunari eta osotasunari eutsita.»

Hogeita hamalau. Hamaikagarren xedapen gehigarrian beste paragrafo bat gehitu da, seigarrena, idazkera honekin:

«Sei. Helburu orokorrak eta Energiaren Batzorde Nazionalak Energia Arautzaileen Lankidetzaren Agentziarekin eta Europar Batasuneko gainerako estatu kideetako organismo arautzaileekin duen harremana.

1. Lege honetan zehazturiko funtzioen baitan, eta agintaritza arautzaileekin edo autonomia-erkidegoetako organo baliokideekin elkarlanean, horien eskumenei kalterik egin gabe, Energiaren Batzorde Nazionalak hurrengo helburuak lortzen laguntzeko neurriak hartuko ditu:

a) Energiaren sektorearen funtzionamendu lehiakorra sustatzea, elektrizitate eta hidrokarburoen (hala likidoen, nola gaseosoen) horniduraren kalitatezko

zerbitzu lehiakorrak izateko eta emateko, merkatu osoaren, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen onurarako.

b) Elektrizitatearen eta gas naturalaren barne-merkatu lehiakor, seguru eta ingurumenaren aldetik iraunkorra sustatzea, merkatua Erkidegoko bezero eta hornitzaile guztiei irekitzea eta elektrizitate- eta gas-sareek eraginkortasunez eta fidagarritasunez funtzionatzeko baldintza egokiak bermatzea, epe luzeko helburuak aintzat hartuta, Energia Arautzaileen Lankidetzak Agentziarekin, gainerako estatu kideetako agintaritzak arautzaileekin eta Europako Batzordearekin batera.

c) Eskualde mailako merkatu lehiakorrak, Europar Batasunaren merkatuaren esparruan behar bezala funtzionatuko dutenak, garatzea, b) lerrokadan aipatutako helburua lortzearren.

d) Elektrizitatea eta gas naturala salerosteko estatu kideen arteko murrizketak ezabatzea. Helburu horretan sartzen dira, halaber, eskaera asetzeko eta merkatu nazionalen integrazioa indartzeko garraio-ahalmen mugakide egokia garatzea, elektrizitatearen eta gas naturalaren Europar Batasunaren barne-merkatuan mugitzeko ahalmena errazteko.

e) Sare-ez diskriminatzaileak, seguruak, eraginkorrak, fidagarriak eta kontsumitzaileei zuzendutakoak modurik errentagarrienean garatzen laguntzea, eta honako hauek sustatzea: sarearen egokitasuna, energia-politikaren helburu nagusiekin bat etortzea, energia-eraginkortasuna, eta energia-iturri berriztagarrien bitartez energiaren eta gasaren eskala handiko eta txikiko ekoizpena barnean hartzea, eta banaketa sareen bitartez egitea, bai garraio sareen bitartez bai banaketa sareen bitartez.

f) Ekoizpen-ahalmen berrien sarean sartzea erraztea, eta, horretarako, energia-iturri berriztagarrietatik datozen elektrizitate- eta gas-eragile berriei sartzea galaraz diezaieketen oztupoak ezabatzea.

g) Sare-kudeatzaileei eta -erabiltzaileei sarearen prestazioen eraginkortasuna handitzeko eta merkatuaren integrazioa sustatzeko epe motzeko nahiz luzeko pizgarri egokiak ematen zaizkiela bermatzea.

h) Zerbitzu maila handia bermatzen laguntzea, baita energia-kontsumitzaileen (batez ere bezero ahulen) babesa eta bezeroek hornitzailez aldatzeko behar dituzten datuak trukatzeko prozesuen bateragarritasuna ere bermatzen laguntzea.

2. Energiaren Batzorde Nazionalak ordezkari bat izendatuko du Kontseiluko kideen artean, eta ordezkari bat zuzendarien artean, harremanetarako lanak egin ditzaten eta ordezkari izan daitezkeen Energia Arautzaileen Lankidetzak Agentzian, agentzia hori sortzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 713/2009 (EE) Erregelamenduaren 1. paragrafoaren 14. artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

3. Energiaren Batzorde Nazionalak Energia Arautzaileen Lankidetzak Agentziarekin, Europako Batzordearekin eta Europar Batasuneko estatu kideetako organismo arautzaileekin eta beste estatu batzuetakoekin harremana, mugaz haraindiko gaiei lotutako lankidetzak, eta koordinazio erregularra eta aldizkakoa sustatuko ditu.

4. Energiaren Batzorde Nazionala, dituen eskumen espezifikoek kalterik egin gabe, Europar Batasuneko estatu kideetako organismo arautzaileekin lankidetzan arituko da, honako hauek lortzearren:

a) Neurri operatiboak aplikatzea sustatzea, honako hauek ahalbidetzeko: sarea modu optimoan kudeatzea, gasaren eta elektrizitatearen truke bateratuak sustatzea eta ahalmena mugaz bestalde esleitzea. Baita interkonexio-ahalmen egokia ahalbidetzeko ere, eskualde bateko edo eskualde arteko interkonexio berrien bidez, lehia efektiboa egon dadin, eta hornidura-segurtasuna hobetu dadin, estatu kideetako hornidura-enpresen arteko diskriminaziorik egon gabe.

b) Dagokien garraio-sareko kudeatzaileentzako eta merkatuko beste eragile batzuentzako sare-kode guztien garapena koordinatzea.

c) Pilaketa kudeatzeko arauen garapena koordinatzea.

5. Energiaren Batzorde Nazionalak lankidetzak-akordioak egin ahal izango ditu estatu kideetako gainerako organismo arautzaileekin, erregulazioaren arloan lankidetzak sustatzeko helburuarekin.

6. Energiaren Batzorde Nazionalak 2. paragrafoan aipatutako izendapenak jakinaraziko dizkio Industria, Energia eta Turismo Ministerioari. Halaber, 3. eta 4. paragrafoak aplikatzeko prozesuan egindako jardueren berri emango dio aipatutako ministerioari, horien jarraipen eguneratua egin dezan, eta 5. paragrafoan aipatutako akordioen kopia igorriko du.

7. Energiaren Batzorde Nazionalak Agentziaren eta Europako Batzordearen erabaki egoki eta juridikoki lotesleak bete eta praktikan jarri beharko ditu. Energiaren Batzorde Nazionalak Energia Arautzaileen Lankidetzaren irizpena eska dezake, hain zuzen ere, organismo arautzaile batek hartutako edozer erabaki eta 2009/72/EE eta 2009/73/EE Zuzentarauetan edo gas naturala garraiatzeko sareetara sartzeko baldintzei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 715/2009 (EE) Erregelamenduan, 1775/2005 (EE) Erregelamendua indargabetzen duenean, aipatzen diren arauak bateragarriak diren jakiteko.

8. Energiaren Batzorde Nazionalak jardueren urteko txostena igorriko dio Industria, Energia eta Turismo Ministerioari, eta bertan urteko kontuak, antolamendu-egoera, langileei buruzko informazioa eta Batzordean egindako jarduerak jasoko ditu. Horiez gain, bilatutako helburuak eta lortutako emaitzak bilduko ditu. Halaber, jardueren berri emango die eta betebeharrak bete dituen azalduko die Energia Arautzaileen Lankidetzaren Agentziari eta Europako Batzordeari.»

Hogeita hamabost. Hogeita hamabigarren xedapen gehigarria gehitu da. Honela dago idatzita:

«Hogeita hamabigarren xedapen gehigarria. *ENAGAS, SAREN sozietate filialak.*

ENAGAS, SAK ezingo du sistemaren kudeaketa teknikoa, garraioa eta garraio-sarearen kudeaketa ez diren beste jarduerarik egin hogeita hamaikagarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen filialen bidez. Aipatu filial arautuek, gainera, ezingo dute partaidetzarik eskuratu beste helburu sozial bat duten sozietateetan.»

Hogeita hamasei. Hogeita laugarren xedapen iragankorra gehitu da, eta honela dio:

«Hogeita laugarren xedapen iragankorra. *Enbor-sareko garraiolarien jarduerabanaketa.*

Enbor-sareko instalazioen titular diren enpresa garraiolariak 63.3 artikuluan xedatutakoa betetzeko beharrezko egokitzapenak egin beharko dituzte 2012ko urriaren 3a baino lehen.»

## II. TITULUA

### **Telekomunikazioen eta informazioaren gizartearen arloko zenbait zuzentzauren transposizioa egiteari buruzko aldaketak**

**3. artikulua.** *Telekomunikazioei buruzko azaroaren 3ko 32/2003 Lege Orokorra aldatzea.*

Aldatu egin da telekomunikazioei buruzko azaroaren 3ko 32/2003 Lege Orokorra. Honela idatzita geldituko da:

Bat. Aldatu egin da 3. artikulua. Honela egongo da idatzita:

«3. artikulua. *Legearen helburuak eta printzipioak.*

Lege honek ondorengo helburuak eta printzipioak ditu:

a) Lehia efektiboa sustatzea telekomunikazioen merkatuetan, eta, bereziki, sareen ustiapenean, komunikazio elektronikoko zerbitzuak ematean eta horiei lotutako baliabideak hornitzean, sareen ustiapenean edo komunikazio elektronikoko zerbitzuak ematean zein edukien transmisioan faltsutzerik edo lehia-murrizketarik ez dagoela kontrolatuta.



b) Azpiegituren arloan inbertsio eraginkorra sustatzea; horretarako, eta hala dagokionean, azpiegituratan oinarritutako lehia barnean hartzea, eta berrikuntza sustatzea.

c) Sareen ustiapenean zerbitzu publikoaren betebeharrak betetzen direla eta komunikazio elektronikoko zerbitzuak ematen direla bermatzea; batez ere zerbitzu unibertsalekoak.

d) Telekomunikazioen sektorearen garapena sustatzea, baita zerbitzu berrien erabilera eta sareen zabalpena ere. Horretarako, komunikazio elektronikoko sareen eta zerbitzuen muturretik muturrerako konektagarritasuna eta elkarreragingarritasuna, eta horietara berdintasun-baldintzetan sartzea sustatzea, eta lurralde-, ekonomia- eta gizarte-kohesioa bultzatzea.

e) Telekomunikazioen baliabide mugatuak, alegia, zenbakera eta espektror irati-elektrikoa, eraginkortasunez erabiltzea, azken hori behar bezala babestea, eta jabetza publiko eta pribatua okupatzeko eskubideak baliatzea ahalbidetzea.

f) Erabiltzaileen interesak defendatzea, eta horretarako, komunikazio elektronikoko zerbitzuak aukera-, prezio- eta kalitate-baldintzetan eskuratzeko eskubidea bermatzea, azken erabiltzaileek informazioa eskuratu edo banatzea edo aukeratzen dituzten aplikazio eta zerbitzuak erabili ahal izatea sustatzea, eta, horiek ematerakoan, agindu konstituzionalen indarraldia babestea. Hona hemen aginduok: diskriminaziorik eza; ohorerako, intimitaterako, datu pertsonalen babeserako eta komunikazioetako sekreturako eskubideen errespetua; gazte eta haurren babesa; gizarte-talde espezifikoek beharrak aukera-berdintasunaren arabera asetzea; ezgaitasunak dituzten pertsonak, adinekoak, mendekoak eta gizarte-behar bereziak dituzten erabiltzaileak ez diskriminatzea. Horretarako, betebeharrak ezar dakizkieke zerbitzuak ematen dituztenei, eskubideok bermatzeko. Normalizazio teknikoari buruzko arau edo espezifikazio egokiak, Erkidegoko legediarekin bat argitaratutakoak, betetzea sustatuko da, mendeko pertsonak komunikazio elektronikoko zerbitzuak eskuratu ahal izan ditzaten.

g) Neutraltasun teknologikoa sustatzea arauketan, ahal den neurrian.

h) Telekomunikazioetako produktu eta zerbitzuen industriaren garapena sustatzea.

i) Europar Batasuneko komunikazio elektronikoko zerbitzuen barne-merkatua garatzen laguntzea.

j) Ezgaitasunak dituzten erabiltzaileek terminal-ekipamenduak erabiltzea erraztea.»

Bi. 3. paragrafoa erantsi zaio 5. artikuluari eta honako hau dio:

«3. Azken erabiltzaileek zerbitzu eta aplikazioak komunikazio elektronikoko sareen bidez eskuratzeko eta erabiltzeko hartutako neurriek pertsona fisikoen oinarritzko eskubide eta askatasunak errespetatuko dituzte, Giza Eskubideak eta Oinarritzko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenean eta Erkidegoko zuzenbidearen printzipio orokorretan bermatu legez.

Azken erabiltzaileek zerbitzu eta aplikazioak komunikazio elektronikoko sareen bidez eskuratzeko eta erabiltzeko hartutako neurriak, baldin eta oinarritzko eskubide eta askatasun horiek murriztu baditzakete, sozietate demokratiko batean egokiak, neurrikoak eta beharrezkoak badira baino ezingo dira ezarri, eta aplikazioa prozedura-babes egokien mende egongo da, Giza Eskubideak eta Oinarritzko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenarekin eta Erkidegoko zuzenbidearen printzipio orokorrekin bat. Hortaz, errugabetasun-presuntzioaren printzipioa eta bizitza pribaturako eskubidea behar bezala errespetatuta baino ezingo dira hartu neurriok, aurretiazko bidezko prozedura inpartzial baten bidez. Prozeduran, interesdunek esandakoa entzuteko eskubidea errespetatuko da, behar bezala justifikatutako larrialdi-kasuetan egon daitezkeen baldintzei eta prozesu-konponketei kalterik egin gabe, Giza Eskubideak eta Oinarritzko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenarekin bat. Halaber, babes judizial efektiborako eskubidea bermatuko da, bai eta hori denbora-tarte egokian egingo dela ere.»

Hiru. 9. artikulua 1. paragrafoaren a) lerrokada aldatu da eta artikulua berari h), i), j), k) eta l) lerrokadak gehitu zaizkio. Honela egongo dira idatzita:

«a) Maiztasunen eta zenbakien erabilera efektiboa egiaztatzea, bai eta jabari publiko irrati-elektrikoa erabiltzetik, eta zenbakera edo jabari publikoa edo jabetza pribatua okupatzetik eratorritako betebeharrak betetzen direla ere.

(...)

h) Ezgaitasunak dituzten azken erabiltzaileek zerbitzua modu berean eskuratzeko eta, azken erabiltzaile gehienak bezala, eskura dauden enpresa eta zerbitzuak hautatzeko aukera izateko beharrezko betebeharrak betetzen direla egiaztatzea.

i) Komunikazio elektronikoko sare publikoetako elementuak eta lotutako baliabideak kokatzea edo batera erabiltzea erraztera bideratutako neurriak hartzea.

j) Komunikazio elektronikoko sare eta zerbitzuen osotasuna eta segurtasuna ebaluatzea.

k) Sare edo zerbitzuek izango duten bilakaerak enpresek lehiakideen esku jartzen dituzten handizkako zerbitzuetan zer-nolako eragina izango duen jakitea. Halaber, handizkako merkatuetan pisu handia duten enpresei handizkako merkatu horiei lotutako txikizkako merkatuei buruzko kontabilitate-datuak ematea eska dakieke.

l) Komunikazio elektronikoko zerbitzuak emateko edo sareak ustiatzeko ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea.»

Lau. 10. artikulua 2. eta 3. paragrafoak aldatu dira, eta honela idatzita geratuko dira:

«2. Halaber, Lehiaren Batzorde Nazionalak txostena egin ondoren, Europako Batzordeak ezarritako arauak eta Komunikazio Elektronikoen Europako Organismo Arautzaileak (KEEOE) hartutako irizpen eta iritzi komun egokiak kontuan izanik, Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordeak aipatu merkatuen analisia egingo du honako epeetan:

a) Hiru urteko epean, merkatu horri buruzko aurretzeko neurri bat hartu zenetik kontaktzen hasita. Hala ere, salbuespen gisa, epe hori luzatu ahal izango da gehienez ere beste hiru urtez, agintaritzaren nazional arautzaileek zabaltzeko proposamen arrazoitua jakinarazten badiote Batzordeari, eta horrek horri buruzko objektiorik egiten ez badu hilabeteko epean.

b) Bi urteko epean, merkatu garrantzitsuei buruzko gomendio berrikusia hartzen denetik; Batzordeari aurrez jakinarazi gabeko merkatuetarako.

Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordeak ez balu bukatu gomendioan ageri den merkatu garrantzitsu bati buruzko analisia zehaztutako epean barruan, Komunikazio Elektronikotarako Europako Arautzaileen Erakundeak (BEREC) laguntza emango dio, hark eskatuta, merkatu zehatzaren eta ezarri beharreko betebeharrak espezifikoen analisia amaitzeko. Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordeak, laguntzaz baliatuta, neurri-proiektuaren berri emango dio Batzordeari sei hilabeteko epean.

3. Aurreko paragrafoak aipatzen duen analisiaren helburua zera da: erreferentziako merkatuak lehia-ingurune efektiboan garatzen ote diren zehaztea. Ezezkoan, Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordeak aintzat hartutako merkatu bakoitzean botere nabarmena du(t)en operadorea(k) identifikatu eta argitara emango d(it)u.

Operadore batek edo batzuek botere nabarmena du(t)enean erreferentziako merkatu batean (lehen mailako merkatuan), dela banaka, dela elkartuta, aurreko merkatuarekin estuki lotutako erreferentziako merkatu batean (bigarren mailako merkatuan) ere badu(t)ela adierazi ahal izango du Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordeak, bien arteko loturagatik posible denean bigarren mailako merkatuan lehenengoan den pisua izatea, eta ondorioz, operadorearen merkatuan den boterea indartzea.»

Bost. 11. artikulua 2., 3. eta 4. paragrafoak aldatu dira, eta honela idatzita geratuko dira:

«2. Komunikazio elektronikoko sare publikoetako operadoreek elkarren arteko interkonexioa negoziatzeko eskubidea izango dute, baita horretarako betebeharrak

ere, komunikazio elektronikoko beste sare- eta zerbitzu-operadore batzuek eskatzen dutenean, herritarrei komunikazio elektronikoko zerbitzuak emateko helburuarekin. Hartara, zerbitzua ematea eta elkarreragingarritasuna bermatuko dira.

3. Lege honen 13. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordeak merkatuan pisu nabarmena duten enpresen harira har ditzakeen neurriei kalterik egin gabe, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak zerbitzuak elkarreragileak izateko betebeharrak ezar dakizkieke erabiltzaileen sarbidea kontrolatzen duten enpresei, kasu justifikatuetan eta beharrezkoa bada.

4. Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordeak operadoreen arteko harremanetan esku hartu ahal izango du, baita operadoreen eta, kapitulu honetan zehaztutakoarekin bat, sarbide- eta interkonexio-betebeharrei –lege honen II. eranskinean sarbide- eta interkonexio-kontzeptuei ematen zaien definizioarekin bat– onura ateratzen dieten enpresen artekoetan ere, edozer alderdik eskatuta, edo ofizioz, justifikatuta dagoenean, zerbitzuen sarbide-egokitzapena, interkonexioa eta elkarreragingarritasuna sustatzeko, eta, hala badagokio, bermatzeko; baita 3. artikuluan zehaztutako helburuak lortzeko ere. Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordearen erabakia loteslea izango da, eta gehienez ere lau hilabeteko epean hartuko da, aparteko egoeretan izan ezik. Halaber, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak aipatu helburuak lortzeko jardun ahal izango du, betiere, bere eskumenen esparruan.»

Sei. 13. artikulua 1. paragrafoaren a), d) eta e) lerroak aldatu dira, eta honela idatzita geratuko dira:

«a) Gardentasuna, interkonexioari eta sarbideari dagokionez; horiekin bat, operadoreek informazio jakina eman behar dute ezagutzera: kontabilitatea, espezifikazio teknikoak, sareen ezaugarriak, hornidura-baldintzak eta erabilera, baita, hala badagokio, zerbitzu edo aplikazioen sarbidea edo erabilera muga lezaketen baldintzak, eta prezioak ere. Operadore bati sarearen azpiegiturara handizka sartzeari lotutako betebeharrak ezartzen zaizkionean, erreferentziako eskaintza bat argitaratzea eskatuko zaio.»

(...)

d) Sareetako elementu edo baliabide espezifikoetarako sarbidea izatea, baita lotutako baliabide eta zerbitzuetara (identitate-zerbitzuak, kokalekua eta presentzia, esaterako) ere.

e) Prezioak kontrolatzea; esaterako, prezioak orientatzea kostuen arabera, gehiegizko prezioak saihesteko; edo prezioak konprimitzea, azken erabiltzaileen kalterako. Operadoreek hurrengo belaunaldiko sareetan –batez ere– inbertitzea sustatzearen, Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordeak egindako inbertsioak aintzat hartuko ditu, eta, inbertitutako dagokion kapitalaren aldean, arrazoizko errendimendu-tasa ahalbidetuko du.»

Zazpi. Beste paragrafo bat, hirugarrena, gehitu zaio 13. artikuluari. Hau dio:

«3. Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordeak artikulua honetan aurreikusitako betebeharrak ezartzea egokia ote den aztertzen duenean, honako elementu hauek hartu beharko ditu kontuan, batez ere:

a) Euren arteko lehiari diren baliabideak erabiltzearen edo instalatzearen bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa, merkatuaren garapen-erritmoa ikusita, eta interkonexioaren edo sarbidearen izaera edo mota kontuan izanik eta beste aurretiazko sarbide-produktu batzuk barne, esaterako, hodiatarako sarbidea.

b) Proposatutako sarbidea emateko aukera, eskura dagoen ahalmenari dagokionez.

c) Baliabideen jabearen hasierako inbertsioa; egindako inbertsio publikoak eta inbertsioei berezko zaizkien arriskuak ahaztu gabe.

d) Epe luzeko lehia babesteko beharra; arreta berezia jarrita ekonomikoki eraginkorra den lehiari, azpiegiturretan oinarritutakoari.

e) Dagokionean, jabetza intelektualaren arloko eskubideak, eta

f) zerbitzu paneuroparren hornidura.»

Zortzi. Artikulu berri bat, 13 bis, erantsi da, idazkera honekin:

«13 bis artikulua. *Funtzioak bereiztea.*

1. Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordeak ondorioztatzen duenean aurreko artikuluan xedatutakoa betez ezarritako betebeharrak ez direla nahikoak izan lehia efektiboa lortzeko, eta sarbide-produktuen handizkako merkatuekin lotutako lehia-arazo edo akats larri eta iraunkorrek dirautela, jakinaren gainean jarriko ditu Industria, Energia eta Turismo Ministerioa eta Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa. Horiek zera proposatu ahalko diote Gobernuari aparteko betebeharrak gisa: merkatuan botere nabarmena duten egitura bertikaleko operadoreak sarbide-produktuen handizkako hornidurarekin lotutako jarduerak enpresa-unitate burujabe bati pasatzera behartzea. Enpresa-unitate horrek sarbide-produktuz eta -zerbitzuz hornituko ditu enpresak, sozietate nagusiaren beste enpresa-unitate batzuk barne, epe, termino eta baldintza berberetan, zehazki, prezio- eta zerbitzu-mailei dagokienez; baita sistema eta prozesu berberen bidez ere.

2. Gobernuak funtzioak banatzeko betebeharrak inposatzen duenean, Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordeak eta Lehiaren Batzorde Nazionalak txostena egin eta gero, proposamen bat aurkeztuko dio Europako Batzordeari, honako hauek jasota:

a) Ondorioak justifikatzen dituzten frogak.

b) Azpiegituretan oinarritutako lehiarako aukera gutxi dagoela edo aukerarik ez dagoela ziurtatzen duten frogak, arrazoizko epean.

c) Honakoetan aurreikusitako eraginaren analisia: agintaritza arautzailea, enpresa (batez ere, bereizitako enpresako langileei eta komunikazio elektronikoen sektoreari dagokienez), sektorean esku hartzeko pizgarriak (zehazki, gizarte- eta lurralde-kohesioa bermatzeko beharrari dagokienez) eta beste alde interesatu batzuk. Baita azpiegituretako lehiaren gaineko aurreikusitako eragina eta kontsumitzaileen gainean egon daitekeen edozer ondorio ere.

d) Betebeharrak hau identifikatutako lehia-arazoak edo merkatu-akatsak konpontzeko biderik egokiena dela justifikatzen duten arrazoien analisia.

3. Neurri-proiektuak hurrengo elementuak hartuko ditu barnean:

a) Bereizketaren izaera eta maila zehatzak, zehazki zehaztuta bereizitako enpresa-erakundearen estatutu juridikoa.

b) Bereizitako enpresa-erakundearen aktiboen aipamena, baita erakunde horrek hornitu behar dituen produktu edo zerbitzuena ere.

c) Bereizitako enpresa-erakundeak enplegatutako langileen burujabetasuna bermatzeko gobernantza-mekanismoak, eta dagokion pizgarri-egitura.

d) Betebeharrak betetzen direla bermatzeko arauak.

e) Prozedura operatiboen gardentasuna bermatzeko arauak, zehazki, beste alde interesatu batzuei begira.

f) Betetze maila bermatzeko jarraipen-programa, urteko txostena argitaratzea barne.

4. Europako Batzordeak erabakia hartu ondoren, Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordeak sarbide-sarearekin lotutako merkatuen analisi koordinatua egingo du, 10. artikuluan aurreikusitako prozedurarekin bat. Halaber, ebaluazioa oinarri hartuta, dagozkion betebeharrak inposatu, mantendu, aldatu edo kenduko ditu, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak eta Lehiaren Batzorde Nazionalak txostena egin ondoren.

5. Merkatu batean edo batzuetan botere nabarmena duen enpresa batek beste jabe bat duen pertsona juridiko bereizi bati transferitu nahi badizkio tokiko sarbide-sarearen aktiboak edo horien zati handi bat, edo enpresa-erakunde bereizi bat ezarri nahi badu, txikizkako hornitzaile guztiei –bere txikizkako banaketei ere– guztiz baliokideak diren sarbide-produktuak hornitzeko, jakinaren gainean jarri beharko ditu aurrez Industria, Energia eta Turismo Ministerioa, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa eta Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordea. Enpresek xede horren edozer aldaketaren eta bereizketa-prozesuaren azken emaitzaren berri ere emango

diete Industria, Energia eta Turismo Ministerioari, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioari eta Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordeari.

Kasu horretan, Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordeak transakzioek erakunde horri erregelamendu bidez ezarritako betebeharretan izandako eragina aztertuko du, eta sarbide-sarearekin lotutako merkatuen analisi koordinatua egingo du, 10. artikuluan aurreikusitako prozedurarekin bat. Halaber, ebaluazioa oinarri hartuta, dagozkion betebeharrak inposatu, mantendu, aldatu edo kenduko ditu, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak eta Lehiaren Batzorde Nazionalak txostena egin ondoren.

6. Funtzio-bereizketa ezarri zaien edo funtzioak bereiztea erabaki duten enpresak 13. artikuluan adierazitako edozer betebeharren mende egongo dira, erreferentziako edozer merkatutan, baldin eta horietan botere nabarmena badute.»

Bederatzi. Aldatu egin da 14. artikulua 2. paragrafoa. Aurrerantzean, honela egongo da idatzita:

«2. Mugaz haraindiko desadostasuna gertatzen bada bi alderen artean, eta horietako bat Europar Batasuneko beste estatu kide batekoa bada, Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordeak kaltetutako beste agintaritza nazional arautzaile(ar)ekin batera ahaleginak koordinatuko ditu, errege-dekretu bidez zehazten diren terminoetan, auzia konpontzeko helburuarekin; betiere, edozer aldeak hala eskatzen badu.

Auzi horretan eskumenak dituzten agintaritza nazional arautzaileek auzia konpontzeko hartu beharreko neurriei buruzko irizpena egitea eskatu ahal izango diote BERECar.

BERECari eskaeraren berri eman zaionean, auziaren edozer alderdiren gainean eskumena duen edozein agintari nazional arautzailek BERECar irizpena eman arte itxaron beharko du auzia konpontzeko neurririk hartu baino lehen. Dena den, agintaritza nazional arautzaileek presazko neurriak hartu ahal izango dituzte, beharrezkoa izanez gero.

Auzi bat konpontzerakoan, agintaritza nazional arautzaileak enpresari ezarritako edozer betebeharrak BERECar emandako irizpena hartu behar du kontuan, ahal bezain beste.»

Hamar. Aldatu egin da 15. artikulua. Honela egongo da idatzita:

«Industria, Energia eta Turismo Ministerioak Europar Batasunak egingo duen zerrendan identifikatutako arau edo espezifikazio teknikoak erabiltzea sustatuko du, zerbitzuen elkarrengarritasuna bermatzeko eta erabiltzaileen aukera-askatasuna bultzatzeko, bereziki, sarbide- eta interkonexio-alorretan. Aipatu zerrenda oinarri hartuko da komunikazio elektronikoko sareen hornidura, komunikazio elektronikoko zerbitzuak eta lotura duten baliabide eta zerbitzuak bateratzeko.

Arau edo espezifikazio horiek ezean, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak nazioarteko arau edo gomendioak aplikatzea sustatuko du; hain zuzen ere, Telekomunikazioen Nazioarteko Batasunak, Posta eta Telekomunikazioen Administrazioen Europako Konferentziak, Normalizazioko Nazioarteko Batzordeak (ISO) eta Nazioarteko Elektroteknika Batzordeak emandakoak.»

Hamaika. Aldatuko egin dira 16. artikulua 3. eta 6. paragrafoak. Aurrerantzean, honela egongo dira idatzita:

«3. Gobernuari dagokio zenbakera-plan nazionalak onartzea, baita, hala badagokio, helbideratze eta izenenak ere, erakundeek eta nazioarteko foreok hartzen dituzten erabaki aplikagarriak kontuan izanik. Zenbakiak esleitzeko prozedurak eta horiek erabiltzeko baldintzak irekiak, objektiboak, diskriminaziorik gabek, neurrizkoak eta gardenak izango dira.

Emateari buruzko erabakiak eskaera osoa jaso eta gehienez ere hiru asteko epean hartuko, jakinaraziko eta ezagutzera emango dira, konparazio edo lehia bidezko hautaketa prozedurak aplikatzen direnean izan ezik. Kasu horretan, epea gehienez ere sei astekoa izango da, eskaintzak jasotzeko epea amaitzen denetik

kontaktzen hasita. Gehieneko epea berariazko ebazpenik jakinarazi gabe pasatzen bada, eskaera administrazio-isiltasunaren bidez ezetsizat jo ahal izango da.

(...)

6. Telefono-sare publikoak ustiatzen dituzten edo herritarrei telefono-zerbitzuak ematen dizkieten operadoreek telefono-zenbakerearen hein nazionalerara egiten diren deiak bideratu beharko dituzte, eta nazioarteko deiak onartzen dituztenean, berriz, telefono-zenbakerearen Europako espaziora eta nazioarteko beste zenbakera-hein batzuetara egindakoak, zenbakera-plan nazionalerara edo horiek garatzeko xedapenetan zehaztutako terminoetan.

Telefono-sare publikoak ustiatzen dituzten edo herritarrei telefono-zerbitzuak ematen dizkieten operadoreek, baldin eta nazioarteko deiak onartzen badituzte, telefono-zenbakerearen Europako espazioa jatorri edo helmuga duten behar beste deia bideratzeko beharrezko neurriak hartuko dituzte, Erkidegoko beste herrialde batzuk jatorri edo helmuga dituzten deiei aplikatzen zaizkien tankerako tarifak aintzat hartuta.»

Hamabi. Beste lerrokada bat erantsi zaio 16. artikulua 7. paragrafoari, hau dioena:

«Telefono-sare publikoak ustiatzen dituzten edo herritarrei telefono-zerbitzuak ematen dizkieten operadoreek beharrezko neurriak hartuko dituzte, batetik, azken erabiltzaileek zerbitzuak eskuratu eta erabili ahal izan ditzaten zenbaki ez-geografikoak erabilia Europar Batasunean, eta, bestetik, emandako zenbaki guztiak (tartean, estatu kideetako zenbakera-plan nazionalerakoak, telefono-zenbakerearen Europako espaziokoak eta doako deien nazioarteko zenbaki unibertsalak) eskuratu ahal izan ditzaten Europar Batasunean, operadoreak darabiltzan teknologia eta gailuak gorabehera, baldin eta teknikoki eta ekonomikoki posible bada.»

Hamahiru. 16. artikulua 8. paragrafoa erantsi zaio, eta jarraian datorren bezala geratuko da.

«8. Gobernuak zenbait zenbaki edo zenbaki-segida jakinak Europar Batasunaren barruan bateratzea sustatuko du, horrek, aldi berean, barne-merkatuak funtzionatzea eta zerbitzu paneuroparrak garatzea bultzatzen duenean.»

Hamalau. Aldatu egin da 17. artikulua 1. paragrafoa. Aurrerantzean, honela egongo da idatzita:

«Plan nazionalak eta horiek garatzeko xedapenek zenbakiak erabiltzeko zerbitzuak izendatuko dituzte, eta, hala badagokio, helbide eta izenak, zerbitzu horiek ematearekin lotutako edozer eskakizun barne. Halaber, prezioak finkatzeko printzipioak eta kontsumitzaileen babesa bermatzeko aplikatu daitezkeen gehieneko prezioak barnean hartu ahal izango dituzte.»

Hamabost. Aldatu egin da 19. artikulua, eta honela idatzita geratuko da:

«19. artikulua. *Gizarte-balioko Europako zerbitzu bateratuetarako zenbaki bateratuak.*

1. Industria, Energia eta Turismo Ministerioak 116 zenbakitik hasten den zenbakera-heineko zenbaki espezifikoak sustatuko ditu, eta zenbaki horiek erreserbatuta dituzten zerbitzuak ematea bultzatuko du.

2. Industria, Energia eta Turismo Ministerioak ezgaitasunak dituzten azken erabiltzaileek 116 zenbakitik hasten den zenbakera-heinean emandako zerbitzuak eskuratu ahal izateko beharrezko ekimenak egingo dituzte.

3. 116 zenbakitik hasten den zenbakera-heinean emandako zerbitzuak eman behar dituzten agintaritzek herritarrek zerbitzuoi eta horien erabilerari buruzko informazio egokia jasotzen dutela bermatuko dute.»

Hamasei. Aldatu egin da 22. artikulua 1. paragrafoa. Aurrerantzean, honela egongo da idatzita:

«1. Zerbitzu unibertsaltzat ulertzen da azken erabiltzaile guztiek bermatuta duten zerbitzu multzoa, edonon daudela ere, kalitate jakin batekin eta arrazoizko prezioan.

Zerbitzu unibertsalak honako hauek bermatu behar ditu, Gobernuak erregelamendu bidez zehazten dituen termino eta baldintzei jarraiki:

a) Azken erabiltzaile guztiek komunikazio elektronikoko sare publikora konektatu ahal izatea finko batetik; betiere, eskaerak arrazoizkoak badira, erregelamendu bidez zehazten diren terminoetan. Konexioak ahots-, fax-, eta datu-bidezko komunikazioak egiteko aukera eman behar du, Internetera modu funtzionalean sartzeko adina abiadurarekin. Internetera modu funtzionalean sartzeko aukera ematen duen komunikazio-sare publikora konektatzeak banda zabaleko datu-komunikazioak ahalbidetu behar ditu segundoko 1 Mbit-eko beherako abiadura. Gobernuak abiadura hori eguneratu ahal izango du gizartearen, ekonomiaren eta teknologiaren bilakaerarekin bat, erabiltzaile gehienek erabiltzen dituzten zerbitzuak kontuan izanik.

b) Herritarrentzako telefono-zerbitzua emateko arrazoizko eskaera guztiak asetzea, aurreko lerroak aipatutako konexioaren bidez. Konexioak dei nazionalak nahiz nazioartekoak egiteko eta jasotzeko aukera eman behar du.

c) Herritarrentzako telefono-zerbitzuko harpidedunen esku jartzea harpidedunen zenbakien gida orokor bat, dela paperekoa, dela elektronikoa. Urtean behin eguneratu behar da, gutxienez. Aipatu zerbitzuaren azken erabiltzaileen (eta ordaintzeko telefono publikoen erabiltzaileen) esku jartzea, halaber, harpidedunen zenbakiei buruzko informazio orokorreko zerbitzu bat, gutxienez. Herritarrentzako telefono-zerbitzuko harpidedun guztiek aipatu gidan agertzeko eskubidea izango dute. Dena dela, datu pertsonalen babesa eta intimitaterako eskubidea arautzen dituzten arauak errespetatuko dira beti.

d) Ordaintzeko telefono publikoen edo ahozko telefoniarako bestelako sarbide-puntu publikoen eskaintza nahikoa egotea lurraldean. Eskaintza horrek azken erabiltzaileen beharrak ase behar ditu, estaldura geografikoari, gailu edo bestelako sarbide-puntuen kopuruari, ezgaitasunak dituzten erabiltzaileen irigarritasunari eta zerbitzuen kalitateari dagokienez. Horrez gain, ordaintzeko telefono publikoetatik larrialdietako deiak egin ahal izatea ezer ordaindu behar izan gabe, 112 larrialdietako deietarako zenbaki bakarra eta Espainiako larrialdietako beste zenbaki batzuk erabilia.

e) Ezgaitasunak dituzten azken erabiltzaileak paragrafo honen b), c) eta d) lerroketan adierazitako zerbitzuak eskuratu ahal izatea beste azken erabiltzaile batzuen maila baliokidean.

f) Pertsona fisiko diren kontsumitzaileei merkataritza-ustiapenaren baldintza normaletan aplikatzen direnetatik bereizten diren tarifa-aukerak edo -paketeak eskaintzea, modu garden eta publikoan eta diskriminaziorik gabe. Horren helburua gizarte-behar bereziak dituzten pertsonak sarera sartzeko eta zerbitzu unibertsalaren kontzeptua osatzen duten zerbitzuak eskuratzeko aukera izatea bermatzea da. Bidezko denean, prezio-mugak, tarifa-komunak, parekatze geografikoa eta antzeko beste araubide batzuk aplikatu dakizkieke artikuluko honetan sartutako prestazioei, xede berarekin.

Industria, Energia eta Turismo Ministerioak zerbitzu unibertsalaren parte diren kontzeptuen herritarrentzako tarifen bilakaera eta maila gainbegiratuko ditu, bai izendatutako operadoreak ematen dituenak, bai merkatuan eskuragarri daudenak –ez bada operadorerik izendatu zerbitzu horietarako–, zehazki, kontsumoko prezioen eta errenten maila nazionaleri dagokienez.»

Hamazazpi. 3., 4. eta 5. paragrafoak gehitu zaizkio 23. artikuluari. Hau diote:

«3. Zerbitzu unibertsala emateko izendatutako operadoreak beste jabe bat duen pertsona juridiko bereizi bati tokiko sarbide-sareko aktibo batzuk edo guztiak eman nahi dizkionean, jakinaren gainean jarriko du aurrez Industria, Energia eta Turismo Ministerioa, aurreikusitako eragiketarako kokapen finkotik eskuraten den horniduran eta telefono-zerbitzua ematean izango duen eragina ebaluatzeko helburuarekin, 22. artikuluaekin bat. Aipatu ministerioak, egindako ebaluazioaren

ondorioz, betebeharrak espezifikoko ezarri, aldatu eta kendu ahal izango dizkio izendatutako operadoreari.

4. Industria, Energia eta Turismo Ministerioak errendimendu-helburuak ezarri ahal izango ditu, baita zerbitzu unibertsala emateko izendatutako operadoreari edo operadoreei aplikatu ere.

5. Industria, Energia eta Turismo Ministerioak zerbitzu unibertsalaren betebeharrak betetzeko izendatutako operadoreari edo operadoreei ezarritako zerbitzu unibertsalaren betebeharrak jakinaraziko dizkio Europako Batzordeari, baita betebeharrak horiekin edo izendatutako operadorearekin edo operadoreekin lotutako aldaketak ere.

Hemezortzi. Aldatu egin da 25. artikulua 4. paragrafoa. Aurrerantzean, honela egongo da idatzita:

«4. Nolanahi ere, herritarrei komunikazio elektronikoko zerbitzuak ematen dizkieten operadoreek eta komunikazio elektronikoko sare publikoak ustiatzen dituzten bideratu beharko dizkiete deiak larrialdietako zerbitzuei, inolako ordain ekonomikorik gabe bideratu gainera. Betebeharrak hori aipatu operadoreei ezarriko zaie, 112 larrialdietako arretarako telefono-zenbakira eta errege-dekretu bidez zehazten diren bideratutako deiak aintzat hartuta, ordaintzeko telefono publikoetatik egiten direnak barne. Kasu horietan ez da beharrezkoa izango ordainketa-modurik erabiltzea.

Nolanahi ere, larrialdietako dei-zerbitzua doakoa izango da erabiltzaileentzat, horiek emateko ardura duen administrazio publikoari eta erabiltzeko terminal motari erreparatu gabe.

Halaber, dei horien jatorriaren kokapenari buruzko informazioa dei horiek jasoko dituzten agintaritzaren eskura doan jartzeko baldintzak ezarriko dira.

Larrialdi-zerbitzuetara deitzen duten pertsonen kokapenari buruzko informazioaren zehaztasun- eta fidagarritasun-irizpideak erregulatu bidez zehaztuko dira.

Ezgaitasunak dituzten azken erabiltzaileek beste azken erabiltzaile batzuk bezalaxe eskuratu ahal izango dituzte larrialdi-zerbitzuak.

112 zerbitzuak emateko ardura duten agintaritzek zenbaki horri eta hori erabiltzeko buruz herritarrek informazio egokia jasotzen dutela ziurtatuko dute, Erkidegoko herrialdeetara bidaiatzen duten pertsonen zuzendutako ekimen espezifikoen bidez.»

Hemeretzi. Aldatu egin da 29. artikulua 1. paragrafoaren 2. lerroa; honela geratu da idatzita:

«Baldintza edo muga horiek, gardenak eta ez-diskriminatzaileak izan behar dutenek, ezingo diote murrizketa absoluturik ezarri operadoreek jabari publikoa eta pribatua okupatzeko duten eskubideari. Horren harira, baldintzak jabari publikoa edo jabetza pribatua ezin okupatzea badakar, baldintza hori ezartzeaz gain, beste aukera batzuk proposatu beharko dira (horien artean, azpiegiturak batera erabiltzea), operadoreek okupatzeko duten eskubidea eta baldintza-berdintasunean aritzea bermatzearen.»

Hogei. Aldatu egin da 29. artikulua 2. paragrafoaren b) lerroa. Aurrerantzean, honela egongo da idatzita:

«b) Okupazio-eskaerak ebazteko prozedura azkar, soil, eraginkor eta ez-diskriminatzaile bat aurreikusteak. Prozedura ezingo da sei hilabete baino gehiago luzatu, eskaera aurkezten denetik aurrera kontatzen hasita, desjabetzeetan izan ezik.»

Hogeita bat. Aldatu egin da legearen 29. artikulua 3. paragrafoa. Aurrerantzean honela egongo da idatzita:

«3. Artikulu honek aipatzen duen jabari publikoa erregulatu duten administrazio publikoek edo horren titular direnek, baldin eta komunikazio elektronikoko sare publikoak edo herritarrentzako komunikazio elektronikoko zerbitzuak ustiatzen dituen operadoreen jabe badira edo horiek kontrolatzen



badituzte, dela zuzenean, dela zeharka, aipatu operadoreen eta eskubide horiek erregulatzeaz eta kudeatzeaz arduratzen diren organoen arteko egitura-bereizketari eutsi beharko diote.»

Hogeita bi. Aldatu egin da 30. artikulua 1. paragrafoa. Aurrerantzean, honela egongo da idatzita:

«1. Operadoreek jabetza publikoa edo pribatua okupatzeko eskubidea dutenean, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak komunikazio elektronikoko sare publikoak ezarriko diren jabari publikoen edo jabetza pribatuaren erabilera partekatua ezarri ahalko du, edo, bestela, azpiegituren eta lotutako baliabideen erabilera partekatua, betiere entzunaldi publikoko alde aurretiko izapidea egin ostean.»

Hogeita hiru. 30. artikulua 5. paragrafoa erantsi zaio, eta honela dio:

«5. Artikulu honekin bat hartutako neurriek objektiboak, gardenak, ez-diskriminatzaileak eta neurrikoak izan behar dute. Neurriok tokiko agintaritzekin koordinatuta aplikatuko dira, hala dagokionean.»

Hogeita lau. Aldatu egin da 34. artikulua. Aurrerantzean, honela egongo da idatzita:

«34. artikulua. *Datu pertsonalak babestea.*

1. Komunikazio elektronikoko sare publikoak ustiatzen dituzten edo herritarrei komunikazio elektronikoko zerbitzuak (datuak identifikatzeko eta biltzeko gailuen euskarri diren komunikazio sare-publikoak barne) ematen dizkieten operadoreek datu pertsonalak babestu behar dituzte beren lanean dihardutenean, indarrean den legediarekin bat, 4. artikulua 6. paragrafoan, aurreko artikulua 2. lerrokadan eta aplikagarri den gainerako araudi espezifikoan aurreikusitakoari kalterik egin gabe.

2. Aurreko paragrafoak aipatzen dituen operadoreek sarea ustiatzeko edo zerbitzuak emateko segurtasunari eusteko teknika eta kudeaketako neurri egokiak hartu beharko dituzte, datu pertsonalak babesteko mailak bermatzeko; hain zuzen ere, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta hura garatzeko araudiak, eta, hala badagokio, lege hau garatzerakoan eman daitezkeenek exijitzen dituztenak bermatzeko. Neurriok honako hauek hartuko dituzte barnean, gutxienez:

a) Baimendutako pertsonak baino ez dutela datu pertsonaletarako sarbidea izango bermatzea, eta betiere, legeak baimenduriko helburuetarako.

b) Ustekabean edo legez kontra suntsitu, nahi gabe galdu edo aldatu, edo baimenik gabe edo legez kontra gorde, tratatu, kontsultatu edo argitu ondoren gordetako edo transmititutako datu pertsonalak babestea.

c) Datu pertsonalak tratatzeari dagokionez, segurtasun-politika bat eraginkortasunez aplikatuko delako bermea.

3. Sare publikoaren edo komunikazio elektronikoko zerbitzuaren segurtasuna urratuko delako arriskurik bada, sare hori ustiatzen duen edo komunikazio elektronikoko ematen dituen operadoreak aipatu arriskuaren eta hartu beharreko neurrien berri emango die harpidedunei.

4. Datu pertsonalak urratzen badira, herritarrentzako komunikazio elektronikoko zerbitzuen operadoreak urraketa horren berri emango dio Datuak Babesteko Espainiako Agentziari, atzerapenik gabe. Datu-urraketa harpidedun edo partikular baten intimitateari edo datu pertsonalei modu negatiboan eragin badiezaieke, urraketa horren berri emango die, halaber, harpidedunari edo partikularrari, atzerapenik gabe.

Ez zaio harpidedun edo partikular bati datu pertsonalen urraketa berri eman behar hornitzaileak, agintaritza eskudunak eskatuta, babes teknologikoko neurri egokiak aplikatu dituela eta horiek segurtasun-urraketa kaltetutako datuei aplikatu zaizkiela frogatzen badu. Mota horretako babes-neurriek ulergaitz bihurtzen dituzte datuak, horiek kontsultatzeko baimenik ez dutenentzat.

Hornitzaileak ez badio harpidedunari edo partikularrari datu pertsonalen urraketa berri eman, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak hori egitera behar

dezake, urraketaren ondorio negatiboak ebaluatu ostean, hornitzaileak kaltetutako harpidedun edo partikularrei jakinarazteko duen betebeharrari kalerik egin gabe.

Datu pertsonalen urraketa zer-nolakoa izan den eta informazio gehiago lortzeko zer harreman-puntu dauden jakinaraziko zaio harpidedunari edo partikularrari, gutxienez, eta urraketa horren eragin negatiboak arintzeko neurriak gomendatuko dira. Datuak Babesteko Espainiako Agentziari egin beharreko jakinarazpenean urraketaren ondorioak eta datu pertsonalen urraketaren harira hornitzaileak proposatutako edo hartutako neurriak deskribatuko dira.

Operadoreek datu pertsonalen urraketan inbentarioa egin beharko dute, arau-hauste horiekin lotutako egintzak, ondorioak eta horren harira hartu beharreko neurriak barne. Inbentarioak aukera eman behar dio Datuak Babesteko Espainiako Agentziari paragrafo honetan araututako jakinarazpen-betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko. Errege-dekretu bidez ezarri ahal izango da inbentarioaren formatua eta edukia.

Artikulu honetan zehaztutako ondorioetarako, honakoak hartuko dira datu pertsonalen urraketatzat: segurtasuna urratzea, baldin eta transmititutako, biltegitratutako edo herritarrentzako komunikazio elektronikoko zerbitzua ematearekin lotuta beste modu batera tratatutako datu pertsonalak suntsitzea, ustekabea edo legez kontra, galtzea, aldatzea, argitzea edo baimenik gabe kontsultatzea ekar badezake.

5. Operadoreek barne-prozedurak ezarriko dituzte legez baimendutako agintaritzek erabiltzaileen datu pertsonaletara sartzeko egiten dituzten eskaerei erantzuteko. Prozedura horiei, jasotako eskaera kopuruari, argudiatutako arrazoi juridikoei eta eskainitako erantzunari buruzko informazioa emango die agintaritzak eskudunei, eskaera egin ondoren.»

Hogeita bost. Beste artikulu bat, 36 bis, erantsi da, idazkera honekin:

«36. artikulua. *Komunikazio elektronikoko sareen eta zerbitzuen osotasuna eta segurtasuna.*

1. Herritarrentzako komunikazio elektronikoko sareen eta zerbitzuen operadoreek beren sare eta zerbitzuak kalte ditzaketen segurtasun-arriskuak kudeatuko dituzte behar bezala, segurtasun maila egokia bermatzeko eta segurtasun-gertakariak erabiltzaileengan eta interkonektatutako sareetan izan dezaketen eragina saihesteko edo ahal bezain beste murrizteko.

2. Halaber, komunikazio elektronikoko sare publikoen operadoreek horien osotasuna bermatuko dute, sare horiek erabiltzen dituzten zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko.

3. Herritarrentzako komunikazio elektronikoko sareak ustiatzen dituzten edo zerbitzuak ematen dituzten operadoreek segurtasun-urraketen edo osotasun-galeren berri emango diote Industria, Energia eta Turismo Ministerioari, baldin eta sareen edo zerbitzuen ustiapenean eragin nabarmena izan badute. Hala dagokionean, Ministerioak beste estatu kide batzuetako agintaritzak nazional eskudunak eta Sareen eta Informazioaren Segurtasunaren Europako Agentzia (ENISA) informatuko ditu. Orobat herritarrak informatuko ditu, edo enpresak hori egitera behartuko ditu, urraketa jakinarazteak interes publikoa duela uste denean. Ministerioak jasotako jakinarazpenei eta paragrafo honekin bat hartutako neurri buruzko laburpen-txostena aurkeztuko die urtean behin Batzordeari eta ENISARI.

4. Industria, Energia eta Turismo Ministerioak aurreko betebeharrak betetzen direla bermatzeko mekanismoak ezarriko ditu erregelamendu bidez, eta, hala badagokio, jarraibideak –operadoreentzako lotesleak direnak– emango ditu, aplikatzeko azken egunei buruzkoak barne, komunikazio elektronikoko sareen eta zerbitzuen osotasunari eta segurtasunari buruzko zenbait neurri har ditzaten. Horien artean, honako hauek ezarri ahal izango ditu:

a) Zerbitzu eta sareen segurtasuna eta osotasuna ebaluatzeko beharrezko informazioa, segurtasun-politikei buruzko dokumentuak barne, emateko betebeharra.

b) Organismo burujabe batek edo agintaritzak eskudun batek egindako segurtasun-ikuskaritza egiteko eta emaitza Industria, Energia eta Turismo

Ministerioaren esku jartzeko betebeharra. Operadoreak ordainduko du ikuskaritzaren kostua.

5. Zehazki, operadoreek herritarrentzako telefono-zerbitzuen ahalik eta erabilgarritasun handiena bermatuko dute, komunikazioen sare publikoen bitartez, sareak, zoritxarrez, huts egiten badu edo ezinbesteko kasuetan, eta larrialdietako zerbitzuak etenik gabe eskuratzeko beharrezko neurriak hartuko dituzte.

6. Artikulu hau ulertzen da lege honen 4. artikulua 4. paragrafoan zehaztutakoari kalterik egin gabe.»

Hogeita sei 37. artikulua 1. paragrafoari beste lerrokada bat gehitu zaio, eta jarraian datorren bezala geratuko da.

«Komunikazio elektronikoen azpiegitura komunei buruzko araudia aplikagarri ez denetan, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak betebeharrak objektiboak, gardenak, proportzionatuak eta ez-diskriminaziozkoak ezar dakizkieke operadoreei eta baliabideen jabeei, jendaurrean jartzeko izapidea egin ondoren. Betebeharrak eraikinen barnetik igarotzen diren (edo lehendabiziko metatze- edo banaketa-punturaino, eraikinen kanpoaldean kokatuta badago) sarbide-sareen amaierako zatien erabilera partekatuari buruzkoak izango dira, eta azpiegitura hori bitan edukitzea ekonomikoki eraginkorra ez denean edo fisikoki egin ez daitekeenean aplikatuko dira.»

Hogeita zazpi. Aldatu egin da 38. artikulua 1. paragrafoa. Aurrerantzean, honela egongo da idatzita:

«Komunikazio elektronikoen sareak ustiatzen dituzten edo zerbitzuak ematen dituzten operadoreak, eta pertsona fisiko diren kontsumitzaileak eta azken erabiltzaileak desadostasunen berri eman ahal izango diete kontsumoko arbitraje-batzordeei, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteari buruz indarrean den legediarekin bat.

Ez badira kontsumoko arbitraje-batzordeen mende jartzen edo horiek ez badute auzia konpontzeko eskumenik, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak prozedura bat ezarriko du erregelamendu bidez. Horren arabera, pertsona fisiko diren azken kontsumitzaileak bere mende jarri ahal izango dituzte desadostasunak, komunikazio elektronikoko zerbitzuen azken kontsumitzaile gisa dituzten eskubide espezifikoak buruzkoak. Nolanahi ere, prozedurak gardena, ez-diskriminaziozkoa, soila, azkarra eta doakoa izan behar du, eta berariazko ebazpena jakinarazteko gutxienezko epea ezarriko da. Epe hori pasata, erreklamazioa administrazio-isiltasunaren bidez ezetsizat jo ahal izango da. Ebazpenaren kontra egin daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.»

Hogeita zortzi. Aldatu egin dira 38. artikulua 2. paragrafoaren b), f) eta h) lerroek. Aurrerantzean, honela egongo dira idatzita:

«b) Azken erabiltzaileen informazio-eskubideak. Informazioak egiazkoa, eraginkorra, nahikoa, gardena, konparagarria eta eguneratua izan behar du.

(...)

f) Azken erabiltzaileak eta herritarrentzako komunikazio elektronikoko sareak ustiatzen edo zerbitzuak ematen dituzten operadoreak kontratuak sinatzeko eskubidea.

(...)

h) Kontratuak zigorrik gabe deuseztatzeko eskubidea, komunikazio elektronikoko sareen edo zerbitzuen enpresa hornitzaileak kontratu-baldintzak aldatzeko proposamenak jakinarazten dizkietenean. Baldintzak aldatzen badira, behar bezala jakinarazi behar zaie harpidedunei, gutxienez hilabete lehenago. Gainera, baldintza berriak onartzen ez badituzte, kontratuak zigorrik gabe deusezta ditzaketela adieraziko zaie. Industria, Energia eta Turismo Ministerioak jakinarazpen mota honen formatua zehaztu ahal izango du.»

Hogeita bederatzia. l) eta m) lerroek gehitu zaizkio 38. artikulua 2. paragrafoari, eta honela dio:

«l) Larrialdietako zerbitzuak doan eta ordainketa-biderik erabili beharrik izan gabe eskuratzeko eskubidea.

m) Gehienez ere lanegun bateko epean, operadorez aldatzeko eskubidea, baita telefono-zenbakeraren plan nazionalako zenbakiak mantentzekoa ere, hala aurreikusten den kasuetan. Operadoreek edo horien izenean diharduen beste norbaitek zenbakiak mantentzea atzeratzen badute edo gehiegikeriaz mantentzen badituzte, harpidedunek ordaina jaso ahal izango dute, errege-dekretu bidez zehaztutako terminoetan. Kontratuak ezeztatzeko baldintzak eta prozedurak ez dira operadorez aldatzeko disuasio-faktore izango.»

Hogeita hamar. 38. artikulua 3. paragrafoaren b) eta h) lerroak aldatu dira, eta honela idatzita geratuko dira:

«b) Beren trafikoko datuak merkataritza-xedeetarako edo balio erantsia duten zerbitzuak emateko erabiltzea, soilik horretarako baimena eman badute aurrez.

(...)

h) Dei eta komunikazio elektronikokoak ez jasotzea, horiek pertsona batek egin ez baditu; edo zuzenean saltzeko helburua duten faxak jasotzea, horretarako baimena eman ez badute aurrez.»

Hogeita hamaika. Bi lerroak berri erantsi dira 38. artikulua 6. paragrafoaren amaieran. Hau diote:

«Azken erabiltzaileak harpidedun kopuruari buruzko informazioa izateko eskubidea bermatzen da. Horretarako, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak harpidedun-kopuruari buruzko informazio-zerbitzuak emateari buruzko betebeharrak eta baldintzak ezar dakizkieke azken erabiltzaileen sarbidea kontrolatzen duten enpresei.

Industria, Energia eta Turismo Ministerioak azken erabiltzaileek Erkidegoko beste herrialde bateko harpidedun-kopuruari buruzko informazioa ahots-dei edo SMS bidez jasotzea bermatzeko neurriak hartuko ditu, baldin eta teknikoki eta ekonomikoki posible bada.»

Hogeita hamabi. 38. artikulua 9., 10. eta 11. paragrafoak erantsi zaizkio, eta jarraian datorren bezala geratuko dira.

«9. Ezgaitasunak dituzten pertsonen komunikazio elektronikoen lotutako teknologiak, produktuak eta zerbitzuak eskuratu ahal izateko oinarriko baldintzak zehaztu ahal izango dira, errege-dekretu bidez. Aipatu arauan, operadoreek bete behar dituzten betekizunak zehaztuko dira; hain zuzen ere, ezgaitasunak dituzten erabiltzaileek honako hauek izatea bermatzeko:

a) Komunikazio elektronikoko zerbitzuak, azken erabiltzaile gehienek dituztenen baliokideak, eskuratu ahal izatea.

b) Azken erabiltzaile gehienentzat eskuragarri dauden enpresa eta zerbitzuak aukeratu ahal izatea.

10. Industria, Energia eta Turismo ministroaren aginduz, zerbitzuaren gutxieneko kalitate-baldintzak ezarri ahal izango dira, baita, hala dagokionean, komunikazio elektronikoko sare publikoen operadorei exijitu ere, zerbitzua narriatzea eta sareetako zirkulazioa oztopatzea edo moteltzea saihesteko, errege-dekretu bidez zehazten diren prozedurekin bat.

Industria, Energia eta Turismo Ministerioak jarduteko arrazoiak, aurreikusitako baldintzen eta proposatutako jardura-ildoaren laburpena jakinaraziko dio Europako Batzordeari, aipatu betekizunak zehaztu baino lehen, egoki denean. Komunikazio Elektronikoen Europako Batzorde Arautzaileen esku ere jarriko da informazio hori.

Halaber, kalitate-parametroak, kuantifikatu beharrekoak, eta kalitatea egiaztatzeko mekanismoak zehaztu ahal izango dira, azken erabiltzaileek –ezgaitasunak dituzten azken erabiltzaileak barne– kontsultatzen erraza den informazio osoa, alderagarria eta fidagarria eskuratu ahal izan dezaten.

11. Industria, Energia eta Turismo Ministerioak zenbakiak edo zerbitzuak eskuratzeko blokeatzeko exiji diezaieke komunikazio elektronikoko sare publikoen

operadoreei edo herritarrentzako komunikazio elektronikoko zerbitzuen operadoreei, errege-dekretu bidez zehaztutako baldintzetan, kasu bakoitza aurrez aztertu ondoren, baldin eta iruzurra edo erabilera okerra direla-eta justifikatuta badago, eta baldin eta kasu horietan komunikazio elektronikoko zerbitzuak ematen dituztenek interkonexioagatiko eta beste zerbitzu batzuegatiko diru-sarrerak atxikitzen badituzte. Ezingo da lege honen aplikazio-eremuaren barruan ez dagoen zerbitzurik blokeatu paragrafo honen babesean, esaterako, informazioaren gizarteko eta merkataritza elektronikoko zerbitzuei buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legean araututako informazioaren gizarteko zerbitzuak.»

Hogeita hamahiru. 38 bis artikulua gehitu da, eta honako hau dio:

«38 bis artikulua. *Kontratuak.*

Azken erabiltzaileen eta herritarrentzako komunikazio elektronikoko sareak ustiatzen edo zerbitzuak ematen dituzten operadoreen artean sinatutako kontratuek honako hauek bildu beharko dituzte, gutxienez, argi eta garbi, ulertzeko moduan eta eskuratzeko erraz:

1. Emandako zerbitzuak, honako hauek barne:

a) Larrialdietako zerbitzuak eta deia egiten duten pertsonen kokapenari buruzko informazioa eskuratzeko aukera dagoen edo ez, baita larrialdietako zerbitzuak emateko beste edozer muga ere.

b) Zerbitzuak eta aplikazioak eskuratzea edo horiek erabiltzea mugatzen duen beste edozer baldintzari buruzko informazioa.

c) Eskaintzen diren zerbitzuen gutxieneko kalitate mailak; zehazki, hasierako konexioa egiteko epea, eta, hala badagokio, erregelamendu bidez zehaztutako zerbitzu-kalitatearen parametroak.

d) Sarearen lotunea agortu edo asetzea saiheste aldera, enpresak zirkulazioa neurtzeko eta kudeatzeko zehaztutako edozer prozedurari buruzko informazioa, baita prozedurok zerbitzuaren kalitateari zer-nola eragin diezaioketen ere.

e) Eskaintako mantentze motak eta bezeroari emandako laguntza-zerbitzuak, baita zerbitzu horiekin harremanetan jartzeko bideak ere.

f) Hornitzaileak ezarritako edozer murrizketa, hornitutako terminal-ekipamendua erabiltzeko aukerei dagokienez.

2. Harpidedunak bere datu pertsonalak gida zehatz batean sartzeko aukerari buruzko erabakia, eta dagozkion datuak.

3. Kontratuaren iraupena, eta kontratua berritzeko, zerbitzuak amaitzeko eta kontratua ezeztatzeko baldintzak, honakoak barne:

a) Sustapenak aprobetxatzeko gutxieneko erabilerak edo iraupenak.

b) Zenbakiari eta bestelako identifikatzaileei eusteko erlazionatutako gastu guztiak.

c) Kontratua ezeztearekin erlazionatutako gastu guztiak, terminal-ekipamenduekin lotutako kostu-berreskurapena barne.

4. Auzia konpontzeko prozedurei hasiera emateko modua, 38. artikuluaekin bat.

5. Segurtasuna edo osotasuna urratuz gero edo mehatxurik edo urraketarik egonez gero, enpresak har ditzakeen neurri motak.

6. Kontratuek komunikazio elektronikoko sareak eta zerbitzuak legez kontra jarduteko edo eduki kaltegarria zabaltzeko erabiltzeari buruz agintaritza eskudunak emandako informazioa barnean hartu behar izatea zehaztu ahal izango da errege-dekretu bidez, baita segurtasun pertsonalerako, pribatutasunerako eta datu pertsonaletarako arriskuen aurrean babesteko neurriei buruz ere, emandako zerbitzurako egoki badira.»

Hogeita hamalau. 38 ter artikulua gehitu da, eta honako hau dio:

«38 ter artikulua. *Gardentasuna eta informazioa argitaratzea.*

1. Komunikazio elektronikoko sare publikoen operadoreek edo herritarrentzako komunikazio elektronikoko zerbitzuen operadoreek aplikagarri diren prezio eta tarifei buruzko informazio garden, alderagarri, egoki eta eguneratua, kontratua amaitzearekin lotutako gastuei buruzko informazioa eta azken erabiltzaileei ematen dieten zerbitzuak eskuratu eta erabiltzeari buruzko informazioa argitaratzeko baldintzak zehaztu ahal izango dituzte erregelamendu bidez. Argitaratuko informazioa argia eta ulergarria izango da, eta erraz eskuratzeko modukoa.

2. Industria, Energia eta Turismo Ministerioak informazio alderagarria zabaltzea sustatuko du, azken erabiltzaileek erabilera-modalitate alternatiboen kostuaren ebaluazio burujabea egin ahal izan dezaten, esaterako, gida alternatiboen edo antzeko tekniken bitartez. Gainera, komunikazio elektronikoko sare publikoen operadoreek edo herritarrentzako komunikazio elektronikoko zerbitzuen operadoreek argitaratzen duten informazioa hirugarrenek doan erabili ahal izateko baldintzak arautuko ditu, gida alternatiboak edo antzeko teknikak saltzeko edo horiek erabiltzea ahalbidetzeko.

3. Komunikazio elektronikoko sare publikoen operadoreek edo herritarrentzako komunikazio elektronikoko zerbitzuen operadoreek honako hauek egitea bermatzeko baldintzak arautu ahal izango dira errege-dekretu bidez:

a) Harpidedunei prezio-baldintza espezifikoaren mende dauden zenbaki edo zerbitzuekin lotutako tarifa aplikagarrii buruzko informazioa ematea, zerbitzuko kategoria bakoitzari dagokionez. Informazio hori deiak egin baino lehen ematea exiji daiteke.

b) Harpidedunei larrialdietako zerbitzuetarako sarbide aldaketa orenen edo deiak egiten dituzten pertsonen kokalekuari buruzko informazioaren aldaketa orenen berri ematea.

c) Zerbitzuak eta aplikazioak erabiltzea mugatzen duten baldintzetan izandako aldaketen berri ematea harpidedunei.

d) Sarearen lotunea agortu edo asetzea saiheste aldera, hornitzaileak zirkulazioa neurtzeko eta kudeatzeko zehaztutako edozer prozedurari buruzko informazioa ematea, baita prozedurok zerbitzuaren kalitateari zer-nola eragin diezaioketen azaltzea ere.

e) Harpidedunei beren datu pertsonalak gida batean sartu nahi dituzten erabakitzeko eskubidearen eta datu moten berri ematea.

f) Ezgaitasunak dituzten harpidedunei haiei zuzendutako produktuei eta zerbitzuei buruzko informazio xehatua ematea aldiro.

4. Industria, Energia eta Turismo Ministerioak harpidedun zahar zein berriei interes publikoko informazioa doan eta formatu jakin batekin zabaltzea eskatu ahal izango die komunikazio elektronikoko sare publikoen operadoreei edo herritarrentzako komunikazio elektronikoko zerbitzuen operadoreei, hala badagokio, horiek harpidedunekin harremanetan jartzeko erabiltzen dituzten bideen bitartez. Honako hau jakinaraziko da:

a) Legez kontra jarduteko edo eduki kaltegarriak zabaltzeko komunikazio elektronikoko zerbitzuak zer-nola erabili ohi diren, zehazki, hirugarrenen eskubide eta askatasunen kontra doanean, egile-eskubideak eta antzekoak urratzea barne, baita zer ondorio juridiko dauden ere.

b) Komunikazio elektronikoko zerbitzuak erabiltzerakoan egon daitezkeen segurtasun personalerako, pribatutasunerako eta datu pertsonaletarako arriskuen aurka babesteko zer bide dauden.»

Hogeita hamabost. Aldatu egin da 43. artikulua 4. paragrafoaren a) lerrokada. Aurrerantzean, honela egongo da idatzita:

«a) Industria, Energia eta Turismo Ministerioak jabari publiko irrati-elektrikoa modu pribatiboan erabiltzeko eskubideak eman ahal izango ditu, espektro irrati-elektrikoaren erabilera eraginkorra bermatzeko, interferentzia kaltegarriak

saihesteko, zerbitzuaren kalitate teknikoa bermatzeko edo interes orokorreko beste helburu batzuk lortzeko beharrezkoa denean. Eskubideok erregelamendu bidez zehaztuko diren epeetarako emango dira, eta epe horiek berritu ahal izango dira aipatu jabari publikoaren plangintzaren aukeren eta aurreikuspenen arabera. Zenbaki-mugarik gabe modu pribatiboan erabiltzeko eskubideak indarraldiaren bosgarren urtea betetzen den urte naturaleko abenduaren 31n amaituko den eperako emango dira, eta bost urteko epeetan luzatu ahal izango dira. Zenbaki-mugarekin modu pribatiboan erabiltzeko eskubideek helburuari dagokion zerbitzuarekin bat datorren iraupena izango dute, inbertsioen amortizazioa kontuan izanda. Nolanahi ere, lizitazio-prozeduratan aurreikusitako iraupena ez da hogeit egun berrigarri baino gehiagokoa izango.»

Hogeita hamasei. 5., 6., 7., 8. eta 9. paragrafoak gehitu zaizkio 43. artikuluari. Honelaxe diote:

«5. Jabari publiko irrati-elektrikoa kudeatzerakoan aintzat hartuko dira, batetik, duen gizarte-, kultura- eta ekonomia-balioa, eta, bestetik, Europar Batasuneko beste estatu kide batzuekin eta Batzordearekin lankidetzan aritzeko beharra Europar Batasuneko espekto irrati-elektrikoaren erabilera estrategikoki planifikatzeko, koordinatzeko eta bateratzeko. Lankidetzaren horren barruan, Europar Batasuneko espekto irrati-elektrikoari buruzko ikuspuntu politikoak koordinatzea sustatuko da, eta, hala dagokionean, komunikazio elektronikoko barne-merkatua sortzeko eta horrek funtzionatzeko beharrezko baldintzak bateratzea. Horretarako, Europar Batasunaren politiken hainbat alderdi hartuko dira kontuan, tartean, segurtasunari, osasunari, interes publikoari, adierazpen-askatasunari, kulturari, zientziari, gizarteari eta teknikari buruzkoak, baita espekto erabiltzaile-komunitateen interesak ere. Gainera, aintzat hartuko dira beti irrati-maiztasunen erabilera eraginkorra bermatzeko beharra, kontsumitzaileentzako onurak, eskalako ekonomia egitea eta zerbitzuen elkarrengarritasuna.

6. Maiztasunak Esleitzeko Koadro Nazionalaren arabera, komunikazio elektronikoko zerbitzuetarako erabilgarri dauden irrati-maiztasuneko bandetan, komunikazio elektronikoko zerbitzuetarako erabiltzeko edozer teknologia mota erabili ahal izango da, Europar Batasuneko Zuzenbidearekin bat.

Komunikazio elektronikoko zerbitzuetarako hari gabe eskuratzeko teknologia motak edo sare irrati-elektrikoa murriztu ahal izango da, modu proportzionatuan eta diskriminaziorik gabe, honakoetarako beharrezkoa denean:

- a) Interferentzia kaltegarriak saihesteko.
- b) Osasun publikoa babesteko eremu elektromagnetikoen aurrean.
- c) Zerbitzuaren kalitate teknikoa bermatzeko.
- d) Irrati-maiztasuna modu partekatuan erabiltzen dela –ahalik eta gehien– bermatzeko.
- e) Espektoa eraginkortasunez erabiltzen dela bermatzeko.
- f) Interes orokorreko helburu bat lortzea bermatzeko.

7. Maiztasunak Esleitzeko Koadro Nazionalaren arabera, komunikazio elektronikoko zerbitzuetarako erabilgarri dauden irrati-maiztasuneko bandetan, komunikazio elektronikoko era guztietako zerbitzu motak eman ahal izango dira, Europar Batasuneko Zuzenbidearekin bat.

Dena den, komunikazio elektronikoko zerbitzu motak murriztu ahal izango dira, modu proportzionatuan eta diskriminaziorik gabe, eta, hala badagokio, Telekomunikazioen Nazioarteko Batasunaren (UIT) irrati-komunikazioen erregelamenduko betekizun bat beteko da.

Komunikazio elektronikoko zerbitzu bat komunikazio elektronikoko zerbitzuetarako erabilgarri dagoen banda jakin batean ematea exijitzen duten neurriek Europar Batasuneko Zuzenbidearen arabera definitutako interes orokorreko helburuak lortzeko justifikatuta egon behar dute. Hona hemen helburu horietako batzuk:

- a) Bizitzaren segurtasuna.
- b) Gizarte-, eskualde- eta lurralde-kohesioa sustatzea.
- c) Irrati-maiztasunak modu ez eraginkorrean erabiltzea saihestea.

d) Komunikabideen kultura- eta hizkuntza-aniztasuna eta pluraltasuna sustatzea, esaterako, irrati- eta telebista-zerbitzuak ematearen bidez.

Honako kasu hauetan esleitu ahal izango da maiztasun-banda bat komunikazio elektronikoko zerbitzu jakin bat emateko: bizitzaren segurtasunarekin erlacionatutako zerbitzuak babesteko beharrak justifikatzen duenean, edo, salbuespen gisa, Europar Batasuneko Zuzenbidearen arabera definitutako interes orokorreko helburuak lortzeko beharrezkoa denean.

8. Kasuan-kasuan eta aurreko 6. eta 7. paragrafoekin bat zehazten diren maiztasun-bandak erabiltzeko murrizketak ezartzeko ezinbestekoa izango da interesdunei proposatutako neurriari buruz oharrak egiteko aukera eta arrazoizko denbora-tartea ematea.

9. Aldizka, Telekomunikazioen eta Informazioaren Gizartearen Estatuko Idazkaritzak kasuan-kasuan eta aurreko 6. edo 7. paragrafoarekin bat ezarritako maiztasun-bandak erabiltzeko murrizketei eustea egokia ote den aztertuko du; azterketa horien emaitzak argitaratuko ditu, eta dagokion proposamena pasako dio organo eskudunari, onar dezan.»

Hogeita hamazazpi. Aldatu egin da 44. artikulua 1. paragrafoaren c) lerrokada. Aurrerantzean, honela egongo da idatzita:

«c) Jabari publiko irrati-elektroa erabiltzeko eskubidea emateko prozedura irekiak, irizpide objektibo, garden, ez-diskriminaziorik eta proportzionatuetan oinarritutako direnak eta, beste batzuen artean, erabilitako teknologia, zerbitzuen interesa, bandak eta aprobetxatze maila hartuko dituztenak kontuan. Aintzat hartuko dute, halaber, jabari publikoa erabili nahi duenarentzako balorazio ekonomikoa, baliabide urria baita, baita lizitatuzaileek aurkeztutako eskaintzak ere.»

Hogeita hemezortzi. Aldatu egin da 44. artikulua 2. paragrafoaren 1. lerrokada. Aurrerantzean, honela egongo da idatzita:

«2. Industria, Energia eta Turismo Ministerioak komunikazio elektronikoko sare publikoak ustiatzeko eta zerbitzuak emateko jabariaren gain eman beharreko jabari-emakiden kopurua murriztu ahal izango du, edo aurretik zeuden eskubideen iraupena luzatu (eskubide horietan zehaztutakoez bestelako baldintzatan), alderdi interesdunei –kontsumitzaileen elkarteak eta erabiltzaileak barne– kontsulta egin ondoren, espektro irrati-elektroaren erabilera eraginkorra bermatzeko beharrezkoa denean, eta erabiltzaileentzako ahalik eta onura gehien lortzeko eta lehia egotea ahalbidetzeko beharra kontuan izanik. Erabilera-eskubideak ematea mugatzeko erabaki oro edo erabilera-eskubideak berritzea argitaratu egin behar da, bai eta horren arrazoiak eman ere. Ministerioak berak muga hori berrikusi ahal izango du, ofizios edo alde batek eskatuta, eragin zuten arrazoiak desagertzen diren neurrian.»

Hogeita hemeretzi. Beste paragrafo bat, hirugarrena, erantsi zaio 44. Artikuluari. Honako hau dio:

«3. Aurreko paragrafoetan zehaztutakoari kalterik egin gabe, prozedura irekiaren betebeharrari salbuespenak ezar dakizkioke irrati- edo telebista-zerbitzuen hornitzaileei irrati-maiztasunak erabiltzeko banakako eskubideak ematea beharrezkoa denean, Europar Batasuneko Zuzenbidearekin bat zehaztutako interes orokorreko helburu bat lortzeko.»

Berrogei. Aldatu egin da 45. artikulua 5. paragrafoa. Aurrerantzean, honela egongo da idatzita:

«5. Industria, Energia eta Turismo Ministerioak jabari publiko irrati-elektroa erabiltzeko gaitzen duten tituluak aldatu ahal izango ditu, objektibotasun- eta proportzionaltasun-printzipioak jarraituta, espektro irrati-elektroa planifikatzeko, eraginkortasunez erabiltzeko eta eskuragarri izateko beharrak aintzat hartuta, erregelamendu bidez zehaztutako terminoetan. Betiere, Telekomunikazioen Merkatu Batzordeak txostena egin ondoren, eta interesdunei, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Batzordeari eta, hala badagokio, gainerako erabiltzaileen ordezkagaitasun nagusia duten elkartei kontsulta egin ondoren, lau astetik gorako



epean –salbuespenetan epea aldatu egin daiteke–. Ministerio-agindu bidez egingo da aldaketa, eta horren bidez zehaztuko da, halaber, titularrek horretara egokitzeko duten epea.»

Berrogeita bat. 45. artikulua 2. paragrafoaren azken lerrokada kendu, eta 6. paragrafoa gehitu da. Honela dago idatzita:

«6. Jabari publiko irradi-elektrikoa erabiltzeko gaitzen duten tituluak transferitu ahal izango dira eta jabari publiko irradi-elektrikoa erabiltzeko eskubideak laga ahal izango dira, errege-dekretu bidez zehaztutako baimen-baldintzetan. Aipatu errege-dekretuan jabari publiko irradi-elektrikoa erabiltzeko tituluak transferitzeko edo eskubideak lagatzeko maiztasun-bandak identifikatuko dira, zehazki, Europar Batasunaren esparruan identifikatzen diren maiztasun-bandak. Transmisio horiek ez dute titularra administrazioarekiko gain hartutako betebeharren erabilera lagatzailearen eskubidetik salbuetsiko, eta Maiztasunak Esleitzeko Koadro Nazionalan edo plan teknikoetan –zeintzuetara finkatuta baitauden Europar Batasunaren neurri tekniko aplikagarriak– ezarritako erabilera-baldintza teknikoak errespetatu beharko dituzte. Operadorearen eskubideak edo betebeharrak subrogatzen direnean, jabari publiko irradi-elektrikoa erabiltzeko gaitzen duten tituluak noiz transferi daitezkeen zehaztuko da errege-dekretu bidez. Halaber, irradi-maiztasunak erabiltzeko banakako eskubideak transferitzeko edo errentan emateko murrizketak zehaztu ahal izango dira errege-dekretu bidez, eskubideok hasiera batean doan eskuratu badira.»

Berrogeita bi. 45. artikulua 7. paragrafoa erantsi zaio, eta jarraian datorren bezala geratuko da.

«7. Jarrera espekulatzailerak eta jabari publiko irradi-elektrikoa erabiltzeko eskubideak akaparatzea saihesteko kautelak ezarri ahal izango dira errege-dekretu bidez. Horretarako, erabilera-eskubideak erabiltzeko epe zurrunik finkatuko zaizkio titularrari. Hala, hainbat neurri hartu ahal izango dira; besteak beste, irradi-maiztasunak erabiltzeko eskubideak saltzea edo lagatzea agintzea. Neurriok modu proportzionatu eta gardenean ezarri eta aplikatuko dira, diskriminaziorik gabe.»

Berrogeita hiru. 3. eta 4. paragrafoak erantsi zaizkio 46. artikuluari. Honako hau diote:

«3. 1. paragrafoan adierazitako agintaritza nazional arautzaileak lankidetzan arituko dira beste estatu batzuetako gainerako kontrol-organoekin eta Europar Batasuneko organismoekin, esleitu zaizkien eskumenak garatzeko. Hartara, modu koherentean aplikatuko da komunikazio elektronikoei buruzko Erkidegoko araudia eta barne-merkatua garatzen lagunduko da. Horretarako, Batzordeak eta BERECEk koordinazio handiagoa izateko proposatutako helburuen alde egingo dute aktiboki. Halaber, lanean arituko dira bi erakundeekin batera, merkatu-egoera bereziak tratatzeko egokienak diren tresna eta konponbideak zehazteko.

4. 1. paragrafoan adierazitako agintaritza nazional arautzaileek printzipio arautzaile objektiboak, gardenak, ez-diskriminatzaileak eta proportzionatuak aplikatuko dituzte esleitu dizkieten eskumenak garatzeko. Horretarako,

a) Aurreikusteko moduko inguru arautzailea sustatuko dute, eta ikuspuntu arautzaile koherentea bermatuko dute berrikuspen-epe egokietan.

b) Antzeko egoeratan, komunikazio elektronikoko sare eta zerbitzuak hornitzen dituzten enpresei tratu diskriminatzailea ez ematea bermatuko dute.

c) Lehia babestuko dute, kontsumitzaileen onurarako, eta, posible denean, azpiegituratan oinarritutako lehia sustatuko dute.

d) Merkatura bideratutako inbertsio eraginkorra eta azpiegitura berri eta hobetuetako berrikuntza bultzatuko dute, baita sarbide-betebeharrak enpresa inbertitzaileek dituzten arriskuak kontuan hartzen dituztela bermatuta eta inbertitzaileen eta sarbidea eskatzen duten alderdien arteko lankidetzeta-modalitateak ahalbidetuta ere, inbertsioen arriskua dibertsifikatzeko eta merkatuko lehia eta ez diskriminatzeko printzipioa errespetatzen direla egiaztatzeko.

e) Kontuan izango dituzte lehiari eta eskualde geografikoetan dauden kontsumitzaileei lotutako baldintzak.

f) *Ex ante* erregelamendu-betebeharrak lehia eraginkor eta iraunkorrik ez dagoenean bakarrik ezarriko dituzte, eta betebeharrak horiek arindu edo ezeztatuko dituzte baldintza bete bezain laster.

g) Beren erantzukizunak gauzatuko dituzte, eraginkortasuna, lehia iraunkorra eta azken erabiltzaileentzako ahalik eta onura handiena sustatu dadin.»

Berrogeita lau. 47. artikulua 3. paragrafoari beste lerrokada bat gehitu zaio, eta jarraian datorren bezala geratuko da.

«Telekomunikazioen eta Informazioaren Gizartearen Estatuko Idazkaritzak, bere eginkizunak betetzerakoan, laudoaren edo ebazpenaren eraginkortasuna bermatzeko egoki irizten dituen kautela-neurriak hartu ahal izango ditu edozer momentutan, ofizioz edo interesdunek eskatuta, horretarako behar beste elementu daudenean, dagokion prozedura hasi ondoren, eta errege-dekretu bidez zehazten diren terminoetan.»

Berrogeita bost. 47. artikulua 6. paragrafoaren e) eta f) lerroak aldatu dira, eta honela idatzita geratuko dira:

«e) Emisio irrati-elektrokoen egiaztapen teknika egitea, irrati-komunikazio sistemien interferentzia kaltegarriak, urratzeak, irregulartasunak eta perturbazioak identifikatzeko, kokatzeko eta ezabatzeak, eta erabilera-eskubideen titularrek jabari publiko irrati-elektroko eraginkortasunez erabiltzen dutela egiaztatzea.

f) Telekomunikazioak kontrolatzea eta ikuskatzea, espektra erabiltzeko eskubideak ematearekin lotutako baldintzak betetzen direla ikuskatzea barne, baita gai honi lotutako zigor-espeditenteei hasiera ematea proposatzea ere, lege honen esparruan zehaztutako eskumenei kalterik egin gabe. Telekomunikazioen eta Informazioaren Gizartearen Estatuko Idazkaritzak eskatzen zaizkion ikuskaritza-funtzioak egingo ditu, Telekomunikazioen Merkatu Batzordearen eskumenei esparruan, eta horrek eskatuta.»

Berrogeita sei. 56. artikulua 3. paragrafoari e), f) eta g) lerroak gehitu zaizkio. Honela diote:

«e) Zerbitzu bat edo batzuk emateari uzteko aginduak ematea, edo agindua atzeratzea, emateak lehia larri kalte badezake, 10. artikuluari jarraiki, merkaturaz aztertu ondoren ezarritako sarbide-betebeharrak bete arte. Neurri horren berri eta oinarri dituen arrazoen berri emango zaio kaltetutako operadoreari, atzerapenik gabe, eta enpresak hori betetzeko arrazoizko epe bat finkatuko da.

f) Operadore batek komunikazio elektronikoko sare edo zerbitzuak hornitzen jarraitzea saihestea, edo erabilera-eskubideak etetea edo kentzea, baldin eta zerbitzuak emateko edo sareak ustiatzeko, edo ezarritako erabilera-eskubideak edo betebeharrak espezifikoak emateko ezarritako baldintzak larri eta behin eta berriro betetzen ez badira, arau-haustea amaitzea exijitzeko neurriak huts egin badute.

g) Zerbitzuak emateko edo sareak ustiatzeko, edo ezarritako erabilera-eskubideak edo betebeharrak espezifikoak emateko ezarritako baldintzak betetzen ez direnean, hori konpontzera bideratutako premiazko behin-behineko neurriak hartzea, segurtasun edo osasun publikorako berehalako mehatxu larri direnean, edo espektra irrati-elektrokoaren hornitzaileei edo erabiltzaileei arazo ekonomiko edo operatibo larriak sortzen dizkienean. Ondoren, konponbideak proposatzeko aukera eman behar zaio operadore interesdunari. Agintaritzak eskudunak behin-behineko neurriak berretsi ahal izango ditu. Horiek hiru hilabetez balioko dute gehienez ere, eta asko jota beste hiru hilabetez luzatu ahal izango dira, gauzatze-prozedurak amaitu ez badira.»

Berrogeita zazpi. Aldatu egin da zazpigarren xedapen gehigarriaren 4. paragrafoa, eta honela idatzita geldituko da:

«4. Ministroen Kontseiluak onartutako errege-dekretu bidez, irrati- eta telebista-programen zenbait kate emateko arrazoizko eskakizunak ezar dakizkieke irrati- eta telebista-programak banatzeko erabiltzen diren komunikazio elektronikoko

sareak ustiatzen dituzten operadoreei, zerbitzu publikoko betebeharrak gisa, baita zerbitzu osagarriak emateko eskakizunak ere, ezgaitasunak dituzten erabiltzaileek behar bezala eskuratu ahal izan ditzaten, sare horien azken erabiltzaile askok irratietan eta telebista-programak jasotzeko bide nagusi gisa erabiltzen badituzte, badin eta argi eta garbi definitutako interes orokorreko helburuak modu proportzionatu eta gardenean, eta aldizka berrikusteko moduan, lortzeko beharrezkoa bada.

Halaber, baldintzak ezar dakizkieke telebista digitaleko zerbitzuak eta ekipamenduak hornitzen dituztenei, errege-dekretu bidez, ezgaitasunak dituzten azken erabiltzaileentzako ikus-entzunezko telebista-komunikazio zerbitzuak ematen lagun dezaten.»

Berrogeita zortzi. Aldatu egin da zortzigarren xedapen gehigarria, eta honela idatzita geldituko da:

«Zortzigarren xedapen gehigarria. *Jakinarazpen-mekanismoa.*

Agintaritzak nazional arautzaileak, lege honen 10. 13. eta 13 *bis* artikuluekin, zazpigarren xedapen gehigarriarekin eta lege hura garatzeko araudiarekin bat hartutako neurriak eta estatu kideen arteko trukeetan eragina izan dezaketen neurriak jakinarazpen-mekanismoen mende jarriko dira; hain zuzen ere, komunikazio elektronikoko sareen eta zerbitzuen esparru arautzaile komunari (Esparru Zuzentaraua) buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko martxoaren 7ko 2002/21/EE Zuzentarauaren 7., 7 *bis* eta 7 *ter* artikuluetan eta Europar Batasunak horiek garatzeko egindako arauetan adierazitakoen mende.

Berrogeita bederatzia. Honela idatzita geldituko da II. eranskinaren 2. paragrafoa:

«2. Sarbidea: komunikazio elektronikoko zerbitzuak emateko baliabide edo zerbitzuak beste operadore baten esku jartzea, definitutako baldintzetan eta oinarri eksklusiboan edo ez-esklusiboan, baita informazioaren gizartearen zerbitzuak edo irratiedukien zerbitzuak hornitzeko erabiltzen direnean ere. Termino honek honako alderdi hauek hartzen ditu barnean, besteak beste: bitarteko finko eta ez-finkoen bidez ekipamenduetara konektatzea behar izan dezaketen lotutako sare- eta baliabide-elementuetara sartzeara (zehazki, begizta lokalera eta begizta lokalaren bidez zerbitzuak ahalbidetzeko beharrezko baliabide eta zerbitzuetara sartzeara); azpiegitura fisikoetara sartzeara (esaterako, eraikin, hodi eta mastetara); sistema informatikoetara sartzeara (baita laguntza-sistema operatiboetara ere); aurre eskaeratarako, horniduretarako, eskaeratarako, mantentze- eta konponketa-eskaeratarako, eta fakturaziorako informazio-sistemetara edo datu-baseetara sartzeara; dei-zenbakia bihurtzeko sistemara edo antzeko funtzioak dituzten sistemetara sartzeara; sare finko eta mugikorretara sartzeara, zehazki ibiltaritzaxedeekin; telebista digitaleko zerbitzuetarako ohiko sarbide-sistemetara sartzeara; sare pribatu birtualeko zerbitzuetara sartzeara.»

Berrogeita hamar. Beste paragrafo bat, 2 *bis*, erantsi zaio II. eranskinari; honela geratuko da idatzita:

«2 *bis*. Maiztasunak esleitzea: maiztasun-banda irratikomunikazioko zerbitzu batek edo gehiagok erabiltzeko izendatzea, hala badagokio, zehazten diren baldintzei jarraiki.»

Berrogeita hamaika. Honela idatzita geldituko da II. eranskinaren 3. paragrafoa:

«3. Komunikazio elektronikoko sare publiko finkoaren begizta lokal edo abonatu-begizta: sarearen amaiera-puntua eta komunikazio elektronikoko sare publiko finkoaren banaketa-gailu bat edo antzeko instalazio bat konektatzen dituen zirkuitu fisikoa.»

Berrogeita hamabi. Honela idatzita geldituko da II. eranskinaren 16. paragrafoa:

«16. Interferentzia kaltegarria: irratinabigazioko zerbitzu baten edo bestelako segurtasun-zerbitzuen funtzionamendurako arriskutsua den, edo nazioarteko, erkidegoko edo nazioarteko araudiarekin bat funtzionatzen duen irratikomunikazioko

zerbitzu bat larri narriatzen edo oztopatzen edo behin eta berriro eteten duen interferentzia oro.»

Berrogeita hamahiru. Beste paragrafo bat, 16 *bis*, erantsi zaio II. eranskinari; honela geratuko da idatzita:

«16 bis. Deia: bi noranzkoko ahozko komunikazioa ahalbidetzen duen konexioa, herritarrentzako komunikazio elektronikoko zerbitzu baten bidez egindakoa.»

Berrogeita hamalau. Honela idatzita geldituko da II. eranskinaren 19. paragrafoa:

«19. Zenbaki geografikoa: telefono-zenbakeraren plan nazionalean identifikatutako zenbakia. Bere egituraren zati batean deiak sarearen amaiera-puntuaren kokapen fisikorantz bideratzeko erabilitako esanahi geografiko bat du.»

Berrogeita hamabost. Honela idatzita geldituko da II. eranskinaren 20. paragrafoa:

«20. Zenbaki ez-geografikoak: telefono-zenbakeraren plan nazionalean identifikatutako zenbakiak, zenbaki geografiko ez direnak. Besteak beste, telefono mugikorren zenbakiak, doako deienak eta tarifa gehigarrienak bilduko dituzte.»

Berrogeita hamasei. Honela idatzita geldituko da II. eranskinaren 24. paragrafoa:

«24. Lotutako baliabideak: komunikazio elektronikoko sare batekin edo zerbitzu batekin lotura duten azpiegitura fisikoak, sistemak, gailuak, zerbitzuak eta beste baliabide edo elementu batzuk, sare edo zerbitzu horien bidez zerbitzuak ematea ahalbidetzen edo laguntzen dutenak, edo horretarako ahalmena dutenak. Besteak beste, eraikinak, eraikinetako sarrerak, eraikinetako kableak, antenak, dorre eta bestelako euskarri-eraikuntzak, hodiak, mastak, sarbide-ahoak eta banagailuak.»

Berrogeita hamazazpi. Honela idatzita geldituko da II. eranskinaren 25. paragrafoa:

«25. Komunikazio elektronikoko sarea: transmisio-sistemak, eta hala badagokio, konmutazio- edo bideratze-ekipamenduak eta gainerako baliabideak; tartean, aktiboak ez diren eta seinaleak kable, uhin hertziaz, bide optiko edo satelite-sareetan sartutako bestelako bide elektromagnetikoen bidez garraiatzeko aukera ematen duten elementuak, lurreko sare finkoak (zirkuituak eta paketeak konmutatzekoak, internet barne) eta mugikorrek, linea elektrikoko sistemak, seinaleak transmititzeko erabiltzen badira, soinu edo irudien irrati-difusiorako erabilitako sareak eta kable bidezko telebista-sareak, garraiatzen den informazio mota kontuan izan gabe.»

Berrogeita hemezortzi. Honela idatzita geldituko da II. eranskinaren 26. paragrafoa:

«26. Komunikazioen sare publikoa: komunikazio elektronikoen sarea, herritarrentzako komunikazio elektronikoko zerbitzuak emateko erabiltzen dena guztiz edo partez, eta sarearen amaiera-puntuen arteko seinale-transferentziak jasaten dituena.»

Berrogeita hemeretzi. Honela idatzita geldituko da II. eranskinaren 27. paragrafoa:

«27. Lotura duten zerbitzuak: komunikazio elektronikoko sare batekin edo zerbitzu batekin lotura duten zerbitzuak, sare edo zerbitzu horien bidez zerbitzuak hornitzea ahalbidetzen edo laguntzen dutenak, edo horretarako ahalmena dutenak. Besteak beste, antzeko funtzioak dituzten zenbaki edo sistemak itzultzea, baldintzapeko sarbide-sistemak eta programen gida elektronikoak, baita identitate-, kokaleku- eta presentzia-zerbitzuak ere.»

Hirurogei. Honela idatzita geldituko da II. eranskinaren 30. paragrafoa:

«30. Herritarrentzako telefono-zerbitzua: herritarrentzako zerbitzua, dei nazionalak, edo dei nazionalak eta nazioartekoak egin edo jaso ahal izan ditzaten

zuzenean nahiz zeharka, telefono-zenbakeraren plan nazional edo nazioarteko bateko zenbaki baten edo gehiagoren bidez.

Hirurogeita bat. 37. paragrafoa erantsi zaio II. eranskinari; honela geratuko da idatzita:

«37. Kokalekuari buruzko datuak: komunikazio elektronikoko sare batean edo komunikazio elektronikoko zerbitzu batek tratatutako datuak, herritarrentzako komunikazio elektronikoko zerbitzu baten erabiltzaile baten terminal-ekipamenduaren kokaleku geografikoa adierazten dutenak.»

**4. artikulua.** *Informazioaren gizarteko eta merkataritza elektronikoko zerbitzuei buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legea aldatzea.*

Aldatu egin da informazioaren gizarteko eta merkataritza elektronikoko zerbitzuei buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legea, eta honela idatzita geldituko da:

Bat. Beste paragrafo bat, laugarrena, gehitu zaio 20. artikuluari; honela dio:

«4. Nolanahi ere, debekatuta dago igorlearen identitatea disimulatzen edo ezkatzen duten, edo artikulua honetan xedatutakoarekin bat ez datozen merkataritzako komunikazioak bidaltzea, baita hartzaileak artikulua honetan xedatutakoarekin bat ez datozen interneteko orriak bisitatzera bultzatzen dituztenak ere.

Bi. Beste lerrokada bat erantsi zaio 21. artikulua 2. paragrafoari, hau dioena:

«Komunikazioak posta elektronikoko bidez igorri badira, baliozko helbide elektronikoko bat eman beharra dago eskubide hori erabili ahal izateko, eta debekatuta dago halako helbiderik ez duen komunikaziorik bidaltzea.»

Hiru. Aldatu egin da 22. artikulua. Honela geratuko da idatzita:

«22. artikulua. *Zerbitzu-hartzaileen eskubideak.*

1. Hartzaileak merkataritzako komunikazioak jasotzerakoan emandako baimena baliogabetu dezake edozer momentutan. Horretarako, bere nahiaren berri eman beharko dio igorleari.

Hala, zerbitzu-emaileek doako prozedura soilak prestatu beharko dituzte, zerbitzu-hartzaileek baimena baliogabetu ahal izan dezaten. Komunikazioak posta elektronikoko bidez igorri badira, eskubide hori erabili ahal izateko baliozko helbide elektronikoko bat eman beharra dago, eta debekatuta dago halako helbiderik ez duen komunikaziorik bidaltzea.

Halaber, prozedura horiei buruzko informazioa eman beharko dute, bitarteko elektronikoen bidez.

2. Zerbitzu-emaileek datuak biltzeko eta berreskuratzeko gailuak erabili ahal izango dituzte hartzaileen terminal-ekipamenduetan, baldin eta horiek baimena eman badute. Horren aurretik, gailuen erabilerari buruzko eta datuak tratatzeko xedeei buruzko informazio argia eta osoa eman behar zaie, datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat.

Teknikoki egin daitekeenean, hartzaileak nabigatzailearen edo beste aplikazio batzuen parametro egokiak erabiliz eman ahal izango du bere datuak tratatzeko baimena, baldin eta instalatzen ari den bitartean konfiguratu behar badu, edo berariaz eguneratu behar badu.

Nolanahi ere, bildu edo eskuratu ahal izango dira, arrazoi teknikoak direla medio, komunikazio bat komunikazio elektronikoko sare baten bidez transmititzeko, edo, behar-beharrezkoa denean, hartzaileak espresuki eskatutako informazioaren gizartearen zerbitzu bat emateko.»

Lau. Honela idatzita geldituko da 31. artikulua a) lerrokada:

«a) Legezko eskubide edo interes baten titular diren pertsona fisiko edo juridikoak, 21. eta 22. artikuluetan jasotako xedapenak urratu direla-eta kalte daitezkeenak barne, tartean, komunikazio elektronikoko zerbitzuak hornitzen

dituztenak, hain zuzen, beren legezko merkataritzako interesak edo beren bezeroen interesak babestu nahi dituztenak.»

### III. TITULUA

#### Elektrizitatearen eta gasaren sektoreetako kostuen eta diru-sarreraren arteko bat ez etortzeengatik desbideratzeak zuzentzeko neurriak

##### 5. artikulua. *Energia elektrikoa banatzeko jardueraren ordainsaria aldatzea.*

1. Honako hauek dira banaketa-jardueren ordainsari-irizpideak. 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera jasoko dituzten ordainsariengan izango dute eragina.

a) Zerbitzuan jarritako aktibo ez-amortizatuak ordainduko dira inbertsio gisa, eta horien balio garbia hartuko da oinarri ordainketa finantzariarako.

b) n urtean zerbitzuan jarritako banaketa-instalazioek sortutako ordainsariaren sortzapena n+2 urteko urtarrilaren 1ean hasiko da.

2. Aurreko paragrafoan jasotakoa aplikatzearen ondorioz aldatu egin da 2012. urteari dagokion ordainsaria 100.000 bezero baino gehiago dituzten enpresa banatzaileentzat eta FEVASA eta SOLANAR sozietateentzat, neurtzeko gailuei hargunea egiteko, eta horiek kroatzeko eta egiaztatzeko eskubideen ondorio diren bestelako diru-sarrerak kenduta. Aipatu ordainsaria abenduaren 30eko IET/3586/2011 Aginduan (2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako sarbide-bidesariak eta erregimen bereziko instalazioen tarifak eta hobariak zehazten ditu) ageri da behin-behinean, eta 4.606.000 mila euro izango da, ondorengo taula honetan jasotakoarekin bat:

Enpresa edo enpresa taldea	Mila eurotan
Iberdrola Distribución Eléctrica, SAU . . . . .	1.568.992
Unión Fenosa Distribución, SA. . . . .	742.744
Hidrocantábrico Distribución Eléctrica, SA. . . . .	147.897
E.ON Distribución, SL. . . . .	142.883
Endesa (penintsulakoa) . . . . .	1.704.211
Endesa (penintsulaz kanpokoa) . . . . .	297.925
FEVASA . . . . .	1.029
SOLANAR . . . . .	318
Guztira. . . . .	4.606.000

3. Berrikusi egin dira 2012rako aintzatetsitako kostuak, hain zuzen ere, 100.000 bezero baino gehiago dituzten enpresek eta FEVASA eta SOLANAR sozietateek egindako merkataritza-kudeaketa ordaintzeko direnak: 56.648 mila euro izango dira 2012an. Kopuru hori enpresa banatzaileen arabera banakatu dugu honako taula honetan:

Enpresa edo enpresa taldea	Mila eurotan
Iberdrola Distribución Eléctrica, SAU . . . . .	22.202
Unión Fenosa Distribución, SA. . . . .	7.680
Hidrocantábrico Distribución Eléctrica, SA. . . . .	1.443
E.ON Distribución, SL. . . . .	1.243
Endesa (penintsulakoa) . . . . .	20.475
Endesa (penintsulaz kanpokoa) . . . . .	3.595
FEVASA . . . . .	8
SOLANAR . . . . .	2
Guztira. . . . .	56.648

4. Aldatu egin da 100.000 bezero baino gutxiago dituzten enpresa banatzaileei dagokien ordainsaria eta abenduaren 30eko IET/3586/2011 Aginduan jaso da, behin-behinean, eta 340.811,777 mila euro izango da 2012an, I. eranskinean ezarritako banakapenaren arabera.

5. Industria, Energia eta Turismo Ministerioak energia elektrikoa banatzen duen enpresek jasotako inbertsio-ordainsaria eta zerbitzuan jarritako aktibo ez-amortizatuak lotuko dituen errege-dekretu proposamen bat igorriko dio Gobernuari, onar dezan.

**6. artikulua.** *Energia elektrikoa garraiatzeko jardueraren ordainsaria.*

1. n urtean zerbitzuan jarritako garraio-instalazioek sortutako ordainsarien sortzapena eta kobrantza n+2 urteko urtarrilaren 1ean egingo da, eta 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera jaso beharreko ordainsarian izango ditu ondorioak.

2. 1. paragrafoan xedatutakoa aplikatzeko, aldatu egin da garraio-jarduerari dagokion 2012ko ordainsaria, hain zuzen ere abenduaren 30eko IET/3586/2011 Aginduan (2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako sarbide-bidesariak eta erregimen bereziko instalazioen tarifak eta hobariak zehazten ditu) ageri diren enpresek jaso beharrekoa, hurrengo taulan jasotakoari jarraiki:

Garraioaren ordainsaria	Mila eurotan
Red Eléctrica de España, SA . . . . .	1.339.044
Unión Fenosa Distribución, SA. . . . .	40.094
Penintsulakoa, guztira . . . . .	1.379.138
Red Eléctrica de España, SA (penintsulaz kanpokoak) .	146.314
Penintsulaz kanpokoak, guztira . . . . .	146.314
Guztira . . . . .	1.525.452

3. Industria, Energia eta Turismo Ministerioak garraio-instalazioen inbertsio-ordainsaria eta zerbitzuan jarritako aktibo ez-amortizatuak lotuko dituen errege-dekretu proposamen bat igorriko dio Gobernuari, onar dezan.

**7. artikulua.** *Uharteetako eta penintsulaz kanpoko elektrizitate-sistemetan neurriak ezartzea.*

1. Honako hauek dira uharteetako eta penintsulaz kanpoko sistemetako erregimen arrunteko sortze-instalazioen ordainsari-irizpideak, indarrean den araudian jasotakoez gain:

a) Erregaiarengatiko ordainsariak horiek eskuratzeko kudeaketaren eraginkortasuna hartu behar du kontuan, eta arrazoizko logistika-kostuak aintzatetsiko dira, uharteetako eta penintsulaz kanpoko sistemen berezitasunak aintzat hartuta, benetan kontsumitutako erregaiaren arabera.

b) Potentzia-bermeagatiko ordainsariak zentral bakoitzaren benetako erabilgarritasuna hartuko du kontuan.

c) Talde bakoitzeko inbertsioa amortizatzeagatiko ordainsariak amortiza daitezkeen kontzeptuak hartuko ditu kontuan.

d) Zentral amortizatuen ordainsari finkoak modu eraginkorrean berritu behar du; hortaz, ordainsaria banaka kalkulatu da zentral bakoitzarentzat, ezartzen den prozedurarekin bat.

e) Sortzen dena saltzeko ekoizpen-kostu aldakorrak zehazteko, isurtzeko eskubideen kostu eta diru-sarreraren aurreikuspenak hartuko dira kontuan.

2. Gobernua gaitzen da artikulua honen 1. paragrafoan xedatutakoa errege-dekretu bidez aldatzeko.

3. Errege lege-dekretu hau onartu eta bi hilabetera, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak uharteetako eta penintsulaz kanpoko sortze-zentralen kostu finko eta

aldakorreko ordainsari-eredua berrikustea proposatuko du, 1. puntuan zehaztutako irizpideak kontuan har daitezzen.

Honako kontzeptu hauek hartuko ditu barnean, gutxienez, berrikuspenak:

- a) Parametro tekniko eta ekonomikoak berrikustea.
- b) Erregaiaren prezioaren kalkulua berrikustea.
- c) Potentzia-bermeagatiko ordainsaria berrikustea.
- d) Parametro ekonomikoak eguneratzeko modua zehaztea.
- e) Ordainsari-tasa berrikustea.
- f) Parametroak zer maiztasunarekin berrikusiko diren zehaztea.

4. Aldi baterako eta artikulua honen lehenengo paragrafoan adierazitako berrikuspenak aplikatetik eratorritako zentralen kostu aldakorrak ezartzen dituen agindua onartzen ez den arte, Energia Politikaren eta Mehatzeen Zuzendaritza Nagusiaren 2011ko martxoaren 7ko Ebazpenaren bidez onarturiko parametroak aplikatuko dira sortze-zerbitzuan. Adierazitako ebazpenak uharteetako eta penintsulaz kanpoko sistemen erregimen arrunteko sortze-instalazioen sortze-kostu aldakorraren osagarrien parametroak eguneratzen ditu 2011. urterako.

#### **8. artikulua.** *Energiaren Batzorde Nazionala.*

Energiaren Batzorde Nazionalaren balantzearen funts propioen partidaren aurreko ekitaldietako emaitzen saldoa, 2011ko abenduaren 31koa, elektrizitatearen eta gas-sistemen diru-sarrera likidagarritzat joko da, abenduaren 26ko 2017/1997 Errege Dekretuan, tarifaren araberako garraio-, banaketa- eta merkaturatze-kostuak, sistemaren kostu iraunkorrak, eta dibertsifikazio eta hornidura-segurtasuneko kostuak likidatzeko prozedurak antolatzen eta arautzen dituenean, eta urriaren 28ko ECO/2692/2002 Aginduan, gas naturalaren sektoreko jarduera arautuen eta helburu espezifikoak duten kuoten ordainsaria likidatzeko prozedurak arautu eta enpresei aurkeztu beharreko informazio-sistema zehazten duenean, xedatutako ondorioetarako. Batzordeak funts horiei dagozkien kopuruak 2012ko abenduaren 31 baino lehen itzultzeko beharrezko mekanismoak gaituko ditu, geldikin horiek inbertitu diren aktiboen izaera aintzat hartuta.

Kopuru hori Energiaren Batzorde Nazionalaren balantzearen eta urteko kontuen funts propioetatik kenduko da, dagokion ekitaldian.

Elektrizitate-sistemara eta gas-sistemara bideratutako kopuruaren arteko banaketa modu proportzionatuan egingo da; hain zuzen ere, elektrizitatearen sektorearen azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 18. artikulua aipatutako sarbide-bidesariak aplikatetik sortutako fakturazioarekin, eta hidrokarburoen sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legearen 92. artikulua aipatutako bidesari eta kanonak aplikatetik sortutako fakturazioarekin proportzioan.

#### **9. artikulua.** *Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutua.*

Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren urteko kontuan «Dirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk» partidaren saldoa, 2011ko abenduaren 31koa, elektrizitatearen eta gas-sistemen diru-sarrera likidagarritzat joko da, abenduaren 26ko 2017/1997 Errege Dekretuan, tarifaren araberako garraio-, banaketa- eta merkaturatze-kostuak, sistemaren kostu iraunkorrak, eta dibertsifikazio eta hornidura-segurtasuneko kostuak likidatzeko prozedurak antolatzen eta arautzen dituenean, eta urriaren 28ko ECO/2692/2002 Aginduan, gas naturalaren sektoreko jarduera arautuen eta helburu espezifikoak duten kuoten ordainsaria likidatzeko prozedurak arautu eta enpresei aurkeztu beharreko informazio-sistema zehazten duenean, xedatutako ondorioetarako. Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuak funts horiei dagozkien kopuruak 2012ko abenduaren 31 baino lehen itzultzeko beharrezko mekanismoak gaituko ditu, geldikin horiek inbertitu diren aktiboen izaera aintzat hartuta. Energiaren Batzorde Nazionalak izendatutako kontu batean itzuliko da, gordailu erregimenean.



Kopurua aipatutako organismoaren urteko kontuen «Dirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk» partidak kenduko da, dagokion ekitaldian.

Elektrizitate-sistemara eta gas-sistemara bideratutako kopuruaren arteko banaketa modu proportzionatuan egingo da; hain zuzen ere, elektrizitatearen sektorearen azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 18. artikulua aipatutako sarbide-bidesariak aplikatuzetik sortutako fakturazioarekin, eta hidrokarburoen sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legearen 92. artikulua aipatutako bidesari eta kanonak aplikatuzetik sortutako fakturazioarekin proportzioan.

## **10. artikulua.** *Energia elektrikoa garraiatzeko sarea planifikatzea.*

1. Sistemaren operadoreak garraio-sarea planifikatzeko proposamena igorriko dio Industria, Energia eta Turismo Ministerioari 2012ko ekainaren 30a baino lehen. Proposamenak egungo egoera makroekonomikoa eta aurreikusten dena, eta, aurreikuspenen arabera, erregimen arruntean zein erregimen berezian eskaerak eta sortzeak izango duen bilakaera izango ditu oinarri. Igorritako proposamenaren helburuetako bat garraio-jardueraren eta elektrizitate-sistemaren kostuak murriztea izango da.

2. Ministroen kontseiluak energia elektrikoa garraiatzeko sarearen plangintza berriki onartu arte, ezingo da Estatuko Administrazio Orokorren eskumenekoak diren garraio-instalazioetarako administrazio-baimen gehiagorik eman.

3. Energia Politikako eta Mehatzeetako Zuzendaritza Nagusiak ezingo du elektrizitatearen sektorearen azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 36.3 artikuluan aipatutako aldeko txostena egin, harik eta Ministroen Kontseiluak energia elektrikoa garraiatzeko sarearen plangintza berria onartzen duen arte.

4. Nazioarteko interkonektioetarako beharrezkoak diren instalazioei ez zaie 2. eta 3. paragrafoetan xedatutakoa aplikatuko.

5. Salbuespen gisa eta Ministroen Kontseiluaren Akordioaren bitartez Energia Politikako eta Mehatzeetako Zuzendaritza Nagusia gaitu ahal izango da bere eskumenekoak diren instalazioen administrazio-baimena emateko edo autonomia-erkidegoek erabilitako garraio-instalazioen aldeko txostenak egiteko. Honako hauetan izango da salbuespen egoera: instalazioa ez eraikitzeak horniduraren segurtasunerako berehalako arriskua edo elektrizitate-sistemarako eragin ekonomiko negatiboa ekarriko badu, eta eraikitzea estrategikoa bada Estatuarentzat.

## **11. artikulua.** *Hornidura-bermeagatiko murrizketen mekanismoa aplikatzea.*

2012rako salbuespen gisa % 10 murriztuko da 2012ko ikatz-kopuruak, gehieneko ekoizpen-bolumena eta energiaren ordainsari-prezioak finkatzen dituen Energiaren Estatuko Idazkaritzaren 2011ko abenduaren 30eko Ebazpenean aurreikusitako gehieneko bolumena, hornidura-bermeagatiko murrizketak ebazteko prozesuan aplikatu beharrezkoa. Azkeneko hori hornidura-bermeagatiko murrizketak ebazteko prozedura zehazten duen, eta energia elektrikoa ekoizteko merkatua antolatzen eta arautzen duen abenduaren 26ko 2019/1997 Errege Dekretua aldatzen duen otsailaren 12ko 134/2010 Errege Dekretuak arautzen du.

## **12. artikulua.** *Ahalmenaren araberako ordainketak.*

1. 2012rako salbuespen gisa 23.400 €/MW/urtera murriztuko da sortze instalazioetarako ahalmenaren araberako epe luzeko inbertsiorako pizgarriari dagokion kopurua (zehazki, 2007ko urriaren 1etik aurrerako elektrizitatearen tarifak berrikusteko irailaren 27ko ITC/2794/2007 Aginduaren III. eranskinean zehaztutakoarekin bat, aipatu hobariaren ordainsaria aplikagarri zaien instalazioetarako kopurua).

2. Halaber, 2012ko salbuespen gisa, 7.875 €/MW/urtera murriztuko da ingurumen-inbertsiorako hobariaren kopurua, hain zuzen ere, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrerako elektrizitatearen tarifak berrikusteko abenduaren 28ko ITC/3860/2007 Aginduaren bigarren xedapen gehigarriak aipatutakoa.

3. 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako zerbitzuei lotutako ordainsariak jasotzen ari diren sortze-instalazioei aplikatuko zaie artikulua honetan xedatutakoa, baldin eta ordainsariok errege lege-dekretu hau indarrean jarri zenean jasotzen ari baziren.

### **13. artikulua.** *Etengarritasun-zerbitzua ordaintzea.*

1. Industria, Energia eta Turismoko ministroa gaitzen da etengarritasun-eskaera kudeatzen duten hornitzaileek jasoko duten gehieneko urteko kopurua zehazteko eta kopuru hori ez gainditzeko beharrezko mekanismoak garatzea ahalbidetuko duten xedapenak egiteko, sistemaren operadoreak txostena egin ondoren.

2. 505 milioi eurokoa izango da etengarritasun-eskaera kudeatzeko zerbitzuaren ordainsaria 2012an. Hori kalkulatzeko, epe horretan zerbitzua ematen duten hornitzaileek banaka jaso ahal izango dituzten ordainsariak batu egingo dira, energia ekoizpen-merkatuan eskuratzen duten kontsumitzaileentzako etengarritasun-eskaera kudeatzeko zerbitzua arautzen duen uztailaren 26ko ITC/2370/2007 Aginduaren 6. artikuluan definitutako formula aplikatuta.

3. Aurreko paragrafoan xedatutakoa betetzeko, honela kalkulatu da hornitzaile bakoitzak zerbitzua emateagatik jaso ahal izango duen ordainsaria: aipatu epeari uztailaren 26ko ITC/2370/2007 Aginduaren 6. artikuluan definitutako formula aplikatuko zaio, eta hortik aterako den kopuruari 2012ko banakako ordainsariari dagokion ehunekoak kenduko zaio proportzionalki. Banakako ordainsaria zerbitzu-hornitzaile guztien ordainsariarekiko kalkulatu da.

Sistemaren operadoreak etengarritasun-zerbitzuaren behin-behineko ordainsariaren nahiz aplikatutako zigorren 2012ko zenbatekoak, errege lege-dekretu hau indarrean sartu arte Energiaren Batzorde Nazionalari jakinarazitakoak, birkalkulatu egingo ditu, uztailaren 26ko ITC/2370/2007 Aginduaren 15. artikuluan xedatutakoarekin bat, eta 15. artikuluan aurreikusitako prozedurei eta epeei jarraiki lortutako kopuruen berri emango dio Batzordeari.

Sistemaren operadoreak errege lege-dekretu hau indarrean jarritakoan likidatu badu behin-behinean 2012ko hilabete batzuei dagokien ordainsaria, uztailaren 26ko ITC/2370/2007 Aginduaren 16. artikuluan xedatutakoarekin bat, likidazioa hurrengo behin-behineko likidazioan erregularizatuko da, artikulua honetan xedatutakoa betetzeko.

### **14. artikulua.** *Gas naturalaren lurpeko oinarritzko biltegitratzeak ordaintzea.*

1. Lurpeko biltegitratzeen kasuan, inbertsio-kostuengatik ordainsaria instalazioa zerbitzu komertzialean jarri eta biharamunetik aurrera sortuko da. Oro har,  $n$  urte bakoitzean sortutako ordainsaria  $n+1$  urtean zehar ordainduko da, gas naturalaren sektoreko jarduera arautuen ordainsaria eta helburu espezifikoak dituzten kuotak likidatzeko prozedurak arautzeko, eta enpresek eman behar duten informazio-sistema zehazteko urriaren 28ko ECO/2692/2002 Aginduan zehaztutakoarekin bat.

Halaber, urte natural batean baino gehiagotan sortutako ordainsariak ez dira urte natural berean ordainduko. Oinarritzko sarean sartuta dauden gas naturalaren lurpeko biltegitratzeen ordainketa zehazten duen abenduaren 29ko ITC/3995/2006 Aginduaren 6.1 artikulua aipatzen duen ordainketa erregimenean behin betiko sartzea ez bada hura zerbitzuan jarri den urte natural berean egiten, ordainsari-erregimenean behin betiko sartzen den « $j$ » urtean ordainduko da martxan jarri zen urtean sortutako ordainsaria; « $j+1$ » urtean ordainduko da martxan jarri zen urtearen hurrengo urtean sortutako ordainsaria, eta horrela gainerakoak.

Eragiketa- eta mantentze-kostuei ere sistema bera aplikatuko zaie; instalazioa merkataritzarako zerbitzuan jarri eta biharamunetik aurrera sortuko da hori ere.

Zerbitzuan jartzen den urterako, honela kalkulatu dira kostuok: « $i$ » ibilgetuaren elementua zerbitzuan egon den hilabete osoen kopurua proportzionalki zatituko da.

2 Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den egunean erregelamenduzko xedapenei jarraiki sortutako eta eskatutako kopuruei kalterik egin gabe, eten egin dira aipatu eskemak zehaztuta dituzten gas naturaleko lurpeko biltegitratzeen titularren alde behin-behineko ordainsari gisako kontzeptuan eginiko kopuru gehigarrien aintzatespena.

3. Abenduaren 29ko ITC/3995/2006 Aginduaren 3.5 artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, emakidadunak zuzenean bere gain hartzen ez dituen eragiketa- eta mantentze-lanak egitera bideratutako kontratu guztiak Energiaren Estatuko Idazkaritzari jakinarazi behar zaizkio, eta horrek ukatu edo baldintzatu egingo ditu,. Edozein modutara ere, lehiaren, gardentasunaren eta gutxieneko kostuaren printzipioekin bat esleituko dira guztiak, non eta ez den justifikatzen ezinezkoa dela.

4. Arloetako zuzendaritzek, edo, horiek ezean, industria eta energia arloetako bulegoek zerbitzuan jartzeko behin betiko akta egingo dute hilabeteko epean, titularrak instalazioak parametro nominaletan, dela injekzio-moduan, dela erauzte-moduan, gutxienez 48 orduz funtzionatu duela egiaztatzen duenetik kontatzen hasita.

Hala eta guztiz ere, zerbitzuan jartzeko behin-behineko akta eman ahal izango dute biltegitratze osorako, martxan jartzeko administrazio-baimenetan oro har zehaztutako baldintzak egiaztatzen direnean, eta koltxoi-gasa injektatzen hasi ahalko da. Aipatutako behin-betiko aktak eragina izaten hasi eta biharamunetik aurrera, behin-betiko ordainsaria ordaindu ahal izango da kontuan, sustatzaileek eskaera egin ondoren. Behin betiko ordainsaria indarrean den legedian zehaztutako termino, epe eta baldintzetan onartuko da, eta iragankorra izango da, harik eta zerbitzuan jartzeko behin-betiko akta egiten den arte. Hortaz, ordaindutako kopuruak ez dira irmoak izango aipatu akta egin arte.

Ordainsari iragankorra eskatzen denetik, zerbitzuan jartzeko behin betiko akta egiten den arte, titularrek bermeak eratuko dituzte Energia Politikako eta Mehatzeetako Zuzendaritza Nagusiaren alde, funtzionamendu-parametro nominalak betetzen direla ziurtatzeko. Bermeak ordaindutako ordainsariaren % 10 izango dira. Bermea progresiboki eratuko da; hartara, n-1 urte naturalean benetan ordaindutako zenbatekoarekin eratuko da gehienez ere n urteko urtarrilaren 31n, eta otsailaren 7ko 161/1997 Errege Dekretuak onartutako Gordailuen Kutxa Orokorren Arautegiaren 3. artikuluan aurreikusitako terminoei jarraiki formalizatuko da.

#### **Lehenengo xedapen gehigarria.** *Energia elektrikoaren kontsumitzaile ahulak artatzea.*

Errege lege-dekretu hau indarrean jarri eta hiru hilabetera, enpresa merkaturatzaileek elektrizitatearen sektorearen azaroaren 27ko 54/1997 Legearen hogeigarren xedapen iragankorrak aipatutako telefono bidezko arreta-zerbitzua eta telefono zenbakia jarri beharko dituzte kontsumitzaileen esku.

#### **Bigarren xedapen gehigarria.** *Merkaturatzaileen dituzten betebeharrak erreklamazioei erantzuteko zerbitzuarekin loturik*

Enpresa merkaturatzaileek hidrokarburoen sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legearen 81.2.n) artikuluan xedatutakoa betetzeko beharrezko egokitzapenak egin beharko dituzte, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik hiru hilabete igaro baino lehen.

#### **Hirugarren xedapen gehigarria.** *Lehendik dauden gaikuntzen baliozkotasuna eta eraginkortasuna.*

Xedapen iragankor bakarrean zehaztutakoari kalterik egin gabe, 2009ko abenduaren 31rako bazeuden gaikuntza eta gaitzen duten titulu guztiak, hain zuzen ere telekomunikazioen azaroaren 3ko 32/2003 Lege Orokorrek eta hura garatzeko araudiak ezarritako erregimen juridikoaren babesean emandakoak, baliozkoak eta eraginkorrak izango dira oraindik ere, horiei aplikatuko zaien erregimen juridikoa errege lege-dekretu honetan sartutako araudien ondoriozkoa izango bada ere.

#### **Laugarren xedapen gehigarria.** *Energia elektrikoaren kontsumoa fakturatzea.*

Industria, Energia eta Turismo ministroari emango zaio ebazpen judizialei jarraiki energia elektrikoa kontsumitzen dutenei egin beharreko birfakturazio osagarriari dagozkien kopuruak zehaztu adina fakturatan zatikatu ahal izateko beharrezko xedapenak egiteko

gaitasuna, baldin eta ordaintzeko saldoa kontsumitzaileak ordaindu behar badu. Fakturok 2012ko abenduaren 31n egin beharko dira.

**Bosgarren xedapen gehigarria.** *Erregai aldatzeagatiko gainkostuaren mugak, uharteetako eta penintsulaz kanpoko sistemetan.*

Industria, Energia eta Turismoko ministroari emango zaio uharteetako eta penintsulaz kanpoko elektrizitate-sistemetak sortze-zentraletan arrazoi teknikoak direla-eta justifikatzen ez diren gainkostuak, sarbide-bidesarien kargura asumitu daitezkeenak, mugatzeko gaitasuna.

**Lehenengo xedapen iragankorra.** *Energia elektrikoaren sareetara eta gas-sistemara sartzeko bidesariak ezartzea.*

1. Elektrizitatearen sektorearen azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 17. artikuluan xedatutakoarekin bat onartuko dira sarbide-bidesariak, Energiaren Batzorde Nazionalak energia elektrikoa garraiatzeko eta banatzeko kostuei dagokien elektrizitate sareetara sartzeko bidesarien zatia kalkulatzeko metodologia zehazten duen arte, hidrokarburoen sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legearen hamaikagarren xedapen gehigarrian (hirugarrena.1.hemeretzigarrena.i) xedatutakoarekin bat.

2. Energiaren Batzorde Nazionalak gas-instalazioetara sartzeko oinarrizko zerbitzuen bidesariak eta kanonak kalkulatzeko metodologia zehazten duen arte, hidrokarburoen sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legearen hamaikagarren xedapen gehigarriaren hirugarren atalaren 1. azpiataleko hemeretzigarren puntuko IV. pasartean xedatutakoaren arabera, adierazitako legean bildutako irizpideak aplikatuko dira, baita hirugarren pertsonak gas-instalazioetan sartzeara arautzen duen eta gas naturalaren sektorearen sistema ekonomiko integratua ezartzen duen abuztuaren 3ko 949/2002 Errege Dekretuan eta hura garatzeko aginduetan ezarritakoa ere.

**Bigarren xedapen iragankorra.** *Gasbideen enbor-sareko instalazioak.*

1. Industria, Energia eta Turismoko ministroaren aginduz, gas naturalaren enbor-sareko zer instalazio izendatuko diren gas naturalaren oinarrizko sareko instalazio zehaztuko da, errege lege-dekretu hau indarrean sartu eta gehienez ere bi hilabeteko epean.

Orobat Industria, Energia eta Turismoko ministroak, oinarrizko sarearen garapena dela-eta, zer instalazio pasako diren enbor-sarera zehaztuko du.

2. Gas naturalaren enbor-sareko instalazioen baten jabe diren enpresek jarduerabereizketaren egiaztapena eskatu beharko diote Energiaren Batzorde Nazionalari, aurreko paragrafoaren 1. lerrokadan aipatutako ministro-agindua ematen denetik bi hilabete igaro baino lehen, edo, bestela, sare-kudeatzaile burujabe izateko izendapena eskatu duen enpresaren batekin aipatu instalazioen kudeaketa lagatzeko sinatutako kontratua aurkeztu beharko diote.

**Hirugarren xedapen iragankorra.** *Penintsulako birgasifikazio-instalazio berriei buruzko prozeduren izapidetzea etetea.*

1. Eten egin da penintsulako birgasifikazio-instalazio berriak esleitzeko eta emateko prozeduren izapidetzea, mota horretako instalazioen administrazio-baimena, gauzatze-proiektuaren baimena eta zerbitzuan jartzeko akta barne.

2. Dena dela, penintsulan dauden birgasifikazio-instalazioek, baldin eta gauzatze-proiektua onartuta badute, azpiegitura eraikitzen jarraitu ahal izango dute, eta zerbitzuan jartzeko akta ematea eska dezakete ondoren, hurrengo paragrafoan adierazitako ondorioetarako.

Hala aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuan, nola, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denean, zerbitzuan jartzeko akta ematea eskatu duten eta lege hori dela-eta eman ez dieten penintsulako birgasifikazio-instalazioen kasuan, horien titularrek

behin-behineko ordainsari bat kobratzeko eskubidea izango dute, zerbitzuan jartzeko akta-eskaera aurkeztzen denetik hilabeteko epea igaro baino lehen, abenduaren 27ko 1434/2002 Errege Dekretuaren 85. artikuluan, garraio-, banaketa-, merkaturatze- eta hornidura-jarduerak, eta gas naturalaren instalazioak baimentzeko prozedurak arautzekoan, zehaztutako baldintzetan. Behin-behineko ordainsari hori ibilgetuaren finantza-ordainsariaren berbera izango da, eta n urte bakoitzean kalkulatu da, instalazio mota horretarako indarrean den ordainsari-tasa (TRi) inbertsioaren balio garbiari aplikatuta. Halaber, Industria, Energia eta Turismo ministroak eragiketa- eta mantentze-kostuengatik jaso beharreko ordainsaria zehaztuko du, instalazioa zerbitzuan jartzeko prest egon dadin, hala zehazten denean.

Gobernuak instalazio horien izapidea berrezarri ahal izango du erregelamendu bidez.

3. Dagoeneko funtzionatzen ari diren birgasifikazio-instalazioen zabalteei ez zaie xedapen hori aplikatuko.

**Laugarren xedapen iragankorra.** *Garraio-gasbide eta erregulazio- eta neurketa-estazio berrien administrazio-baimenik ez ematea.*

1. Ezingo da baimendu garraio-gasbiderik eta erregulazio- eta neurketa-estaziorik, administrazio-baimena lortzeko edo eskatzeko zain dagoenik, 2008-2016 aldirako elektrizitatearen eta gasaren sektoreen plangintza-dokumentuan jasota dagoenik; hain zuzen ere, nazioarteko konpromiso edo, lotutako eskaintza handitu dela-eta, sistemarako ekonomikoki errentagarri ez denik, harik eta Ministroen Kontseiluak, akordio bidez, gas naturala garraiatzeko sarearen plangintza berria onartu arte. Aipatu plana Ministroen Kontseiluak onartu zuen 2008ko maiatzaren 30ean, eta azaroaren 8ko ITC/2906/2010 Aginduak, energia elektrikoa eta gas naturala garraiatzeko sareen salbuespenezko instalazioen eta jardueren urteko programa onartzen duenak, aldatu zuen.

Ministroen Kontseiluaren akordio bidez berrezarri ahalko da instalazio horien banakako eta salbuespenezko izapidetzea. Salbuespeneko egoera honako hauek justifikatuko dute: instalazioa hiru urteko epean ez eraikitzeak horniduraren segurtasunerako berehalako arriskua edo gas-sistemarako eragin ekonomiko negatiboa ekarriko badu, eta eraikitzea estrategikoa bada Estatuarentzat.

2. Beren eragin-inguruan hornitzen duten gasbideei ez zaie xedapen honen 1. paragrafoan xedatutakoa aplikatuko. Kasu horretan, azpiegituren errentagarritasun ekonomikoa justifikatzeko, sustatzaileek kontsumitzaile potentzialen, eta, horiek ezean, dagokien banatzaileen konpromisoa aurkeztu beharko diote Energia Politikako eta Mehatzeetako Zuzendaritza Nagusiari eta instalazioa baimentzeko eskumena duen agintaritzari, instalatzeko baimen-eskaerarekin batera. Konpromisoan, honako hauek egiaztatuko dira behar bezala kontsumitzaile garrantzitsu bakoitzarentzat (1 GWh/urte baino gehiago): aurreikuspenen arabera, hurrengo sei urteetan urtero kontsumituko den gas natural kopurua, kontsumitzaile bakoitza gasa noiz hasiko den kontsumitzen eta horniduraren presioa. Informazio hori oinarri hartuta, proiektuan egin beharreko inbertsioaren bideragarritasun ekonomikoa aztertuko du instalazioa baimentzeko agintaritza eskudunak. Diru-sarrera nahikorik lortzen ez bada bidesarien bidez, ez da behar bezala justifikatuta egongo azpiegitura hori eraikitzeko beharra, eta baimena ukatu egingo da. Azpiegitura zerbitzuan jarri ondoren, hori eraikitzea justifikatu zuten beharrezko kontsumo mailak lortzen ez badira, garraiolariaren ordainsaria gutxitu egingo da, gas-sistemak ez dezan jasan azpiegitura eraikitzetik eratorritako bat ez etortzerik. Industria, Energia eta Turismo ministroak instalazio horien ordainsaria zer-nola gutxituko den zehaztuko du.

3. Xedapen honen 1. paragrafoan zehaztutakoaren ondorioetarako, baztertuta daude aurretik hartutako nazioarteko konpromisoekin lotura duten azpiegitura hauek:

a) Zarza de Tajo-Yela gasbidea. Larrau nazioarteko konexioarekin lotura duen azpiegitura.

b) Euskadour konpresio-estazioa. Irun/Biriatou nazioarteko konexioarekin lotura duen azpiegitura.

**Bosgarren xedapen iragankorra.** *Sistemaren operadorea finantzatzea.*

Industria, Energia eta Turismoko ministroaren agindu bidez finantzatuko da sistemaren operadorea, harik elektrizitatearen sektorearen azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 16. artikulua 10. paragrafoan aurreikusitako metodologia garatu arte.

**Seigarren xedapen iragankorra.** *Energia Politikako eta Mehatzeetako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenen, 2012ko lehenengo hiruhilekoan aplikatu beharreko energia elektrikoaren azken errekurtsoko tarifak eta gas naturalaren azken errekurtsoko tarifak zehazten dituztenen, indarraldiaren luzapena.*

1. Salbuespen gisa, azken errekurtsoko tarifaren prezioen indarraldia luzatuko da. Preziook Energia Politikako eta Mehatzeetako Zuzendaritza Nagusiak 2011ko abenduaren 30ean emandako ebazpenean, energia elektrikoaren ekoizteko prezioa eta 2011ko abenduaren 23tik 31ra eta 2012ko lehenengo hiruhilekoan aplikagarri diren azken errekurtsoko tarifak zehaztekoan, jasotzen dira. Ebazpena aipatutako zuzendaritza nagusiaren 2012ko otsailaren 2ko ebazpenaren bidez zuzendu da.

Nolanahi ere, aipatu ebazpeneko azken errekurtsoko tarifaren prezioak berrikusi egingo dira, garraio- eta banaketa-sareetara sartzeko prezioen eguneraketak gehitzeko, elektrizitatearen sektorearen azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 18. artikuluan aurreikusitakoa betez. Berrikuspenak 2012ko apirilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta, hala badagokio, birfakturaketa osagarriak izango ditu ondorio, errege legegoketaren honen laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.

2. Salbuespenez, luzatu egingo da gas naturalaren azken errekurtsoko tarifa, gas naturalaren azken errekurtsoko tarifa argitaratzeko Energia Politikako eta Mehatzeetako Zuzendaritza Nagusiak 2011ko abenduaren 30ean egindako ebazpenaren bidez onartutakoa.

Aurrekoari kalterik egin gabe, berrikusi egingo da azken errekurtsoko tarifa, sistemara sartzeko bidesari eta kanonen termino finko eta aldagarrietan egiten diren eguneraketak txertatzeko. Halaber, termino aldakorra Cn lehengaiaren kostuarekin eguneratuko da, gas naturalaren azken errekurtsoko tarifa kalkulatzeko metodologia ezartzen duen ekainaren 22ko ITC/1660/2009 Aginduaren 8. artikuluko formula aplikatuta. Salbuespenez, eta ekainaren 22ko ITC/1660/2009 Aginduaren 10. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, berrikuspenak tarifa berria ezartzen duen Energia Politikako eta Mehatzeetako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenean adierazitako egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

**Zazpigarren xedapen iragankorra.** *Teknologia- eta zerbitzu-neutraltasunaren printzipioak murriztea, komunikazio elektronikoaren zerbitzuak emateko espektro irrati-ekonomikoa erabiltzeko gaitzen duten tituluetan.*

1. Komunikazio elektronikoaren zerbitzuak emateko espektro irrati-ekonomikoa erabiltzeko gaitzen duten tituluetan, 2011ko maiatzaren 25a baino lehen emandakoetan, zehaztutako baldintzak 2016ko maiatzaren 25era arte izango dira baliozkoak, baldin eta teknologia- eta zerbitzu-neutraltasunaren printzipioak murrizten badituzte, telekomunikazioen azaroaren 3ko 32/2003 Legearen 43. artikulua 6. eta 8. paragrafoetan zehaztutako terminoetan.

2. Aurrekoa gorabehera, komunikazio elektronikoetarako zerbitzuak emateko espektro irrati-ekonomikoa erabiltzeko gaitzen duten tituluen jabeek –haien indarraldia 2016ko maiatzaren 25etik harago badoa– Telekomunikazioen eta Informazioaren Gizartearen Estatuko Idazkaritzari eskatu ahalko diote, 2016ko maiatzaren 25a baino lehen, beren gaikuntza tituluetako neutraltasun teknologikoko eta zerbitzuak emateko printzipioen mugak ebaluatzea, 32/2003 Legearen 43. artikulua 6. eta 9. paragrafoetan zehaztutako baldintzetan.

Ebazpena eman baino lehen, Telekomunikazioen eta Informazioaren Gizartearen Estatuko Idazkaritzak murrizketen ebaluazioaren berri emango dio gaikuntza-tituluen

titularrari, ebaluazioaren ondoren tituluak duen irismena adierazita, eta eskaera baztertzeko 15 eguneko epea emango dio.

Tituluaren titularrak eskaera atzera botako balu, gaikuntza-tituluaren zehaztutako teknologia- eta zerbitzu-neutraltasunaren printzipioen murrizketek beren horretan jarraituko dute 2016ko maiatzaren 25era arte, non eta tituluak ez den aurretik iraungitzen.

3. 2016ko maiatzaren 25etik aurrera, komunikazio elektronikoen zerbitzuak emateko espektror irati-elektrokoa erabiltzeko gaitzen duten titulu guztiei, 2011ko maiatzaren 25a baino lehen emandakoei, aplikatuko zaizkie teknologia- eta zerbitzu-neutraltasunaren printzipioak, telekomunikazioen azaroaren 3ko 32/2003 Legearen 43. artikulua 6. eta 8. paragrafoetan zehaztutako terminoetan ezar daitezkeen murrizketei kalterik egin gabe.

4. Xedapen hau aplikatzeko, lehia zintzoa sustatzeko neurri egokiak hartuko dira.

5. Xedapen hau gauzatzekoan hartuko diren neurriak ez dira inola ere beste gaikuntza-titulutzat joko.

### **Xedapen indargabetzaile bakarra.** *Arauk indargabetzea.*

Indargabetuta geratu dira errege lege-dekretu honetan ezarritakoaren kontra dauden maila bereko eta txikiagoko xedapenak, eta bereziki:

a) Hidrokarburoen sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legearen 49.2 artikulua e) eta i) lerroak.

b) Elektrizitatearen sektoreari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legea elektrizitatearen barne-merkatu arau komunei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren ekainaren 26ko 2003/54/EE Zuzentaraua xedatutakora egokitzeko aldatu zuen uztailaren 4ko 17/2007 Legearen hirugarren xedapen gehigarria.

c) Ikus-entzunezko komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorren lehenengo xedapen gehigarria.

d) Telekomunikazioei buruzko azaroaren 3ko 32/2003 Lege Orokorren I. eranskinaren 1. paragrafoaren (operadoreen tasa orokorra) azken lerroa.

### **Azken xedapenetan lehena.** *Erkidegoko zuzenbidea barne hartzea.*

1. Honako hauek barnean hartu dira partez Espainiako zuzenbidean, errege lege-dekretu honen 1. artikulua bidez: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/72/EE Zuzendaraua, elektrizitatearen barne-merkatu arau komunei buruzkoa, 2003/54/EE Zuzendaraua indargabetzen duena, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko apirilaren 23ko 2009/28/EE Zuzendaraua, iturri berriztagarrietatik datorren energia erabiltzea sustatzeari buruzkoa, 2001/77/EE eta 2003/30/EE Zuzendarauak indargabetzen dituena.

2. Honako hau barnean hartu da partez Espainiako zuzenbidean, errege lege-dekretu honen 1. artikulua bidez: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/73/EE Zuzendaraua, gas naturalaren barne-merkatu arau komunei buruzkoa, 2003/55/EE Zuzendaraua indargabetzen duena.

3. Honako hauek barnean hartu dira Espainiako ordenamendu juridikoan, errege lege-dekretu honen 3. eta 4. artikulua bidez: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren 25eko 2009/136/EE Zuzendaraua, komunikazio elektronikoko sareekin eta zerbitzuekin lotutako zerbitzu unibertsalari eta erabiltzaileen eskubideei buruzko 2002/22/EE Zuzendaraua aldatzen duena; 2002/58/EE Zuzendaraua, komunikazio elektronikoen sektoreko datu pertsonalak tratatzeari eta intimitatea babesteari buruzkoa; 2006/2004 (EE) Erregelamendua, kontsumitzaileak babesteko lankidetzan aritzeari buruzkoa; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren 25eko 2009/140/EE Zuzendaraua, komunikazio elektronikoko sareen eta zerbitzuen esparru arautzaile komunari buruzko 2002/21/EE Zuzendaraua aldatzen duena; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko martxoaren 7ko 2002/19/EE Zuzendaraua, komunikazio elektronikoko sareetara eta antzeko baliabideetara sartzei eta horren interkonexioari buruzkoa; eta 2002/20/EE Zuzendaraua, komunikazio elektronikoko sare eta zerbitzuak baimentzei buruzkoa.

**Azken xedapenetan bigarrena.** *Elektrizitatearen sektoreari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legea aldatzea.*

Elektrizitatearen sektoreari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 16. artikuluari 10. paragrafoa gehitu zaio. Honakoa da:

«10. Gobernuak erabakitako metodologiaren arabera zehaztuko da sistemaren operadorearen ordainsaria, ematen dituen zerbitzuen arabera.

Industria, Energia eta Turismo Ministerioak zehaztuko du sistemaren operadorearen ordainsaria urtero, bidesariak berrikusten dituenean.

Horrek subjektuei zer prezio kobratzen dien, horren arabera finkatuko da zenbatekoa. Industria, Energia eta Turismo Ministerioak finkatuko ditu preziook.»

**Azken xedapenetan hirugarrena.** *Hidrokarburoen sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legea aldatzea.*

Aldatu egin da hidrokarburoen sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legea. Honela egongo da idatzita:

Bat. Aldatu egin da hidrokarburoen sektorearen 34/1998 Legearen hamabigarren xedapen gehigarriaren 2. paragrafoaren bigarren puntuaren f) hizkia, eta honela geldituko da idatzita:

«f) Karga-tasak eta kuota. Energiaren Batzorde Nazionalean sartu beharreko zerga-kuota zehazteko zerga-oinarriarekin biderkatuko den tasa ehuneko 0,150ekoa izango da, elektrizitatearen sektorearen azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 17. artikuluan aipatutako bidesarietarako.»

Bi. Aldatu egin da hidrokarburoen sektorearen 34/1998 Legearen hamabigarren xedapen gehigarriaren 2. paragrafoaren hirugarren puntuaren e) hizkia, eta honela geldituko da idatzita:

«e) Karga-tasak eta kuota. Energiaren Batzorde Nazionalean sartu beharreko zerga-kuota zehazteko zerga-oinarriarekin biderkatzeko erabiliko den tasa ehuneko 0,140koa izango da.»

**Azken xedapenetan laugarrena.** *Uharteetako eta penintsulaz kanpoko elektrizitate-sistemak arautzeko abenduaren 19ko 1747/2003 Errege Dekretua aldatzea.*

Aldatu egin da uharteetako eta penintsulaz kanpoko elektrizitate-sistemak arautzeko abenduaren 19ko 1747/2003 Errege Dekretua, eta honela geldituko da idatzita:

Bat. Aldatu egin dira 6.4 artikulua bigarren lerrokadako honako puntu hauek:

«2.3 artikuluan beharrezko potentzia gisa definitutakoa izango da uharteetako eta penintsulaz kanpoko elektrizitate-sistema bakoitzerako ordainduko den potentzia-bermean aintzat hartu beharreko potentzia. 2.3 artikuluan definitutako beharrezko potentzia gaitzen duen uharteetako eta penintsulaz kanpoko elektrizitate-sistemetako sortze-instalazio berrietan instalatutako potentzia instalazio horretako potentzia-bermea kalkulatzeko aintzat hartu ahal izango da, betiere, martxan diren instalazio amortizatuen potentzia ordeztzen badute, hornidura-segurtasuna edo sistemaren eraginkortasun tekniko eta ekonomikoa direla-eta.»

Bi. Ezabatu egin da zentral amortizatuen ordainsariari buruzko 6. artikulua 4. paragrafoaren azken lerrokada.

**Azken xedapenetan bosgarrena.** *Eskumen-tituluak.*

1. I. eta III. tituluak, lehenengo eta bigarren xedapen gehigarriak, lehenengotik seigarrengora bitarteko xedapen iragankorrak eta amaierako bigarren xedapenetik



laugarrengorakoak Estatuari dagozkion eskumenen babesean eman dira, Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua 13. eta 25. arauen arabera; arau horiek eskumen eskusiboa ematen diote Estatuari jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa zehazteko, baita mehatzeen eta energiaren erregimenaren oinarriak zehazteko ere.

2. II. tituluaren 3. artikulua, hirugarren xedapen gehigarria, zazpigarren xedapen iragankorra eta amaierako seigarren xedapena Estatuak, Konstituzioaren 149.1.21 artikuluan ezarritakoari jarraiki, telekomunikazioen arloan duen eskumen eskusiboaren babesean onartu dira.

3. II. tituluaren 4. artikulua Estatuak, Konstituzioaren 149.1 artikulua 6., 8. eta 21. arauen arabera, merkataritza-legegintzaren, prozesu-legegintzaren eta legegintza zibilarren arloetan eta telekomunikazioenean duen eskumen eskusiboaren babesean onartu da, autonomia-erkidegoen eskumenei kalterik egin gabe.

**Azken xedapenetan seigarrena.** *Irrati Komunikazioen Estatuko Agentzia kentzea.*

1. Kendu egin da Irrati Komunikazioen Estatuko Agentzia, telekomunikazioen azaroaren 3ko 32/2003 Lege Orokorraren 47. artikulua bidez sortutakoa.

2. Hemendik aurrera, Telekomunikazioen eta Informazioaren Gizartearen Estatuko Idazkaritzaren esku egongo dira aipatu agentziak zituen funtzioak eta eskumenak.

3. Telekomunikazioei buruzko azaroaren 3ko 32/2003 Lege Orokorra eta indarrean den gainerako araudiak Irrati-komunikazioen Estatuko Agentziari buruz egindako erreferentzia oro Telekomunikazioen eta Informazioaren Gizartearen Estatuko Idazkaritzari egin zaiola ulertuko da.

**Azken xedapenetan zazpigarrena.** *Erregelamendu bidez garatzeko gaitzea.*

Gobernari baimena ematen zaio, bere eskumenen baitan, errege lege-dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezko diren xedapen guztiak emateko.

**Azken xedapenetan zortzigarrena.** *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, hidrokarburoen sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legearen 63. artikulua aldaketa izan ezik, 2013ko martxoaren 3an jarriko baita indarrean, eta azken xedapenetako bigarrenean aurreikusitakoa izan ezik, hark erreferentzia egiten dion metodologia zehazten duen Ministroen Kontseiluaren akordioa eraginkor bihurtzen den egunetik aurrera aplikatuko baita.

Madriren, 2012ko martxoaren 30ean.

JUAN CARLOS E.

Gobernuko presidentea,  
MARIANO RAJOY BREY

## I. ERANSKINA

**Beren sareetara 100.000 bezero baino gutxiago konektatuta dituzten enpresa  
banatzaileen 2012ko ordainsaria**

Erregistro zk.	Enpresa banatzailea	Euro
R1-014	AGRI-ENERGIA ELECTRICA, SA . . . . .	6.864.117
R1-015	BASSOLS ENERGIA, SA. . . . .	11.734.726
R1-016	ELECTRA CALDENDE, SA . . . . .	4.520.826
R1-017	ELECTRA DEL MAESTRAZGO, SA . . . . .	5.258.995
R1-018	ESTABANELL Y PAHISA ENERGIA, SA . . . . .	19.008.567
R1-019	ELECTRICA DEL EBRO, SA . . . . .	3.614.050
R1-020	PRODUCTORA ELECTRICA URGELENSE, SA (PEUSA) . . . . .	4.025.700
R1-021	SUMINISTRADORA ELECTRICA DE CADIZ, SA . . . . .	21.079.935
R1-022	CENTRAL ELECTRICA SESTELO Y CIA, SA . . . . .	5.038.831
R1-023	HIDROELECTRICA DEL GUADIELA I, SA . . . . .	3.905.868
R1-024	COOPERATIVA ELECTRICA ALBORENSE, SA . . . . .	124.808
R1-025	INDUSTRIAS PECUARIAS DE LOS PEDROCHES, SA . . . . .	5.528.073
R1-026	ENERGÍAS DE ARAGÓN I, SLU . . . . .	4.085.467
R1-027	COMPAÑÍA MELILLENSE DE GAS Y ELECTRICIDAD, SA . . . . .	9.236.762
R1-028	MEDINA GARVEY ELECTRICIDAD, SLU . . . . .	7.167.053
R1-029	DISTRIBUIDORA ELECTRICA DEL SIL, SL . . . . .	2.679.857
R1-030	EMPRESA DE ALUMBRADO ELECTRICO DE CEUTA DISTRIBUCION, SAU . . . . .	9.410.708
R1-031	DISTRIBUIDORA DE ENERGIA LECTRICA ENRIQUE GARCIA SERRANO, SL. . . . .	242.479
R1-032	REPSOL ELÉCTRICA DE DISTRIBUCIÓN, SL. . . . .	2.923.263
R1-033	LTDA. BENEFICA DE CONS. DE ELECT. «SAN FRANCISCO DE ASIS» DE CREV. KOOP. . . . .	4.501.972
R1-034	ELECTRICIDAD DE PUERTO REAL, SA (EPRESA) . . . . .	3.282.291
R1-035	ELECTRICA DEL OESTE DISTRIBUCION, SLU. . . . .	8.247.985
R1-036	DISTRIBUIDORA ELECTRICA BERMEJALES, SA. . . . .	4.132.588
R1-037	ELECTRA DEL CARDENER, SA . . . . .	2.544.246
R1-038	ELECTRICA SEROSENSE DISTRIBUIDORA, SL. . . . .	3.236.419
R1-039	HIDROELECTRICA DE LARACHA, SL . . . . .	2.176.644
R1-040	SOCIEDAD ELECTRICISTA DE TUY, SA . . . . .	2.808.734
R1-041	ELECTRA ALTO MIÑO, SA . . . . .	2.657.545
R1-042	UNION DE DISTRIBUIDORES DE ELECTRICIDAD, SA (UDESА). . . . .	3.739.114
R1-043	ANSELMO LEON DISTRIBUCION, SL . . . . .	4.508.206
R1-044	COMPAÑÍA DE ELECTRICIDAD DEL CONDADO, SA . . . . .	3.878.238
R1-045	ELECTRA AUTOL, SA . . . . .	1.337.392
R1-046	DISTRIBUIDORA ELECTRICA TENTUDIA, SLU. . . . .	1.906.798
R1-047	FELIX GONZALEZ, SA. . . . .	3.565.642
R1-048	LA PROHIDA DISTRIBUCIÓN ELÉCTRICA, SL . . . . .	1.256.577
R1-049	ELECTRICAS PITARCH DISTRIBUCION, SLU. . . . .	7.507.171
R1-050	HIJOS DE JACINTO GUILLEN DISTRIBUIDORA ELECTRICA, SLU . . . . .	2.754.606
R1-051	JUAN DE FRUTOS GARCIA, SL . . . . .	1.239.803
R1-052	LESA ELECTRICITAT, SL . . . . .	1.588.474
R1-053	DIELESUR, SL . . . . .	2.550.330
R1-054	ENERGIA DE MIAJADAS, SA . . . . .	2.412.368
R1-055	AGUAS DE BARBASTRO ELECTRICIDAD, SA . . . . .	2.108.776
R1-056	VALL DE SOLLER ENERGÍA, SLU (EL GAS, SA). . . . .	2.856.951
R1-057	ROMERO CANDAU, SL. . . . .	1.880.663
R1-058	HIDROELECTRICA DE SILLEDA, SL . . . . .	2.037.066
R1-059	GRUPO DE ELECTRIFICACION RURAL KOOP RL . . . . .	2.325.863
R1-060	SUMINISTROS ESPECIALES ALGINETENSES, KOOP V. . . . .	2.067.006
R1-061	OÑARGI, SL . . . . .	1.225.286

Erregistro zk.	Enpresa banatzailea	Euro
R1-062	SUMINISTRO DE LUZ Y FUERZA, SL	3.216.816
R1-063	COOPERATIVA ELECTRICA BENEFICA CATRALENSE, KOOP V.	854.825
R1-064	ELECTRA DE CARBAYIN, SA	1.052.207
R1-065	ELÈCTRICA DE GUIXÉS, SL	588.622
R1-066	ELECTRICA VAQUER, SA	795.253
R1-067	HERMANOS CABALLERO REBOLLO, SL	157.318
R1-068	COMPAÑIA DE ELECTRIFICACION, SL	644.370
R1-069	DISTRIBUIDORA ELÉCTRICA DE MELÓN, SL	294.161
R1-070	ELECTRA DE CABALAR, SL	356.592
R1-071	ELECTRA DEL GAYOSO, SL	538.000
R1-072	ELECTRA DEL NARAHIO, SA	1.113.582
R1-073	ELECTRICA DE BARCIADEMERA, SL	44.110
R1-074	ELECTRICA DE CABAÑAS, SL	228.457
R1-075	ELECTRICA DE GRES, SL	173.838
R1-076	ELECTRICA DE MOSCOSO, SL	1.607.877
R1-077	ELECTRICA CORVERA, SL	1.008.090
R1-078	ELECTRICA FUCIÑOS RIVAS, SL	802.877
R1-079	ELECTRICA LOS MOLINOS, SL	1.354.303
R1-080	HIDROELECTRICA DEL ARNEGO, SL	364.699
R1-081	SAN MIGUEL 2000 DISTRIBUCION, SLU	576.000
R1-082	SUCESORES DE MANUEL LEIRA, SL	354.134
R1-083	BERRUEZA, SA	1.024.755
R1-084	BLAZQUEZ, SL	487.479
R1-085	CENTRAL ELECTRICA MITJANS, SL	175.898
R1-086	CENTRAL ELECTRICA SAN FRANCISCO, SL	635.277
R1-087	DISTRIBUCION ELECTRICA LAS MERCEDES, SL	687.104
R1-088	ELECTRICA DE CANILES, SL	395.829
R1-089	DISTRIBUIDORA ELECTRICA DE RELLEU, SL	469.402
R1-090	ELECTRA ADURIZ, SA	3.195.525
R1-091	ELECTRA AVELLANA, SL	815.736
R1-092	ELECTRA CASTILLEJENSE, SA	562.940
R1-093	DISTRIBUIDORA DE ELECTRICIDAD LARRAÑAGA, SL	33.194
R1-094	ELECTRA SAN CRISTOBAL, SL	448.310
R1-095	ELECTRICA BELMEZANA, SA	470.534
R1-096	ELECTRICA LA VICTORIA DE FUENCALIENTE, SA	255.129
R1-097	ELECTRICA LOS PELAYOS, SA	505.505
R1-098	ELECTRICA NTRA. SRA. DE LOS REMEDIOS, SL	1.143.846
R1-099	ELECTRICITAT LA AURORA, SL	549.100
R1-100	ELECTRO DISTRIBUCION DE ALMODOVAR DEL CAMPO, SA	990.181
R1-101	ELECTRO MOLINERA DE VALMADRIGAL, SL	1.460.473
R1-102	EMPRESA DE ELECTRICIDAD SAN JOSE, SA	492.545
R1-103	HIDROELECTRICA DE SAN CIPRIANO DE RUEDA, SL	347.538
R1-104	HIDROELECTRICA VIRGEN DE CHILLA, SL	1.262.847
R1-105	LA ERNESTINA, SA	715.811
R1-106	DIELENOR, SL	1.417.899
R1-107	DISTRIBUIDORA DE ENERGÍA ELÉCTRICA DEL BAGES, SA	1.389.261
R1-108	ENERGÉTICA DE ALCOCER, SLU	878.396
R1-109	ELECTRICA MAFERGA, SL	200.403
R1-110	GRACIA UNZUETA HIDALGO E HIJOS, SL	217.242
R1-111	AURORA GINER REIG, SL	75.210
R1-112	DISTRIBUIDORA ELECTRICA DE ARDALES, SL	419.266
R1-113	ELECTRA SIERRA MAGINA, SL	432.503

Erregistro zk.	Enpresa banatzailea	Euro
R1-114	ELECTRICA HERMANOS CASTRO RODRIGUEZ, SL	333.913
R1-115	HIDROELECTRICA VEGA, SA	1.677.080
R1-116	HIJO DE JORGE MARTIN, SA	241.354
R1-117	JOSE RIPOLL ALBANELL, SL	285.971
R1-118	JOSEFA GIL COSTA, SL	32.111
R1-119	LEANDRO PEREZ ALFONSO, SL	641.628
R1-120	SOCIEDAD DISTRIBUIDORA ELECTRICA DE ELORRIO, SA	210.847
R1-121	SOCIEDAD ELECTRICA NTRA. SRA. DE LOS DESAMPARADOS, SL	1.029.933
R1-122	DISTRIBUIDORA ELECTRICA DE GAUCIN, SL	571.296
R1-123	ELECTRA ALVARO BENITO, SL	139.023
R1-124	ELÉCTRICA CAMPOSUR, SL	221.032
R1-125	ELECTRICA DE ERISTE, SL	107.012
R1-126	ELECTRICIDAD HIJATE, SL	198.142
R1-127	JUAN N. DIAZ GALVEZ Y HERMANOS, SL	840.351
R1-128	ELÉCTRICA DE CHERA, S.C.V.	109.961
R1-129	HIDROELECTRICA GOMEZ, SLU	187.453
R1-130	HIDROELECTRICA DE ALARAZ, SL	150.471
R1-131	ISMAEL BIOSCA, SL	663.621
R1-132	ELECTRICA SAN SERVAN, SL	465.872
R1-133	HIDROELECTRICA EL CARMEN, SL	2.014.135
R1-134	ELECTRA LA LOMA, SL	536.678
R1-135	ELECTRA LA ROSA, SL	169.268
R1-136	ELECTRICA SAN GREGORIO, SL	101.115
R1-137	HEREDEROS DE GARCIA BAZ, SL	110.584
R1-138	SIERRO DE ELECTRICIDAD, SL	52.979
R1-139	DISTRIBUIDORA DE ELECTRICIDAD MARTOS MARIN, SL	236.601
R1-140	DISTRIBUIDORA ELECTRICA CARRION, SL	424.182
R1-141	HELIODORA GOMEZ, SA	207.787
R1-142	LUIS RANGEL Y HNOS, SA	651.028
R1-143	SERVILIANO GARCIA, SA	1.305.760
R1-145	ELECTRICA DE CALLOSA DE SEGURA, SVL	1.567.073
R1-146	JOSE FERRE SEGURA E HIJOS, SRL	1.318.805
R1-147	ELECTRA JOSE ANTONIO MARTINEZ, SL	117.588
R1-148	ELECTRICIDAD PASTOR, SL	610.366
R1-149	HIJOS DE FELIPE GARCIA ALVAREZ, SL	111.233
R1-150	COOPERATIVA ELECTRICA DE CASTELLAR KOOP	574.103
R1-151	COOPERATIVA ELECTRICA BENEFICA ALBATERENSE KOOP	1.096.476
R1-152	ELECTRICA DE MELIANA, SOCIEDAD KOOP	403.478
R1-153	COOPERATIVA POPULAR DE FLUIDO ELECTRICO DE CAMPRODON, SCCL	308.361
R1-154	ELÉCTRICA ALGIMIA DE ALFARA KOOP	131.547
R1-155	ELECTRICA DE VINALES KOOP	332.957
R1-156	ELECTRICA DE DURRO, SLU	53.518
R1-157	ELECTRICA DE GUADASUAR KOOP	1.031.171
R1-158	ELÉCTRICA DE SOT DE CHERA KOOP	121.637
R1-159	ELECTRICA NTRA. SRA. DE GRACIA, KOOP	1.207.790
R1-160	ELECTRODISTRIBUIDORA DE FUERZA Y ALUB. CASABLANCA KOOP	176.124
R1-161	FLUIDO ELECTRICO DE MUSEROS KOOP	275.695
R1-162	DELGICHI, SL	43.000
R1-163	DIELEC GUERRERO LORENTE, SL	82.470
R1-164	DISTRIBUCION DE ELECTRICIDAD VALLE DE SANTA ANA, SL	110.066
R1-165	DISTRIBUIDORA ELECTRICA GRANJA DE TORREHERMOSA, SL	358.110
R1-166	ELECTRICA SANTA CLARA, SL	374.239

Erregistro zk.	Enpresa banatzailea	Euro
R1-167	EMPRESA ELECTRICA MARTIN SILVA POZO, SL	505.544
R1-168	HIDROELECTRICA SAN BUENAVENTURA, SL	259.418
R1-169	HIDROELECTRICA SANTA TERESA, SL	62.957
R1-170	HIJOS DE CASIANO SANCHEZ, SL	58.296
R1-171	SOCIEDAD ELECTRICA JEREZ DEL MARQUESADO SA	167.070
R1-172	SUMINISTROS ELECTRICOS DE AMIEVA, SL	106.697
R1-173	HIDROELECTRICA DOMINGUEZ, SL	60.541
R1-174	ELECTRA CONILENSE, SLU	2.877.434
R1-175	DISTRIBUCIONES ELECTRICAS PORTILLO, SL	1.191.610
R1-176	ELECTRICA DE JAFRE, SA	707.273
R1-177	ELECTRICA LOS LAURELES, SL	301.935
R1-178	ELECTRICA SAN JOSE OBRERO, SL	166.609
R1-179	ARAGONESA DE ACTIVIDADES ENERGETICAS, SA	516.662
R1-180	C. MARCIAL CHACON E HIJOS, SL	1.600.333
R1-181	ELECTRICA MORO BENITO, SL	120.313
R1-182	FUENTES Y COMPAÑIA, SL	943.476
R1-183	LA ELECTRICA DE VALL DE EBO, SL	50.574
R1-184	ANTOLINA RUIZ RUIZ, SLU	31.199
R1-185	DISTRIBUCIONES DE ENERGIA ELECTRICA DEL NOROESTE, SL	44.391
R1-186	ELECTRA DE ZAS, SL	249.439
R1-187	HIDROELECTRICA DEL CABRERA, SL	255.342
R1-188	ELECTRICIDAD LA ASUNCION, SL	65.280
R1-190	SOCIEDAD ELECTRICA DE RIBERA DEL FRESNO, SA	371.562
R1-191	ALSET ELECTRICA, SL	981.202
R1-192	ELECTRO DISTRIBUIDORA CASTELLANO LEONESA, SA	195.079
R1-193	ELECTRA VALDIVIELSO, SA	67.526
R1-194	EMPRESA ELECTRICA DE SAN PEDRO, SL	685.831
R1-195	ELECTRICA ABENGIBRENSE DISTRIBUCION, SL	172.841
R1-196	ELECTRICA DE LA SERRANIA DE RONDA, SL	1.149.265
R1-197	EBROFANAS, SL	152.547
R1-198	ELECTRICA SAGRADO CORAZON DE JESUS, SL	190.169
R1-199	DISTRIBUIDORA ELECTRICA MONESTERIO, SLU	1.793.276
R1-200	DISTRIBUIDORA ELECTRICA BRAVO SAEZ, SL	255.063
R1-201	ELECTRICA NUESTRA SEÑORA DE LOS SANTOS, SL	658.471
R1-202	MOLINO VIEJO DE VILALLER, SA	109.849
R1-203	VARGAS Y COMPAÑIA ELECTRO HARINERA SAN RAMON, SA	470.678
R1-204	ELECTRA DE SANTA COMBA, SL	1.584.391
R1-205	ICASA DISTRIBUCION ENERGIA, SL	36.591
R1-206	DISTRIBUCIONES ELECTRICAS DEL ERIA, SL	78.146
R1-207	DISTRIBUIDORA ELECTRICA ISABA, SLU	94.636
R1-208	ENERFRIAS, SL	138.175
R1-210	CENTRAL ELECTRICA SAN ANTONIO, SL	664.282
R1-211	ELECTRA CUNTIENSE, SL	535.382
R1-213	ELECTRICAS DE BENUZA, SL	214.370
R1-214	RODALEC, SL	136.964
R1-215	ELECTRICA DEL HUEBRA, SL	90.753
R1-216	DISTRIBUIDORA ELÉCTRICA DE NAVASFRIAS, SL	200.454
R1-217	ELECTRICA MESTANZA R.V., SL	87.242
R1-218	HIDROELECTRICA DE CATALUNYA, SL	1.206.485
R1-219	ELECTRA DE ABUSEJO, SL	1.090.544
R1-220	ELECTRICA DE CANTOÑA, SL	88.967
R1-221	ELECTRICA GILENA, SLU	375.624

Erregistro zk.	Enpresa banatzailea	Euro
R1-222	ENERGIAS DE PANTICOSA, SL	314.525
R1-223	HEREDEROS DE EMILIO GAMERO, SL	789.255
R1-224	DISTRIBUIDORA ELECTRICA DE MONTOLIU, SLU	87.422
R1-225	ELECTRICA BAÑESA, SL	76.700
R1-226	GLORIA MARISCAL, SL	116.377
R1-227	RUIZ DE LA TORRE, SL	1.051.154
R1-228	LUZ DE CELA, SL	130.032
R1-229	ELECTRICA SAN MARCOS, SL	48.835
R1-231	ELÈCTRICA CURÓS, SL	584.899
R1-232	ELECTRA VALDIZARBE, SA	1.207.382
R1-233	ELECTRICA LATORRE, SL	515.731
R1-234	ELECTRICA DE CASTRO CALDELAS, SL	206.467
R1-236	EL PROGRESO DEL PIRINEO- HEREDEROS DE FRANCISCO BOLLÓ QUELLA, SL	473.650
R1-237	MONTESLUZ DISTRIBUCION ELECTRICA, SL	370.682
R1-238	EMILIO PADILLA E HIJOS, SL	127.172
R1-239	SALTOS DEL CABRERA, SL	281.653
R1-240	DISTRIBUCION ENERGIA ELECTRICA DE PARCENT, SL	173.967
R1-241	DISTRIBUIDORA DE ENERGIA ELECTRICA TORRECILLAS VIDAL, SL	156.938
R1-242	CENTRAL ELECTRICA INDUSTRIAL, SLU	188.736
R1-243	HIDROELECTRICA EL CERRAJON, SL	114.032
R1-244	HIDROELECTRICA JOSE MATANZA GARCIA, SL	221.785
R1-245	DISTRIBUCION Y ELECTRICA CARIDAD E ILDEFONSO, SL	131.189
R1-246	FELIPE BLAZQUEZ, SL	196.181
R1-247	INPECUARIAS TORRECAMPO, SL	161.505
R1-248	E. SAAVEDRA, SA	365.241
R1-249	JUAN Y FRANCISCO ESTEVE MAS, SL	68.710
R1-250	LUZ ELECTRICA LOS MOLARES, SL	344.795
R1-251	SERVICIOS URBANOS DE CERLER, SA (SUCSA)	339.625
R1-252	HEREDEROS DE CARLOS OLTRA, SL	44.713
R1-253	COMPAÑÍA ELÉCTRICA DE FÉREZ, SL	368.697
R1-254	ELECTRA SALTEA, SL	536.489
R1-255	ELECTRICAS SANTA LEONOR, SL	123.930
R1-256	EMDECORIA, SL	1.303.214
R1-257	HIJOS DE FRANCISCO ESCASO, SL	1.232.773
R1-258	MILLARENSE DE ELECTRICIDAD, SAU	125.393
R1-259	MUNICIPAL ELECTRICA VILORIA, SL	117.233
R1-260	ELECTRA LA HONORINA, SL	195.727
R1-261	ELECTRA SAN BARTOLOME, SL	262.726
R1-262	ELECTRICA DEL GUADALFEO, SL	453.224
R1-264	ELECTRICA SANTA MARTA Y VILLALBA, SL	1.129.810
R1-265	HEREDEROS DE MARIA ALONSO CALZADA. VENTA DE BAÑOS, SL	85.763
R1-266	HIJOS DE MANUEL PERLES VICENS, SL	96.392
R1-267	ELÉCTRICA DE VER, SL	34.029
R1-268	ELECTRADISTRIBUCIÓN CENTELLES, SL	1.510.919
R1-269	MANUEL ROBRES CELADES, SLU	55.293
R1-270	ELECTRA DEL FOXO, SL	345.344
R1-271	DISTRIBUCION ELECTRICA DE ALCOLECHA, SL	34.599
R1-272	LUS ELÉCTRICA DE ALGAR, SLU	459.992
R1-273	EMPRESA MUNICIPAL D'ENERGIA ELECTRICA TORRES DEL SEGRE, SL	405.430
R1-274	ELEC VALL DE BOI, SL	77.940
R1-275	ELECTRICA DE VALDRIZ, SL	171.376
R1-276	IGNALUZ JIMENEZ DE TORRES, SL	55.469

Erregistro zk.	Enpresa banatzailea	Euro
R1-277	DISTRIBUIDORA ELECTRICA NIEBLA, SL	522.666
R1-278	TOLARGI, SL	1.490.258
R1-279	ELECTRICA DEL MONTSEC SL	361.406
R1-281	ELECTRO SALLEN DE GALLEGO, SL	232.061
R1-282	DISTRIBUIDORA ELECTRICA DE CATOIRA, SA	206.197
R1-283	ELECTRICA DEL POZO KOOP	393.373
R1-284	AFRODISIO PASCUAL ALONSO, SL	171.269
R1-285	ENERGIAS DE BENASQUE, SL	777.229
R1-286	DISTRIBUCIONES ELECTRICAS DE POZUELO, SA	95.691
R1-287	DISTRIBUIDORA ELECTRICA DE CASAS DE LAZARO, SA	192.221
R1-288	DISTRIBUCIONES ALNEGA, SL	58.997
R1-289	ELECTRO ESCARRILLA, SL	68.390
R1-290	ELECTRICA DE ALBERGUERIA, SA	379.677
R1-291	EMPRESA ELECTRICA DE JORQUERA, SL	50.162
R1-292	ELECTRA LA MOLINA, SL	194.058
R1-293	HIDROELECTRICA COTO MINERO DISTRIBUCION, SLU	209.421
R1-294	DISTRIBUIDORA ELECTRICA DEL PUERTO DE LA CRUZ, SA	6.947.457
R1-295	INDUSTRIAL BARCALESA, SL	343.065
R1-296	DISTRIBUIDORA ELECTRICA D'ALBATARREC, SL	281.242
R1-297	ELECTRA ORBAICETA, SL	38.258
R1-298	DISTRIBUIDORA DE ENERGIA ELECTRICA ENERQUINTA, SL	89.512
R1-300	ELÉCTRICAS DE VILLAHERMOSA, SA	80.915
R1-301	ALARCON NAVARRO EMPRESA ELECTRICA, SL	314.878
R1-302	ARAMAIOKO ARGINDAR BANATZAILEA, SA	152.728
R1-304	HIDROFLAMICELL, SL	702.703
R1-305	SDAD. MUNICIPAL DE DISTRIB. ELÉCTRICA DE LLAVORSÍ, SL	118.153
R1-306	HELIODORO CHAFER, SL	343.384
R1-307	CENTRAL ELECTRICA DE POZO LORENTE, SL	99.132
R1-309	PEDRO SANCHEZ IBAÑEZ, SL	274.529
R1-310	AGRUPACIÓN DISTRIBUIDORA DE ESCUER, SL	17.183
R1-312	ELECTRA EL VENDUL, S.L.	34.781
R1-313	LEINTZARGI, SL	30.614
R1-314	DISTRIBUIDORA ELECTRICA DE PONTS, SL (D.E.P, SL)	112.000
R1-317	ELECTRICA POPULAR KOOP	322.641
R1-319	LA SINARQUENSE, SLU	187.983
R1-320	SERVICIOS Y SUMINISTROS MUNICIPALES ARAS, SLU	135.211
R1-323	FUERZAS ELÉCTRICAS DE BOGARRA, SA (FOBOSA)	462.070
R1-325	EMPRESA MUNICIPAL DE DISTRIBUCIÓN D'ENERGIA ELÉCTRICA D'ALMENAR, SLU	668.274
R1-326	ELECTRA TUDANCA, SL	69.353
R1-327	ELECTRICA ANTONIO MADRID, SL	225.341
R1-328	INSTALACIONES ELÉCTRICAS RÍO ISÁBENA, SL	550.805
R1-329	DISTRIBUCIONES ELÉCTRICAS TALAYUELAS, SL	253.034
R1-330	EMPRESA ELÉCTRICA DEL CABRIEL, SL	121.574
R1-335	SERVICIOS Y SUMINISTROS MUNICIPALES DE CHULILLA, SL	143.001
R1-336	CATENERIBAS, SLU	40.118
R1-337	SOCIETAT MUNICIPAL DE DISTRIBUCIÓN ELECTRICA DE TIRVIA, SL	29.361
R1-338	SUMINISTROS ELECTRICOS ISABENA, SL	131.330
R1-339	ELECTRA URDAZUBI, SL	263.723
R1-340	ELECTRICA COSTUR, SL	78.675
R1-341	TALARN DISTRIBUCION MUNICIPAL ELECTRICA, SL	69.610
R1-342	ELÉCTRICA DE LÍJAR, SL	703.027
R1-343	ENERGIAS DE LA VILLA DE CAMPO, SLU	118.995

Erregistro zk.	Enpresa banatzailea	Euro
R1-344	GESTION DEL SERVICIO ELECTRICO HECHO, SL . . . . .	184.063
R1-345	ALCONERA DE ELECTRICIDAD, SL . . . . .	113.528
R1-346	ELÉCTRICAS TUEJAR, SL . . . . .	251.740
R1-347	ELÉCTRICA SALAS DE PALLARS, SL . . . . .	76.300
R1-348	ELECTRO-HARINERA BELSETANA KOOP . . . . .	25.526
R1-349	LA CONSTANCIA-ARÉN, SL . . . . .	71.347
R1-350	DISTRIBUIDORA ELECTRICA VALLE DE ANSO, SL . . . . .	93.380
R1-351	ELECTRICA SUDANELL, SL . . . . .	140.194
R1-352	ELÉCTRICAS HIDROBESORA, SL . . . . .	83.943
R1-353	ELÉCTRICAS COLLADO BLANCO, SL . . . . .	168.651
R1-354	LLUM D'AIN, SL . . . . .	45.962
R1-355	ELÉCTRICAS LA ENGUERINA, SL . . . . .	237.624
R1-356	COOPERATIVA V.E.F.A. «SERRALLO» . . . . .	39.153
R1-357	ELECTRICA DE MALCOCINADO, SLU . . . . .	103.103
R1-358	ELÉCTRICAS DE VALLANCA, SL . . . . .	52.369
R1-359	ELECTRO MANZANEDA, SL . . . . .	136.598
R1-360	ELECTRICA MUNICIPAL DE SANTA COLOMA DE QUERALT, SL . . . . .	421.876
R1-361	DISTRIBUCIONES ELÉCTRICAS DE GISTAÍN, SL . . . . .	24.122
R1-362	ENERGÍAS DEL ZINQUETA, SL . . . . .	61.701
R1-363	ELECTRA DEL LLOBREGAT ENERGÍA, SL . . . . .	165.978
R1-364	SAMPOL ENERGÍA, SL . . . . .	46.084
R1-365	ELECTRA REDENERGÍA, SL . . . . .	631.825
	GUZTIRA . . . . .	340.811.777